Osakidetza



EKONOMIAKO GOI-MAILAKO TITULUDUNA

GALDERAK

1. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zer den aukera-kostua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontsumitutako ondasun edo zerbitzuaren kostu globala.
b) Kontsumitutako ondasun edo zerbitzuaren kostu global garbia.
c) Ondasun edo zerbitzua lortzeko uko egin behar zaiona.
d) Ondasun edo zerbitzuaren diru-kostuaz gainerako kostua.

2. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zertarako erabiltzen dituzten gobernu modernoek politika makroekonomikoko tresnak: Aukera ezazu erantzunik OSATUENA.

a) Gastu agregatuaren mailan eragina izateko, ekonomia atzeraldiaren eta inflazioaren arriskuetatik urrun mantentzen saiatuta.
b) Eragina izateko ondasun eta zerbitzuen guztizko ekoizpenean eta herrialdeko saltzaile eta erosle guztien elkarrekintzan.
c) Inflazioaren arriskua urruntzeko eta finantza-egonkortasuna berrezartzeko.
d) Kontsumitzaileen jokabidean eragina izateko.

3. Ekonomiaren oinarriak. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Eskaria guztiz inelastikoa edo zurruna da baldin eta preziok ez badu inolako eraginik.
b) Eskaintza guztiz inelastikoa bada, eskainitako kantitatean prezioak ez du inolako eraginik izango eta eskaintzaren kurba lerro bertikal bat izango da.
c) Ordezko aukera egokiak erraz eskura daitezkeenean, ondasun baten eskaria elastikoago bihurtzen da.
d) Eskaria elastikoa da prezioarekiko, elastikotasuna 1 baino txikiagoa bada.

4. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu banku zentralak emandako diru kantitatea murrizteak zein eragin duen eskari agregatuan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskari agregatuaren kurba ezkerrerantz mugituko da.
b) Eskari agregatuaren kurba eskuinerantz mugituko da.
c) Kurban zehar mugimendu bat egongo da.
d) Ez du inolako eraginik.



5. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu faktore hauetako zeinek handitzen duen eskaintza agregatua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Langileek produktibitatea galtzeak.
b) Soldata nominalek gora egiteak.
c) Lehengaien prezioek gora egiteak.
d) Soldata nominalek behera egiteak.

6. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zein ondorio dituen eskariaren shock negatibo batek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskari agregatuaren kurba eskuinerantz mugitzen da.
b) Eskari agregatuaren kurba ezkerrerantz mugitzen da.
c) Orekako ekoizpen agregatu handiagoa eragiten du epe laburrean.
d) Orekako prezioen maila agregatu handiagoa eragiten du.

7. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zer den oreka-prezioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Prezio horretan salerositako kantitatea.
b) «Merkatua husten duen prezioa» delakoa.
c) Bi kurbek elkar ebakitzen duten prezioa.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

8. Ekonomiaren oinarriak. Erabateko lehentasuna izango du Administrazio publikoen zor publikoaren interesak eta kapitala ordaintzeak beste edozer gasturen gainetik… (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zenbait kasutan.
b) Inoiz ez.
c) Bai, erabat.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

9. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zer den egiturazko defizita: Aukera ezazu erantzunik ZUZENENA.

a) Zikloaren defizit doitua, salbuespenezko eta aldi baterako neurriak kenduta.
b) Ekitaldi ekonomikoaren eraginez sortutako defizita.
c) Estatu baten gastu arrunten eta zerga-bilketaren arteko aldea.
d) Herrialde bateko kontu publikoetan sortzen den zorpetzea, herrialde horretako ekonomia krisian edo atzeraldian dagoenean.

10. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu nola gauzatzen den politika fiskal hedakorra: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gastu publikoa igota, zergak jaitsita, edo gobernuaren transferentziak gehituta.
b) Gastu publikoa murriztuta, zergak igota, edo gobernuaren transferentziak gutxituta.

c) Gastu publikoa igota, zergak igota, edo gobernuaren transferentziak gehituta.
d) Gastu publikoa igota, zergak igota, edo gobernuaren transferentziak gutxituta.

11. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu zer den bi herrialdetako moneten arteko erosteko ahalmenaren parekotasuna: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondasun eta zerbitzuen saski jakin batek bi herrialdeetan kostu bera izango lukeen truke-tasa nominala.
b) Bi herrialdeetako truke-tasa berdintzen duen prezio-maila.
c) Herrialdeetako neurri ekonomikoak bat-etortzea.
d) Herrialde batean produzitutako ondasun eta zerbitzu kantitateen amaierako batura, herrialdeetako baten diru-balioan.

12. Ekonomiaren oinarriak. Ekoizpen-aukeren mugan gaudenean, hau egiten ari gara: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Faktoreen zati bat alferrik galtzen.
b) Puntu bat beheragoko aukera-kostua baino kostu handiagoarekin ekoizten.
c) Eraginkortasunik gabe ekoizten.
d) Faktore guztiak eraginkortasunez erabiltzen.

13. Ekonomiaren oinarriak. Merkatu-ekonomiaren jatorrian dago: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Adam Smith.
b) John M. Keynes.
c) Karl Marx.
d) Milton Friedman.

14. Ekonomiaren oinarriak. Ondasun jakin baten eskaintza- eta eskari-funtzioak honakoak dira (eskaintza=O; eskaria=D):

$$Q_O = 50\ p - 150$$
$$Q_D = 270 - 20\ p$$

(Aukeratu erantzun zuzena)

a) Orekaren prezioa eta kantitatea, hurrenez hurren, 5€ eta 50 unitate dira.
b) Orekaren prezioa eta kantitatea, hurrenez hurren, 6€ eta 150 unitate dira.
c) Gobernuak 5€-ko gehieneko prezioa ezartzen badu, 70 unitateko gehiegizko eskaintza produzituko da.
d) Gobernuak 7€-ko gutxieneko prezioa ezartzen badu, 70 unitateko gehiegizko eskaria produzituko da.

15. Ekonomiaren oinarriak. Eskari-funtzio bat kontuan hartuta, adieraz ezazu zer eragingo duen kontsumitzaileen errenta handitzeak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dio eskariaren funtzioari eragingo.
b) Eskariaren funtzioa eskuinerantz mugituko da.

c) Eskariaren funtzioa ezkerrerantz mugituko da.
d) Eskaintzaren funtzioa eskuinerantz mugituko da.

16. Ekonomiaren oinarriak. Gobernuak gutxieneko prezio bat ezartzen badu: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskatutako kantitatea oreka-kantitatea baino txikiagoa izango da.
b) Ekoizleen diru-sarrerak handituko dira.
c) Eskatutako kantitatea oreka-kantitatea baino txikiagoa izango da.
d) Ekoizleen eskaintza murrizten du.

17. Ekonomiaren oinarriak. Herrialde batean bi motatako ondasunak soilik produzitzen dituzte: eskularruak eta maskarak. 2021ean eskularruen eta maskaren prezioak 15€ eta 25€ izan ziren, hurrenez hurren. 2022an, prezio horiek 18€ eta 29€-ra igo ziren. Ondasun horien ekoizpen-kantitateak 100 eta 40 izan ziren, hurrenez hurren, bai 2021ean bai 2022an. Informazio horretan oinarrituta, honako hau ondoriozta daiteke: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 2021eko BPG (Barne Produktu Gordina) nominala 2.500€-koa izan zen.
b) Benetako BPGa ez zen aldatu 2021 eta 2022 artean.
c) 2021 eta 2022 artean BPG nominalaren hazkunde-tasa %18,4koa izan zen.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

18. Ekonomiaren oinarriak. Benetako BPG (Barne Produktu Gordina) per capitari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Irizpide nahikoa da giza ongizatea neurtzeko.
b) Herrialde bateko ekoizpen agregatuaren neurri bat da.
c) Ez da irizpide nahikoa giza ongizatea neurtzeko.
d) Prezioen aldaketa kontuan hartu gabe kalkulatzen da.

19. Ekonomiaren oinarriak. Herrialde batek defizit publikoa duenean, honako hau esan nahi du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gastu publikoa diru-sarrera publikoak baino handiagoa dela.
b) Esportazioak inportazioak baino handiagoak direla.
c) Inportazioak esportazioak baino handiagoak direla.
d) Diru-sarrera publikoak gastu publikoa baino handiagoak direla.

20. Ekonomiaren oinarriak. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) BPGa (Barne Produktu Gordina) honela neur daiteke: herrialde batean produzitutako ondasun eta zerbitzuen gastua guztira, edo ekoizpeneko balio erantsia, edo herrialdeko produkzioaren truke jasotako errenta guztien batura.
b) BPGa honela neur daiteke: herrialde bateko biztanleek ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua guztira, ondasun eta zerbitzu horiek non produzitzen diren kontuan hartu gabe.
c) Herrialde baten esportazioak herrialde horretako BPGaren neurketatik kanpo utzi behar

dira.

d) Esportazioak eta inportazioak BPGren kuantifikazioan batzen dira.

21. Ekonomiaren oinarriak. Politika fiskal hedakorraren helburua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskari agregatua handitzea da.
b) Zergak igotzea da.
c) Prezioak murriztea da.
d) Transferentziak murriztea.

22. Ekonomiaren oinarriak. Oinarri monetarioa honako hauek osatzen dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jendearen esku dagoen eskudiruak gehi banku-erreserbek.
b) Jendearen esku dagoen eskudiruak.
c) Eskudiruak gehi ageriko gordailuek.
d) Banku-erreserbek.

23. Ekonomiaren oinarriak. Espainiak Marokon produzitutako oinetako ortopedikoei aduana-zerga bat ezartzen badie, eragin hau izango du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Espainian oinetako ortopedikoen kontsumoa handitzea.
b) Espainian oinetako ortopedikoen ekoizpena handitzea.
c) Marokoko oinetako ortopedikoen inportazioek gora egitea.
d) Espainian oinetako ortopedikoen prezioak behera egitea.

24. Ekonomiaren oinarriak. Eskaintza eta eskaria. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskaintzaren eta eskariaren ereduaren oinarrizko bost elementuak hauek dira: eskari-kurba; eskaintza-kurba; eskaintza-kurbaren desplazamenduak eragiten dituen faktore multzoa eta eskari-kurbaren desplazamenduak eragiten dituen faktore multzoa; merkatuaren oreka; eta, azkenik, eskaintza- eta eskari-desplazamenduek eragindako oreka-aldaketak.
b) Eskaintzaren eta eskariaren ereduaren oinarrizko bost elementuak hauek dira: eskari-kurba; eskaintza-kurba; merkatuaren elastikotasuna; kantitatea; eta, azkenik, prezioa edo kostua.
c) Eskaintzaren eta eskariaren ereduaren oinarrizko bost elementuak hauek dira: eskari-kurba; eskaintza-kurba; merkatuaren elastikotasuna; merkatuaren oreka; eta, azkenik, oligopolioaren edo monopolioaren aukera.
d) Eskaintzaren eta eskariaren ereduaren oinarrizko bost elementuak hauek dira: eskaintza-kurbaren desplazamenduak eragiten dituen faktore multzoa eta eskari-kurbaren desplazamenduak eragiten dituen faktore multzoa; merkatuaren oreka; merkatuaren elastikotasuna; oreka-prezioa; eta, azkenik, oreka-kantitatea.



25. Ekonomiaren oinarriak. Eskaintza eta eskaria. Eskariaren legeak honako hau dio: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskari-kurbak, orokorrean, gorakorrak dira, hau da, prezioa igotzen denean, eskatutako kantitatea murriztu egiten da.
b) Eskari-kurbak, orokorrean, beherakorrak dira; hau da, prezioa igotzen denean, eskatutako kantitatea handitu egiten da.
c) Eskari-kurbak, orokorrean, gorakorrak dira; hau da, prezioa jaisten denean, eskatutako kantitatea handitu egiten da.
d) Eskari-kurbak, orokorrean, beherakorrak dira; hau da, prezioa igotzen denean, eskatutako kantitatea murriztu egiten da.

26. Ekonomiaren oinarriak. Elastikotasuna eta zergak. Eskariaren prezio-elastikotasunak honakoak alderatzen ditu: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskainitako kantitatearen ehuneko aldaketa prezioaren ehuneko aldaketarekin, eskari-kurban zehar mugitzen garen heinean.
b) Eskatutako kantitatearen ehuneko aldaketa prezioaren ehuneko aldaketarekin, eskari-kurban zehar mugitzen garen heinean.
c) Eskatutako kantitatearen ehuneko aldaketa prezioaren ehuneko aldaketarekin, eskaintza-kurban zehar mugitzen garen heinean.
d) Eskainitako kantitatearen ehuneko aldaketa prezioaren ehuneko aldaketarekin, eskaintza-kurban zehar mugitzen garen heinean.

27. Ekonomiaren oinarriak. Makroekonomia, Sarrera. Barne Produktu Gordinaren (BPG) kalkulua. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) BPG-a produzitutako ondasunen eta zerbitzuen balio gisa kalkula daiteke. Hau da, ekonomia batean produzitutako azken ondasun eta zerbitzu guztien balioa batu behar dira, tarteko ondasunen eta zerbitzuen balioa alde batera utzita.
b) BPG-a barne-merkatuan produzitutako azken ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastu gisa kalkula daiteke. Hau da, herrialdean produzitutako azken ondasunetan eta zerbitzuetan egindako gastu erantsia batu behar dira.
c) BPG-a kalkulatzeko, batu ekonomia bateko enpresek kobratutako errenta guztiak eta produkzio-faktoreak.
d) BPG-a enpresetan sartzen den funts-fluxuen bidez kalkula daiteke.

28. Ekonomiaren oinarriak. Nazioarteko merkataritza eta ordainketa-balantza. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hau da ondasunen eta zerbitzuen balantza: ondasunen eta zerbitzuen balantzaren, transferentzien balantzen eta faktoreen errenten batura.
b) Balantza komertziala ondasunen eta zerbitzuen balantza da.
c) Hau da kontu korronteko balantza edo korronte-balantza: ondasunen eta zerbitzuen balantzaren, transferentzien balantzen eta faktoreen errenten batura.
d) Hau da ondasunen eta zerbitzuen balantza: ondasunen esportazioen eta inportazioen arteko aldea, zerbitzuak alde batera utzita.

29. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu hurrengo gertaeretatik zeinek mugituko lukeen kafearen eskaera-kurba eskuinerantz ("eskaria handitzea"): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Azukrearen prezioa igotzeak, kafearen osagarri dena.
b) Kafearen prezioa jaisteak (mugimendua kurban zehar).
c) Diru-sarrerak handitzeak, kafea ondasun normala denean.
d) Kafe-ekoizleen kopurua handitzeak.

30. Ekonomiaren oinarriak. BPG (Barne Produktu Gordina) gastu-metodoaren bidez kalkulatzean, adieraz ezazu elementu hauetako zeinek barne hartzen duen enpresa batek makineria erostea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontsumoak (K).
b) Gastu publikoak (G).
c) Inbertsioak (I).
d) Esportazio garbiak.

31. Ekonomiaren oinarriak. Hau da epe luzean hazkunde ekonomiko iraunkorra izateko funtsezko arrazoia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Inflazioa.
b) Produktibitatea handitzea.
c) Diru-eskaintza hedatzea.
d) Gastu publikoa murriztea.

32. Ekonomiaren oinarriak. Nagusiki, honetan datza politika fiskal hedakorra: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Diru-eskaintza murriztean.
b) Zergak igotzean.
c) Truke-tasa erreala finkatzean.
d) Gastu publikoa handitzean edo zergak murriztean.

33. Ekonomiaren oinarriak. Herrialde batek abantaila konparatiboa du ondasun batean, ondorengo kasuan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beste edozein herrialdek baino unitate gehiago produzitu ditzakeenean.
b) Produzitzeko aukera-kostua beste herrialde batzuetan baino txikiagoa denean.
c) Baliabide natural gehiago dituenean.
d) Truke-tasa altuagoa duenean.

34. Ekonomiaren oinarriak. Adieraz ezazu faktore hauetako zein EZ den epe luzerako hazkunde ekonomikoaren iturrietako bat: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kapital fisikoa.
b) Giza kapitala.



c) Muga-zergen politika.
d) Aurrerapen teknologikoa.

35. Ekonomiaren oinarriak. Gobernuak gastu publikoaren biderkatzaile bat aplikatzen duenean, adieraz ezazu zein ondoriok deskribatzen duen ondoen gertatuko dena: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gastu publikoari gehitutako euro bakoitzak hasierako euro horrek baino guztizko BPG-igoera handiagoa eragiten du.
b) Gastu publikoak eskari agregatuari eragiten dio hasieran, baina ez du bestelako eraginik.
c) Soilik interes-tasak gora egiten badu, izango du eraginik biderkatzaileak.
d) Gastu publikoaren eragin osoa beti da hasierako gastuaren berdin-berdina.

36. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazioa eskuratzeko eskubidearen prozedura abiarazteko, dagokion eskabidea aurkeztu beharko da, eta… (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskatzaileak eskabidea nahitaez arrazoitu beharko du.
b) Eskatzaileak ez du eskabidea nahitaez arrazoitu beharrik izango.
c) Eskabidea ez arrazoitzea, eskabidea ez onartzeko arrazoia izan daiteke.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

37. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren xedeak honakoak dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jarduera publikoaren gardentasuna sustatzea, informazio publikoa eskatzeko eskubidearen erabilera bermatzea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla ziurtatzea.
b) Legeak arautzen dituen gaiak hobeto ezagutzeko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.
c) Bere jarduera, efikazia-efizientzia- eta arrazionaltasun-printzipioetara egokitzea.
d) Betearaztea oinarrizko eskubideei eta askatasun publikoei buruz Espainiako Konstituzioan eta gainerako ordenamendu juridikoan xedatutakooa, duintasunez jokatzeko eta herritarrak zuzentasunez eta arretaz tratatzeko.

38. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen "Gobernu Onaren" xedapenak (II. titulua) aplikatuko zaizkie...: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gobernuko kideei, Estatu-idazkariei eta gainerako goi-kargudunei.
b) Legebiltzarreko kideei.
c) Funtzionario publikoei.
d) Araudiaren arabera halakotzat hartzen diren goi-kargudunei edo horien parekoei, toki-erakundeetako kideei izan ezik.



39. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak, euren helburuak betetzeko, honako egiteko hauek dituzte: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko prozesuari eta gobernu onari buruzko zirriborroak, gomendioak, jarraibideak eta garapen-arauak sustatzea.
b) Gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzeko prozesuaren eta gobernu onaren arloko aholkularitza ematea.
c) Legeak arautzen dituen gaiak hobeto ezagutzeko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak sustatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

40. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, honako honek mugatu dezake gardentasuna bermatzeko publizitate aktiboa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Datu pertsonalen babesak.
b) Lan-arloko legeriak.
c) Dagokion autonomia erkidegoko araudiak.
d) Publizitatearen arloko beste xedapen espezifiko batzuek.

41. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen aplikazio-eremuko subjektuek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aldian behin eta eguneratuta argitaratu behar dute euren jarduera publikoaren funtzionamenduaren eta kontrolaren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua den informazioa.
b) Urtean bi aldiz argitaratu behar dute euren jarduera publikoaren funtzionamenduaren eta kontrolaren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua den informazioa.
c) Aldian behin eta eguneratuta argitaratu behar dute euren jardueraren gardentasuna bermatzeko garrantzitsua den informazioa, 50.000€-tik beherako aurrekontua duten irabazi-asmorik gabeko entitateek salbu.
d) Ez dira bitartekoak erabiltzera behartuta egongo argitalpenak egiteko.

42. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren aurrean egindako erreklamazioak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 10 eguneko epean aurkeztu beharko dira, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
b) Hilabeteko epean ebatzi beharko dira eta ebazpenaren berri eman beharko da.
c) Nahitaezkoa izango da erreklamazioa egitea, administrazioarekiko auzibidetik aurkaratu aurretik.
d) Aukerakoa izango da erreklamazioa egitea, eta administrazioarekiko auzibidetik aurkaratu aurretik egin beharko da.

43. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen xedea EZ da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea eta indartzea.
b) Arduradun publikoek bete beharreko gobernu oneko obligazioak ezartzea.
c) Pertsona fisiko eta juridikoak behartzea Administrazioari beharrezko informazio guztia ematera, betiere aldez aurretik eskatzen bazaie.
d) Jarduera publikoari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea eta bermatzea.

44. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Estatuko Administrazio Orokorraren publizitate aktiboaren betebeharrei dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Publikotasun aktiboko betebeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziplina-araubidea aplikatzen zaizkienean.
b) Ekonomiari, aurrekontuei eta estatistikari buruzko informazioari dagokionez, Administrazio publikoek beren jabetzako ondasun higiezinen zerrenda argitaratuko dute, baita eskubide errealak dituzten ondasunena ere.
c) Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak kontrolatuko du betebehar horiek betetzen ari diren edo ez.
d) Gardentasun Atariaren bitartez egingo dira, zeinak herritarren sarbidea erraztuko baitu.

45. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea dela eta: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Pertsona fisiko guztien eskubidea da.
b) Argitaratutako informazioa eskuratzeko, informazio hori justifikatzen duten arrazoiak jasotzen dituen eskaera aurkeztuz hasten da prozesua.
c) Mugatua izan daiteke interes ekonomiko eta komertzialei kalte egiten badie.
d) Horietarako sarbidea ezingo da mugatu, baldin eta eskatutako informazioak erlijio-ideologiaren berri ematen duten datu pertsonalak baditu eta eragindakoak aurretik publiko egin baditu.

46. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen prozedura ez da onartuko, ebazpen arrazoitu bidez, honako kasu hauetan: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Informazioa bere esku ez duen organo batengana zuzentzen denean eta horren eskumena nork duen ez dakigunean.
b) Elaboratze-bidean dagoen informazioari buruzkoa denean.
c) Barne-txosten izaera duen informazioari buruzkoa denean.
d) Informazio-eskaera jaso duen organoaren iritziz, eskaera abusuzkoa denean.



47. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gobernu Onaren printzipioei dagokienez, adieraz ezazu zein EZ den horietako printzipio bat:

a) Gardentasunez jokatzea gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera, eta interes orokorraren alde egitea.
b) Baliabide publikoak behar bezala kudeatzea, babestea eta mantentzea, eta horiek ez erabiltzea aplikatu beharreko araudiak baimentzen ez dituen jardueretarako.
c) Ohiko erabilera soziala edo kortesia gainditzen duen oparirik ez onartzea, bere eginkizunen garapena baldintzatu dezaketenak. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion Administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.
d) Jarduera irregularren baten berri izanez gero, eskumena duten Organoei jakinaraztea, baldin eta horiek jakinarazteak ez badu eragozten interes partikularretatik kanpoko irizpide independente bati eustea.

48. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluari dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Presidenteak eta Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Batzordeak osatzen dute.
b) Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Batzordeko kideetako batek Diputatu izan behar du.
c) Bere eginkizunetako bat Gardentasunari buruzko 19/2013 Legearen betetze-maila ebaluatzea da.
d) Jarduera publikoaren eta merkataritza-jardueraren gardentasuna sustatzea du helburu.

49. Hau da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen xedea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jarduera publikoaren gardentasuna zabaltzea.
b) Jarduera publikoari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautzea.
c) Arduradun publikoek bete beharreko gobernu oneko obligazioak ezartzea eta horiek ez betetzearen ondorioak zehaztea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

50. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, hauek dute informazio publikoa eskuratzeko eskubidea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pertsona guztiek, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan aurreikusitako moduan.
b) Informazio publikoa lortu nahi zaion entitatearen Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsona guztiek.
c) Espainiako nazionalitatea duten pertsona guztiek.
d) Informazio publikoa eskuratzeko beharra justifikatzen eta argudiatzen duten pertsona guztiek.

51. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskaera egiteko: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskabidea egitean, arlo hauek adierazi beharko dira: eskatzen den informazioa eta informazioa zein modalitatetan jaso nahi den. Modalitate elektronikoa aukeratzen bada, nahikoa izango da helbide elektroniko bat adieraztea. Gainerako modalitateetan, eskatzailea nor den eta informazioa bidaltzeko helbidea zein den adierazi beharko dira.
b) Ez da beharrezkoa eskabidea justifikatzea eta arrazoitzea.
c) Ez da beharrezkoa eskabidea justifikatzea eta arrazoitzea, eskatzen den informazioa datuak babesteko araudiaren mende ez badago.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

52. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko izapidea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Elektronikoki egingo da, eskatzaileak 65 urte baino gehiago dituenean izan ezik.
b) Elektronikoki egingo da, kontrakoa adierazi ezean.
c) Informazioaren egiletza-eskubideei dagokien tasa ordaindu beharko da.
d) Informazioa aurreko eskaeraren batean argitaratu bada, izapidea baliogabetuko da.

53. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gobernu Onari dagokionez, lege horren aplikazio-eremuko pertsonek bete behar dituzten printzipio orokorren artean, honako hau dago: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gai publikoen eta pribatuen kudeaketan gardentasunez jardutea, efikazia-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioen arabera, eta interes orokorra eta partikularra betetzeko helburuarekin.
b) Beren eginkizunak inpartzialtasun-printzipioa errespetatuz betetzea, interes orokorreko gaietan zein interes partikularreko gaietan irizpide independentea izan dezaten.
c) Jokabide duina izatea eta herritarrak zuzentasun handiz tratatzea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

54. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gobernu Onari dagokionez, lege horren aplikazio-eremuko pertsonek bete behar dituzten printzipio orokorren artean dago: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Dedikazio osoz eta araudia erabat errespetatuz jardutea.
b) Euren eskumenengatik ezagutzen dituzten egitateei edo informazioari dagokienez, beharrezkoa den zuhurtziaz jardutea.
c) Baliabide publikoak behar bezala kudeatzea, eta, horiek behar bezala babestuz eta mantenduz gero, modu pribatiboan erabiltzea, horretarako baimenik izanez gero.
d) Bere eginkizunekin bateraezinak diren egoeretan ez inplikatzea eta ohiko erabilerak gainditzen dituzten oparirik ez onartzea.

55. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gobernu Onari dagokionez, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren alorreko arau-hauste oso larria da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kreditu-eragiketak eta zor-jaulkipenak egitea, horretarako baimenik gabe.
b) Plan ekonomiko-finantzarioak edo berroreka-planak dagokion epean martxan ez jartzea.
c) Funts publikoak administratzean, alkantzea eragitea, jokabidea ez bada hurrengo letretan jasotzen diren tipoetako batean ere sartzekoa.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

56. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, adieraz ezazu zer den Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseilua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ogasuneko eta Administrazio publikoetako Ministerioari atxikitako organismo publiko bat, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dituena.
b) Organismo publiko bat, nortasun juridiko propioa duena eta zehapenak ezartzeko ahalmena duena 19/2003 Lege honen arloko arau-hausteak gertatzen direnean.
c) Besteak beste, diputatu batek, senatari batek eta Datuak Babesteko Agentziaren ordezkari batek osatutako erakundea. Horiek guztiak bi urtean behin txandakatu beharko dira, dedikazio esklusiboa eskatzen baita.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

57. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, honako zehapen hauek aurreikusten dira lege horren aplikazio-eremuko pertsonek egiten dituzten arau-hausteetarako: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Amonestazioa, arau-haustea arina bada, ondorio ekonomiko-finantzarioak izan baititzake.
b) Arau-hauste oso larriek ez dute zehapenik izango eragindako kalte eta galerak konpontzen badira.
c) Arau-haustea delitua izan badaiteke, Administrazioak egitateen berri emango dio Estatuko fiskal nagusiari, eta prozedurarekin jarraitzeari uko egingo dio prozesu penalari amaiera ematen dion ebazpenik ematen ez den bitartean.
d) Arau-haustea arina bada, kargutik kentzea eragin dezake, eta pertsona hori ezin izango da izendatua izan 5 urtez goi-karguko edo antzeko karguren bat betetzeko. Arau-haustea larria balitz, epe hori 10 urtekoa izango litzateke, eta arau-hauste oso larrien kasuan, desgaitua izango da.

58. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoaren kontzeptuak honakoak biltzen ditu: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Administrazio publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako dokumentuak baino ez.
b) Legearen aplikazio-eremuko pertsonen esku dauden edukiak edo dokumentuak, edozein formatu edo euskarri dutela ere, baldin eta beren eginkizunak betetzean edo eskuratu



badituzte.
c) Administrazioko erregistro publikoetan jasotako informazioa bakarrik.
d) Gardentasunaren Atarian argitaratutako informazioa bakarrik.

59. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango da, baldin eta eskubide hori zabaltzeak honako hauei kalte egiten badie: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Segurtasun nazionalari eta defentsari.
b) Ingurumenaren babesari.
c) Egiazko informazioa jasotzeko eskubidea bermatzeari.
d) Adierazpen-askatasunari.

60. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, eskatutako informazioak bereziki babestu gabeko datu pertsonalak dituenean: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beti ukatuko da informazio hori eskuratzea.
b) Ukituaren berariazko adostasunez bakarrik eman ahal izango da sarbidea.
c) Informazioa eman aurretik, informazioa zabaltzearen interes publikoa eta ukituaren eskubideak haztatuko dira.
d) Informazioa eskuratzea izango da librea, alde batera utzita informazioa zabaltzearen interes publikoa eta, ukituaren (informazioan ag) eskubideak ere alde batera utzita.

61. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskabidea ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea honako hau izango da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hamar egun.
b) Hilabete bat, eskaera jasotzen denetik.
c) Hiru hilabete, eskaera jasotzen denetik.
d) Sei hilabete, luzatzeko aukerarekin.

62. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskabidea ebazteko epea luzatzeari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dago inola ere baimenduta.
b) Beste hilabete batez luza daiteke, eta eskatzaileari jakinarazi beharko zaio.
c) Eskatzaileak berariaz eta telematikoki eskatzen badu soilik luzatu ahal izango da.
d) Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren aurretiazko txostena beharko da.

63. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren aurrean jartzen den erreklamazioari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erabakia ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da; epe hori igarotzen bada, erreklamazioa ezetsitzat joko da.
b) Erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

64. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea honela emango da, lehentasunez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Paperezko formatuan.
b) Aurrez aurreko agerraldiaren bidez.
c) Bide elektronikoz.
d) BOEn argitaratzearen bidez.

65. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, horretara behartuta dauden pertsonek honako honi buruzko informazioa argitaratu beharko dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Elaborazio-bidean dagoen araudia soilik.
b) Antolamendu-egitura, funtzioak eta aplikatu beharreko araudiari buruzkoa.
c) Esleitutako kontratuak soilik.
d) Informazio ekonomikoa eta aurrekontuari buruzkoa soilik.

66. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, argitaratu beharreko informazio ekonomikoan, aurrekontukoan eta estatistikoan, honako hau agertu behar da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Onartutako aurrekontuak soilik.
b) Kontratuak, hitzarmenak eta emandako dirulaguntzak, besteak beste.
c) Langileei dagozkien gastuak soilik.
d) Aurrekontuaren hiruhilekoko exekuzioa eta, laguntza publikoak eta pribatuak soilik.

67. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasun Atariaren helburua honako hau da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aldizkari ofizialak ordeztea, aldizkari ofizial horien bidez argitaratu ohi diren araudi, administrazio-ebazpen eta egintza juridiko guztiak argitaratuz.
b) Beren jardun-eremuari buruzko artikuluetan aipatzen den informazio guztia



zentralizatzea eta horietarako sarbidea erraztea, herritarrek eskura izan dezaten.
c) Administrazio-erregistro orokor gisa funtzionatzea, edozein Administrazio publikori zuzendutako dokumentuak, egintzak, eskaerak eta komunikazioak bertan inskribatzeko.
d) Ebazpen judizialak bakarrik argitaratzea, organo jurisdikzionalek emandako epai eta autoak gordetzeko.

68. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluak honela jardungo du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gobernuaren eta Ogasun eta Administrazio publikoetako Ministerioaren mendekotasun hierarkiko osoarekin jardungo du.
b) Bere helburuak betetzeko autonomiaz eta independentzia osoz.
c) Ministerio Fiskalaren jarraibideen arabera.
d) Organo aholku-emaile gisa, erabakitzeko gaitasunik gabe.

69. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluko Presidentea epe hauetarako izendatuko da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hiru urterako, berritzeko aukerarekin.
b) Lau urterako, behin bakarrik berritzeko aukerarekin.
c) Bost urterako, berritzeko aukerarik gabe.
d) Sei urterako, eta automatikoki berrituko da.

70. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, prozeduraren irekiera agintzeko eskumena duen organoa hau izango da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Goi-karguduna Gobernuko kidea edo Estatu-idazkari denean: Ministro Kontseilua, Ogasun eta Administrazio publikoetako Ministroak proposatuta.
b) Ustezko erantzuleak Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden pertsonak direnean, aurrekoez bestelakoak (31.2.a art.): Ogasun eta Herri Administrazioetako ministroa.
c) Ustezko erantzuleak autonomia erkidegoko edo tokiko administrazioaren zerbitzura dauden pertsonak direnean, prozeduraren irekiera agindua hauek emango dute: funtzio horiek esleituta dituzten organoek, prozeduraren xede diren karguek zerbitzuak ematen dituzten Autonomia Erkidegoetako edo toki-erakundeetako diziplina-araubidea aplikatuz.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

71. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, gobernu onaren arloan arau-hauste larria izango da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Laneko jazarpena.
b) Interes-gatazka egoeretan abstentzio-betebeharra ez betetzea.
c) Nagusiekin, lankideekin edo mendekoekin izandako adeitasun eza.

d) Greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko edozein ekintza.

72. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, gobernu onaren arloan arau-hauste arinak honela zehatuko dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Berehalako kargugabetzearekin.
b) Kargu publikoak betetzeko gaitasunik gabe utziz.
c) Amonestazioarekin.
d) Zigor ekonomikoarekin.

73. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, informazio publikoa eskuratzea baimentzen edo ukatzen duen ebazpena honako pertsona hauei jakinarazi beharko zaie: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskatzaileari eta ukitutako hirugarrenei, hala eskatu badute, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena emateko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik.
b) Eskatzaileari eta ukitutako hirugarrenei, hala eskatu badute, gehienez ere urtebeteko epean, ebazpena emateko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik.
c) Eskatzaileari, ukitutako hirugarrenei eta Ogasun eta Administrazio publikoetako Ministerioari, hala eskatu badute, gehienez ere bi hilabeteko epean, ebazpena emateko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik.
d) Ukitutako hirugarrenei soilik, hala eskatu badute, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena emateko eskumena duen organoak eskaera jasotzen duenetik.

74. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, eskatutako informazioa dagoeneko argitaratuta badago: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskabidea automatikoki ezetsiko egingo da.
b) Ebazpenean, eskatzaileari informazioa nola eskura dezakeen adierazi ahalko dio soilik.
c) Eskatzaileak informazioa eskuratzeko eskubidea galduko du, eta doakoa izateari utziko dio.
d) Beste zehapen-prozedura bat ireki beharko da.

75. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen arabera, gobernu onaren aplikazio-eremuko pertsonek, beren jarduera honako printzipio orokorren arabera egokituko dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beren eginkizunak zerbitzu publikoaren alde jardunez egingo dituzte, printzipio horien aurkako jokabideak saihestuz.
b) Jarduera irregularren berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.
c) Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta mantenduko dituzte; eta ez dituzte erabiliko araudiak baimentzen ez dituen jardueretarako.
d) Beren eginkizunak gardentasunez beteko dituzte.



76. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu hauetako zein EZ dagoen Euskadiko Aurrekontu Orokorretan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Administrazioa.
b) Erakunde autonomoak.
c) Toki-erakundeak.
d) EAEko sektore publikoko fundazioak.

77. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, honako hauek daude Euskadiko Aurrekontu Orokorretan, besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta euskal sektore publikoko sozietate, fundazio eta partzuergoen aurrekontuak.
b) Administrazio Orokorraren eta udalen aurrekontuak.
c) Euskadiko erakunde guztien aurrekontuak: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta udalak.
d) Administrazio Orokorraren aurrekontuak bakarrik.

78. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein printzipiok ezartzen duen Euskadiko Aurrekontu Orokorretan eskubide eta betebehar guztiak jaso behar direla, salbuespenik gabe: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Finantza-orekaren printzipioak.
b) Unibertsaltasun-printzipioak.
c) Gardentasun-printzipioak.
d) Urte-aniztasunaren printzipioak.

79. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zer balio duten, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetako diru-sarreren egoeretan sartutako zenbatekoek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beti behin betiko balioa.
b) Beti gutxi gorabeherako balioa.
c) Gutxi gorabeherako balioa, behin betikoa ez bada behintzat.
d) Izaera aldakorreko balioa, ekitaldiaren arabera.

80. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontuetako diru-sarrerek honako balio hau izango dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gutxi gorabeherako balioa, salbu eta behin betiko balioa ematen ez bazaie.
b) Balio mugaduna.
c) Beti gutxi gorabeherako balioa.



d) Erantzun guztiak okerrak dira.

81. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontuek, diru-sarreren artean, honakoak sartuko dituzte: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Foru Aldundiek Autonomia Erkidegoari egiten dizkioten ekarpenak.
b) Autonomia Erkidegoak Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura jasotzen dituen esleipenak.
c) Itundutako zergak eta Autonomia Erkidegoak ezar ditzakeen zergen gaineko errekarguak.
d) Zerga propioak eta Autonomia Erkidegoak ezar ditzakeen zergen gaineko errekarguak.

82. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontuek, gastuen egoera-orriaren barruan, honako hauek sartzen dituzte: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Konpromiso-kredituak, kredituok onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren hurrengoan gauzatu beharreko egintzak finantzatzeko hartu beharreko obligazio juridikoei aurre egiteko direnak, hartutako eta sortutako obligazioak betez.
b) Konpromiso-kredituak, kredituok onartu diren aurrekontu-ekitaldiaren ondorengoetan gauzatu beharreko egintzen finantzaketa gastuei aurre egiteko direnak, aurrez hartutako eta gertagarriak diren obligazioak betez.
c) Ordainketa-kredituak, aurrekontu-ekitaldiaren kontura ordaintzeko konpromisoa duten gastuei erantzuteko beharrezkoak direnak, aurrez hartutako eta gertagarriak diren obligazioak betez.
d) Ordainketa-kredituak, aurrekontu-ekitaldiaren kontura ordaindu daitezkeen gastuei erantzuteko beharrezkoak direnak, aurrez hartutako eta sorrarazitako obligazioak betez.

83. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu EAEko Administrazioaren aurrekontuetako gastuen egoera-orrietako zein kreditu mota bideratzen den urte anitzeko konpromisoak finantzatzera: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kudeaketa-kredituak.
b) Kreditu aldakorrak.
c) Konpromiso-kredituak.
d) Kreditu zabalgarriak.

84. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Administrazioaren aurrekontuetako gastuen egoera-orrietako ordainketa-kredituei dagokionez, (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Mugagabeak dira.
b) Mugatzaileak dira, zabalgarriak izan ezik.
c) Zenbatekoaren gainetik konprometitu ahal izango dira, mugarik gabe.
d) Gastu arruntei soilik aplikatzen zaizkie.



85. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko aurrekontuetako gastuen egoera-orrian sartu ahal izango den kreditu globalari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez du aurrekontuko ordainketa-kredituen zenbateko osoaren %5 gainditukо.
b) Zuzkidurarik ez duten behar berriei aurre egiteko erabili ahal izango da.
c) Zabalgarri bezala kalifikatutako kredituak finantzatzeko erabili ahal izango da.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

86. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Administrazioaren aurrekontuetako gastuen egoera-orrien kreditu globalaren zuzkidurak izan dezakeen gehieneko ehunekoa honakoa da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ordainketa-kreditu guztien %2.
b) Ordainketa-kreditu guztien %10.
c) Ordainketa-kreditu guztien %5.
d) Ordainketa-kreditu guztien %20.

87. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontuan kreditu zabalgarri izaera izango dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Urte anitzeko kredituek.
b) Kudeaketa-kredituek, hau da, beste erakunde publiko batzuen funtsak jasotzearen ondorioz sortutako betebeharrei ekiteko diren ordainketa-kredituek.
c) Langileen nahitaezko gizarte-aurreikuspeneko araubideari dagozkion kotizazioetarako ordainketa-kredituak.
d) Ez dago kreditu zabalgarririk.

88. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein den Jaurlaritzak EAEko Administrazioan konpromiso-kredituak handitzeko gehieneko muga: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ordainketa-kredituen %1.
b) Ordainketa-kredituen %3.
c) Ordainketa-kredituen %5.
d) Ordainketa-kredituen %10.

89. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, Aurrekontuen egituran, EAEko sektore publikoko Partzuergoen diru-sarreren eta gastuen egoera-orriak honako kontabilitate-egiturari jarraituz aurkeztuko dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Lurraldean oinarrituta.
b) Administrazio-unitateen arabera.
c) Izaera ekonomikoaren arabera.



d) Sailkapen funtzionalagatik soilik.

90. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko, honako sailkapenaren arabera egingo dira Administrazio-erakunde autonomoetako eta sektore publikoko Partzuergoetako aurrekontuetako gastuen egoera-orriak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sailkapen organiko eta funtzionala, eta programen araberako sailkapena ere bai.
b) Sailkapen organiko eta funtzionala.
c) Lurraldearen araberako sailkapena.
d) Programen araberako sailkapena baino ez.

91. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontuek jasotzen dituzten jardueren gastuei eta diru-sarrerei dagokienez, adieraz ezazu nola aurkeztu behar diren EAEko Administraziotik datozen diru-sarrerak mendeko erakundeen aurrekontuetan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erantsita, banakatu gabe.
b) Banakatuta.
c) Kapituluka, soilik.
d) Bakarrik guztizkoaren %5a gainditzen badute.

92. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, data honetan hasiko da aurrekontu orokorrak egiteko prozedura: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekaineko lehen astean, Gobernuak hurrengo ekitaldirako aurrekontuak lantzeko jarraibide ekonomikoak onartuko ditu, aurrekontuak egiteko eskumena duen sailak proposamena aurkeztuta.
b) Ekaineko lehen astean, Gobernuak hurrengo ekitaldirako aurrekontuak lantzeko jarraibide ekonomikoak onartuko ditu, aurrekontuak egiteko eskumena duen sailak proposamena aurkeztuta.
c) Ekaineko lehen astean, sailek, erakunde autonomoek eta sektore publikoko partzuergoek dagozkien aurrekontu-aurreproiektuak landuko dituzte.
d) Ekaineko lehen astean, Gobernuak hurrengo ekitaldirako aurrekontu-aurreproiektuak onartuko ditu, aurrekontuak egiteko eskumena duen sailak proposamena aurkeztuta.

93. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontuak egiteko, hauxe egitea beharrezkoa da, besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuaren aurreproiektua Gobernuari bidaltzea onar dezan, besteak beste.
b) Aurrekontu-gaietan eskumena duen sailak, Euskadiko egoera ekonomikoari buruzko txosten bat egitea eta Jaurlaritzari bidaltzea, aurrekontuen aurreproiektuari erantsitako dokumentazio gisa.
c) Ekainaren lehenengo astean, Gobernuak, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren proposamenez, hurrengo ekitaldirako aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoak onartzea.



d) Erantzun zuzenak guztiak dira.

94. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuak Aurrekontu Orokorrak aldatzeko araubidea arautzen du. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Aldaketen araubideak, Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten aurrekontuetako bakoitzaren diru-sarreren eta gastuen aldaketei egiten die erreferentzia.
b) Ekitaldi bakoitzerako Aurrekontu Orokorren Legean jasotako xedapenak, 1/2011 LDaren eta Aurrekontuen Legearen arauen arabera aldatu ahal izango dira.
c) Aurrekontuetako diru-sarreren eta gastuen egoera-orrietan egindako aldaketek ez dute inolaz ere eraginik izango eragindako gastuen egoera-orrien guztizko zenbatekoan.
d) Aurrekontuetako diru-sarreren eta gastuen egoera-orrietan egindako aldaketak bi motatakoak izan daitezke: zenbateko osoari eragiten ez diotenak edo zenbateko globala aldatzen dutenak.

95. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein organok aurkezten dion Legebiltzarrari EAEko Aurrekontu Orokorren lege-proiektua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Foru Aldundiek.
b) Eusko Jaurlaritzak.
c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.
d) Erakunde autonomoek.

96. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontu orokorrak aldatzeko araubideari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondorengo aurrekontu-ekitaldietako ekintzak finantzatzeko betebeharretarako konpromiso-kredituei eragiten ez dieten aurrekontuak osatzen dituzten diru-sarrerak eta gastuak dira.
b) Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten diru-sarreren eta gastuen egoera-orrien aldaketak honako mota hauetakoak izan daitezkeela adierazten du: zenbateko osoari eragiten ez dioten aldaketak edo zenbateko globalari eragiten dioten aldaketak.
c) Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten diru-sarreren eta gastuen egoera-orrien aldaketek zenbateko osoari eragiten dioten aldaketak izan beharko dutela adierazten du, eta ondorioz, horretarako ezarritako prozeduraren bidez onartu beharko direla.
d) Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten diru-sarreren eta gastuen egoera-orrien aldaketek zenbateko osoari eragiten ez dioten aldaketak izan beharko dutela adierazten du, eta ondorioz, horien arteko aldea justifikatu beharko dela.

97. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, kredituak transferitzeko araubideari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Autonomia Erkidegoko aurrekontuetako gastuen egoera-orrien aldaketa da, betiere, aldaketa horrek, zenbateko osoa aldatu gabe, zenbateko batzuk aldatzen baditu, lotura-maila desberdineko kredituen artean.

b) Autonomia Erkidegoko aurrekontuetako gastuen egoera-orrien aldaketa da, betiere, aldaketa horrek, zenbateko osoa aldatu gabe, zenbateko batzuk aldatzen baditu, lotura-maila berdineko kredituen artean.
c) Autonomia Erkidegoko aurrekontuetako gastuen egoera-orrien aldaketa da, betiere, aldaketa horrek, izaera desberdineko eragiketen artean kredituak transferitzeko aukera ematen badu eragiketa arruntak finantzatzen direnean.
d) Autonomia Erkidegoko aurrekontuetako gastuen egoera-orrien aldaketa da, betiere, aldaketa horrek, ordainketa-kredituen zenbateko osoa aldatzeko aukera ematen badu.

98. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuak ezartzen duenez, zer da kreditu-lotura? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Berezko zentzua eta izaera homogeneoa duen kreditu-konfigurazioa, honelako sailkapenak dituena: ekonomikoa, organikoa eta desagregazio-maila minimoen araberako programetakoa.
b) Berezko zentzua eta izaera homogeneoa duen kreditu-konfigurazioa, honelako sailkapenak dituena: ekonomikoa, organikoa eta desagregazio-maila maximoen araberako programetakoa.
c) Aurrekontuen Legean ezarritako konfigurazioa.
d) Aurrekontu-gaietan eskumena duen Sailak ezarritako desagregazio-maila.

99. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, hauxe gertatuko da Autonomia Erkidegoak Estatutik datozen eskumen eta/edo zerbitzu berriak bere gain hartuz gero: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aurrekontuen Legea indargabetuko da.
b) Aurrekontu-gaietan eskumena duen Sailak beste aurrekontu-partida batzuetatik kredituak transferitzeko dagokion espedientea prestatuko ditu.
c) Gastuen egoera-orrietatik kendu beharreko kopuruak zehaztuko dira.
d) Betebeharrei erantzuteko behar diren kredituak aurrekontuetan sartuko dira.

100. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, konpetentzien transferentzietan aurrekontu-zuzkidura duten lanpostu hutsak daudenean, hau egin beharko du aurrekontu-gaietan eskumena duen Sailak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Lanpostu berriak sortu.
b) Zuzkidurak aldaketarik gabe mantendu.
c) Aurrekontu-zuzkidurak transferitu, plantilla murriztuta.
d) Kreditu zabalgarri bihurtu.

101. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurreikusi gabeko diru-sarrera bat lortzen denean, honako aurrekontu-aldaketa hau egiten da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kreditu-transferentzia.
b) Berrezarpena.
c) Kredituak gaitzea.
d) Kredituak eranstea.

102. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, hauxe egin behar da ekitaldi amaieran erabili ez diren funts gaituekin: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hurrengo ekitaldirako gordeko dira.
b) Kapitalera transferituko dira automatikoki.
c) Hasierako erabilerara bueltatuko dira.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira eramango dira.

103. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontua gauzatzean, diru-sarrerak gauzatzeari dagokionez, adieraz ezazu zer gertatzen den egindako diru-sarrerekin, dagokien aurrekontua itxi ondoren: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Itzuli egiten dira.
b) Hurrengo ekitaldiari egozten zaizkio, helburu berarekin erabiltzeko.
c) Berariazko helburutik kanpo geratzen dira.
d) Soberakin gisa sartzen dira automatikoki.

104. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, zer gertatzen da ekitaldi amaieran konprometituta ez dauden EAEko Administrazioaren Aurrekontuko ordainketa-kredituak hurrengo aurrekontuan sartzen ez badira? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Automatikoki metatu egiten dira.
b) Mugarik gabe luzatzen dira.
c) Baliogabetuta geratzen dira.
d) Kreditu-zabalgarri bihurtzen dira.

105. Euskadiko aurrekontu-araubidea arautzen duen 1/2011 Legegintzako Dekretuaren arabera, aurrekontuen likidazioari buruzko dokumentazioan, zer dokumentutan jasotzen dira ordainketa-kredituak, konpromiso-kredituak eta diru-sarreren egoera-orriak jasotzen dituzten taulak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Memoria ekonomikoan.
b) Betearazte-txostenean.
c) Ekitaldiko likidazio-kontuan.
d) Aurrekontu bateratuan.

106. Enpresaren ekonomia. Hau da errotazio- edo maniobra-funtsa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktibo zirkulatzailearen eta epe laburreko pasiboaren arteko aldea.
b) Aktibo ez-zirkulatzailearen eta epe luzeko pasiboaren arteko aldea.
c) Mozkin ekonomikoaren eta salmenta-bolumenaren arteko zatidura.

d) Enpresaren aktiboek, hau da, inbertsioek, sortutako mozkina.

107. Enpresaren ekonomia. Honela egiten da palanka-efektu finantzarioaren azterketa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Mozkin garbiak mozkin ekonomikoarekiko duen sentikortasuna aztertuta.
b) Palanka-efektu operatiboa aztertuta.
c) Ustiapeneko mozkinaren eta salmenten aldaketaren arteko erlazioa analizatuz egiten da.
d) Zorpetze-analisiaren bidez egiten da.

108. Enpresaren ekonomia. AMIA matrizeak aztertzen du: (aukera ezazu erantzunik OSATUENA).

a) Erakundearen barne-analisitik eta ingurunearen azterketatik lortutako emaitzak.
b) Erakundearen barne-elementu negatiboak eta barne-elementu positiboak.
c) Lehiakideen arteko lehia.
d) Erakundearen kanpoko elementu positiboak eta kanpoko elementu negatiboak.

109. Enpresaren ekonomia. Inbertsio sinpleetan, eskatutako errentagarritasuna, Barneko Errentagarritasun Tasa (BET) baino txikiagoa bada, orduan Balio Eguneratu Garbia (BEG)... (Aukeratu erantzun zuzena):

a) Positiboa izango da.
b) Negatiboa izango da.
c) Ez dago elkarren arteko loturarik.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

110. Enpresaren ekonomia. Inbertsioak aukeratzea. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Berreskuratze-epearen metodoa (*Pay back*), inbertsioak aukeratzeko erabiltzen den metodo dinamikoetako bat da.
b) Balio Eguneratu Garbiaren (BEG) metodoa eta Barneko Errentagarritasun Tasa (BET) metodo dinamikotzat hartzen dira.
c) Inbertsioak aukeratzeko metodo dinamikoek, besteak beste, denboraren faktorea hartzen dute kontuan, hau da, kapitalek denborarekin balioa galtzen dutela.
d) Inbertsioak aukeratzeko metodo estatikoek ez dute kontuan hartzen ez inflazioaren ez interes-tasen eragina.

111. Enpresaren ekonomia. BEG (Balio Eguneratu Garbia) positiboaren esanahia. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Proiektua bideragarria ez dela adierazten du.
b) Erabilitako kapital guztiak berreskuratzea.
c) Inbertsio-proiektuaren errentagarritasun positiboa.
d) Etorkizuneko sarreren eta irteeren fluxuak alderatu eta hasierako inbertsioa deskontatu ondoren, mozkina geratzen da enpresarentzat.

112. Enpresaren ekonomia. Batez besteko heltze-aroa. (Aukera ezazu erantzunik OSATUENA):

a) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa da hornitzaileei lehengaietan inbertitzeagatik ordaintzen zaienetik, kobrantza bidez berreskuratzen den arte igarotzen den batez besteko denbora.
b) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa da unitate monetario bat inbertitzen edo konprometitzen denetik salmentaren eta kobrantzaren bidez berreskuratzen den arte igarotako denbora.
c) Batez besteko heltze-aro finantzarioa da unitate monetarioa inbertitzen edo konprometitzen denetik salmentaren eta kobrantzaren bidez berreskuratzen den arte igarotako denbora.
d) Batez besteko heltze-aro finantzarioari kentzen bazaio hornitzaileek lortutako finantzaketa, batez besteko heltze-aro operatiboa lortuko da.

113. Enpresaren ekonomia. Hau da lokagunea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresa batek sal dezakeen gehieneko produkzio-maila, kostu finko eta aldakorren enpresa-egitura kontuan hartuta.
b) Jarduera-maila horri lotutako kostu finko guztiak estaltzeko behar den gutxieneko ekoizpen-maila saldua.
c) Jarduera-maila horri lotutako kostu finko eta aldakor guztiak estaltzeko behar den gutxieneko ekoizpen-maila saldua.
d) Biltegiko segurtasun-stockaren maila adierazten duen adierazlea, ekoizpen-hausturak saihesten dituena.

114. Enpresaren ekonomia. Palanka-efektu finantzarioa. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Palanka-efektu finantzarioaren maila neurtzeko adierazle erabiliena da zor osoaren eta ondare garbiaren arteko zatidura.
b) Palanka-efektu operatiboaren berdina da.
c) Enpresa batek denbora-tarte jakin batean lortutako errentagarritasun finantzarioaren maila azaltzen duen adierazlea da.
d) Enpresa baten arrisku ekonomikoko egoera ebaluatzeko aukera ematen duen adierazle bat da.

115. Enpresaren ekonomia. Zuzendaritza estrategikoa. AMIA analisia. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Erakunde bateko barne- eta kanpo-analisien konbinazioari AMIA analisia esaten zaio.
b) AMIA analisian antolakuntzako indarguneak eta ahuleziak inguruneko mehatxu eta aukerekin batera aztertzen dira.
c) AMIA matrizeak erakundearen kontrako elementuak eta indargune optimoak jasotzen ditu.
d) AMIA matrizeak erakundearen barne-analisitik eta ingurunearen azterketatik lortutako emaitzak laburbiltzen ditu.

116. Enpresaren ekonomia. Inbertsio- eta finantzaketa-proiektuen balorazioa. Hautaketa-irizpideak: Balio Eguneratu Garbia (BEG) eta Barneko Errentagarritasun Tasa (BET). (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Inbertsio baten BEGa, bere etorkizuneko balioaren eta hasierako ordainketaren arteko aldea da.
b) Inbertsio baten BETa deskontu-tasa mota bat da, da BEGa beti positiboa edo zerotik gorakoa izatea eragiten duena.
c) BEGa eta BETa inbertsioak hautatzeko bi metodo dira, eta "estatiko" deritze.
d) Inbertsio baten BEGa, bere egungo balioaren eta hasierako ordainketaren arteko aldea da. BETa, berriz, (r) deskontu-tasara egindako inbertsio baten itzulera-tasa da, eta haren egungo balio garbia zero izatea eragiten du.

117. Enpresaren ekonomia. BEG (Balio Eguneratu Garbia) positiboaren esanahia. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Inbertsio-proiektuaren errentagarritasuna nulua da.
b) Proiektua bideraezina dela adierazten du.
c) Erabilitako kapital guztiak berreskuratzea.
d) Etorkizuneko sarreren eta irteeren fluxuak alderatu eta hasierako inbertsioa deskontatu ondoren, enpresaren irabazia nulua da.

118. Enpresaren ekonomia. Arriskua eta enpresen balorazioa. Arrisku motak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Salmentak aldatzen direnean, ezohiko mozkina aldatzen da (mozkin ekonomikoa edo mozkin operatiboa), zeina aktiboek sortzen duten.
b) Mozkin ekonomikoa aldatzean, errentagarritasun ekonomikoa eta mozkin garbia aldatzen dira.
c) Errentagarritasun ekonomikoa edo aktiboen errentagarritasuna, zorren kostuaren berdina den bitartean, enpresari zorpetzea komeni zaio.
d) Aktiboen errentagarritasuna zorpetzearen kostua baino handiagoa balitz, enpresa kaudimengabezia teknikoko egoeran sar liteke.

119. Enpresaren ekonomia. Errotazio- edo maniobra-funtsaren adierazpen alternatibo hauetatik, zein da zuzena?

a) Errotazio-funtsa = Kapital iraunkorrak − Aktibo ez-korrontea (aktibo finkoa).
b) Errotazio-funtsa = Epe laburreko pasiboa − Aktibo ez-korrontea (aktibo finkoa).
c) Errotazio-funtsa = Aktibo ez-korrontea (aktibo finkoa) − Kapital iraunkorrak.
d) Errotazio-funtsa = Aktibo korrontea (aktibo zirkulatzailea) − Kapital iraunkorrak.

120. Enpresaren ekonomia. Egitura finantzarioan, zer partidek osatzen dituzte kapital iraunkorrak?

a) Baliabide propioek eta epe ertain eta luzeko zorrek.
b) Kapital sozialak eta borondatezko erreserbek bakarrik.

c) Funtsezko hornitzaileekiko epe laburreko zorrek bakarrik.
d) Kapital sozialak eta bezeroengandik kobratzeko kontuek.

121. Enpresaren ekonomia. Zein masa dira aktibo zirkulatzailearen (aktibo korrontea) parte? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Epe luzeko zorrak eta kapital soziala.
b) Ibilgetu materiala eta finantzarioa.
c) Lurrak, eraikuntzak eta patenteak.
d) Diruzaintza, bihurgarria eta izakinak.

122. Enpresaren ekonomia. Zer da errotazio-ratioak neurtzen duena? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondare-masa salmentetan zenbat aldiz sartzen den neurtzen du.
b) Aktibo ez-korronteak (aktibo finkoak) aktibo osoan zer partaidetza duen neurtzen du.
c) Zorpetzeak ondare garbian duen pisua neurtzen du.
d) Diru-fluxuen eta mozkin likidoaren arteko proportzioa neurtzen du.

123. Enpresaren ekonomia. Zein da EBITDAren definizio egokia? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Interesen, zergen, narriaduren eta amortizazioen aurreko emaitza.
b) Mozkin garbia, gehi dibidenduak eta erreserbak.
c) Ustiapeneko mozkina ken gastu finantzarioak eta gastu fiskalak.
d) Diru-fluxu operatiboa, kapital zirkulatzaileko aldaketarik gabe.

124. Enpresaren ekonomia. Honela kalkulatzen da hornitzaileei ordaintzeko batez besteko heltze-aroa (HAo): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) HAo = (Bezeroen batez besteko saldoa/urteko salmentak) × 365.
b) HAo = 365 × (Urteko erosketak/Hornitzaileen batez besteko saldoa).
c) HAo = 365 × (Hornitzaileen batez besteko saldoa/urteko erosketak).
d) HAo = (Batez besteko inbentarioa/urteko kontsumoa) × 365.

125. Enpresaren ekonomia. Honela kalkulatzen da batez besteko heltze-aro finantzarioa (HAF):

a) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa (HAE) ken hornitzaileei ordaintzeko batez besteko heltze-aroa (HAo).
b) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa (HAE) gehi bezeroei kobratzeko batez besteko heltze-aroa (HAk).
c) Batez besteko heltze-aro ekonomikoa (HAE) zati amortizazio-zikloa.
d) Fabrikazio-epea gehi kobrantza-epea.

126. Enpresaren ekonomia. Lehia-indar hauetako zein EZ da Porter eredukoa?

a) Ordezko produktuen mehatxua.
b) Sartu berrien mehatxua.
c) Langileen botere negoziatzailea.
d) Hornitzaileen botere negoziatzailea.

127. Enpresaren ekonomia. Zer estrategia generiko mota da merkatuan "berezia den zerbait sortzea"? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Bereizketa.
b) Kostuen ikuspegia.
c) Erabateko lidergoa kostuetan.
d) Integrazio bertikal finantzarioa.

128. Enpresaren ekonomia. Hauxe espero ohi da dibertsifikazio "homogeneoan": (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekoizpen-eskala murriztea, ekonomia negatiboen arabera.
b) Sinergia operatiboak eta ezagutza-sinergiak, lehendik zeuden jarduerekiko antzekotasunengatik.
a) Produkzio-deskonexioagatik sortutako finantza-sinergiak soilik.
b) Zuzendaritza-eskumenak galtzea barne-kanibalizazioagatik.

129. Enpresaren ekonomia. Nazioarteko zein konfiguraziok zentralizatzen du ia dena jatorrizko herrialdean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Tokiko aldebiko ikuspegiaren estrategiak.
b) Estrategia multidomestikoa.
c) Estrategia transnazionalak filial autonomoekin.
d) Estrategia globalak.

130. Enpresaren ekonomia. Erabaki-irizpideak ziurgabetasun egoeran. Hau da Laplaceren irizpidea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sinesgarri izaten jarraitzea eta batez besteko baliorik handiena aukeratzea.
b) Okerreko erabakiaren aurrean, ahalik eta atsekabe txikiena hartzea.
c) Emaitza txarrenetatik, onena aukeratzea.
d) Emaitza onena eta okerrena haztatzea, baikortasun-koefiziente batekin.

131. Enpresaren ekonomia. Erabakiak ziurgabetasun egoeran. Honelakoa da Hurwiczen irizpidea (baikortasun partziala): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Maximoetan maximoena aukeratu beti.
b) Emaitza onena eta txarrena α eta $(1-\alpha)$ -rekin haztatzea, hurrenez hurren.
c) Minimoetan, minimoena aukeratu.



d) Emaitzen batez bestekoa egitea, probabilitate objektiboekin.

132. Enpresaren ekonomia. Erabakiak ziurgabetasun egoeran. Zein da Savage irizpidearen helburua? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) “A priori” asmatzeko probabilitatea maximizatzea.
b) Jokoan bermatutako gutxieneko ordainketa maximizatzea.
c) Batez besteko galeratik espero den balioa minimizatzea.
d) "Atsekaberik" handiena (aukera galdua) minimizatzea.

133. Enpresaren ekonomia. Batuketa nuluko bi pertsonako joko batean, noiz identifikatzen zeladura-puntua? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Irabazlearen maximin-ak bat egiten duenean galtzailearen minimax-arekin.
b) Irabazlearentzat, espero den balioa galtzailearen zoriaren berdina denean.
c) Ordainketen batura erabat positiboa denean.
d) Oreka lortzeko, beti beharko dira estrategia mistoak.

134. Enpresaren ekonomia. Ziurgabetasun egituratuko ingurune baten aurrean jokatzeko, badira zenbait erabaki-irizpide. Hauetatik, zein EZ da horietako bat?

a) Laplaze-ren irizpidea edo irizpide arrazionalista eta berdintasun sinesgarritasunaren irizpidea.
b) Irizpide baikorra.
c) Irizpide ezkorra edo Wald-en irizpidea.
d) Euforia-irizpidea edo Hurw-en irizpidea.

135. Enpresaren ekonomia. Enpresen balorazioan, hau da funtsezko balioaren definizioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktiboen birjarpen-balio eguneratua ken zorrak.
b) Etorkizuneko errenta garbien funtzionamendu-balio eguneratua.
c) Inflazio metatuaren bidez doitutako kontabilitate-balioa.
d) Likidazio-balioa, merkatu-balioari *goodwill* gehituta.

136. Enpresaren ekonomia. Hauxe baloratzen du merkataritza-funtserako (*goodwill*) gain-etekinen metodoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresaren errenten eta errenta "arrunten" arteko aldearen egungo balioa.
b) Merkatuaren arabera birbaloratutako aktibo finkoen batura, erositako datan.
c) Kutxa-fluxu operatiboa, amortizazio fiskalek handituta.
d) Likidazio-balioaren eta pasibo korronte galdagarriaren arteko aldea.

137. Enpresaren ekonomia. Merkataritza-funtsaren balioa zehazteko bi ikuspegi daude eta emaitza desberdinak izan ditzakete. Hauek dira bi ikuspegi horiek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Errendimendu-gutxietsien metodoa eta guztizko balioarekiko baturaren metodoa.
b) BEG (Balio Eguneratu Garbia) metodoa eta BET (Barneko Errentagarritasun Tasa) metodoa.
c) Gain-errendimenduen metodoa eta guztizko balioarekiko aldearen metodoa.
d) Gain-errendimenduen metodoa eta guztizko balioarekiko batuketaren metodoa.

138. Enpresaren ekonomia. Enpresen balorazioan, honela kalkulatzen da iraupen mugagabeko "errendimendu-balioa (EB)": (Aukeratu erantzun zuzena)

a) EB = B/k; B urteko mozkina da, eta k eguneratze-tasa.
b) EB = B × (1 + k), mozkinen etorkizuneko hazkundea adieraziz.
c) EB = B/(1 – k), mozkin konstanteetarako eta k < 1.
d) EB = B × k, errenta berreskuragarrien proportzioa islatzeko.

139. Enpresaren ekonomia. Ziurgabetasun egoeretan hartzen diren erabakietan, zeri dagokio “maximin” irizpidea? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Emaitzarik okerrenetan, handiena aukeratzeari.
b) Emaitzarik onenetan, txikiena aukeratzeari.
c) Probabilitate subjektiboen arabera, emaitzen batezbesteko haztatua kalkulatzeari.
d) Itxaropen-balio altuena hautatzeari.

140. Enpresaren ekonomia. Funtzio hauetako zein EZ da sartzen zuzendaritza estrategikoaren prozesuan? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Egungo misioa, helburuak eta estrategiak identifikatzea.
b) Barne-analisia eta kanpo-analisia egitea.
c) Ezarpenaren ostean, emaitzak ebaluatzea.
d) Kapitalaren batez besteko kostu haztatuaren kalkulua (WACC).

141. Kontabilitate Orokorra. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Urteko kontuetan jasotako kontabilitate-informazioaren helburua beti izango da enpresaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela erakustea.
b) Irudi fidela kontabilitate-planetan errepikatzeaz gain, Merkataritza Kodean ere jasota dago.
c) Urteko kontu guztiak ez dira nahitaezkoak enpresari guztientzat.
d) Ondare garbiaren aldaketen egoera ez da urteko kontuen parte.



142. Kontabilitate Orokorra. Merkatuan, negozioaren ibilbide normalean, honela deritzo aktibo bat besterenduz lor daitekeen zenbatekoari, aktibo hori besterentzeko behar diren kostu zenbatetsiak kenduta: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Balio eguneratua.
b) Erabilera-balioa.
c) Arrazoizko balioa.
d) Balio bihurgarri garbia.

143. Kontabilitate Orokorra. Osasun-enpresan bertan kontsumitzeko helburuarekin egiten diren jarduerei dagokienez (adibidez, medikamentuen ekoizpen propioa): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontabilitate Planean, egokitzapen espezifikoa dute.
b) Egokitzapen arauetatik salbuetsita daude, 1996ko abenduaren 23ko Aginduaren arabera.
c) Egokituta zeuden 1996ko abenduaren 23ko Aginduaren aurreko araudiari esker, zeinaren bidez Kontabilitate Plan Orokorra osasun-asistentziako enpresetara egokitzeko arauak onartu baitziren.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

144. Kontabilitate Orokorra. Zein da balantzearen eskema, porrot-egoera batean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktiboa + Pasiboa = Ondare garbia.
b) Aktiboa + Ondare garbi positiboa = Pasiboa.
c) Aktiboa + Ondare garbi negatiboa = Pasiboa.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

145. Kontabilitate Orokorra. Elementu hauetako zein EZ da aktibo korrontean sartzen?

a) Muga-eguna, besterentzea edo gauzatzeko eguna epe laburrean (hots, gehienez urtebetean) izatea espero den aktiboak.
b) Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.
c) Ustiapenaren ziklo normalarekin lotutako aktiboak.
d) Zerga geroratuen aktiboak.

146. Kontabilitate Orokorra. Urteko kontuetako informazioa... (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontzeptu-esparruan dago sartuta, hau da, Kontabilitate Plan Orokorraren lehen zatian, eta nahitaez aplikatu behar da.
b) Kontzeptu-esparruan dago sartuta, hau da, Kontabilitate Plan Orokorraren lehen zatian, eta hori aplikatzea hautazkoa da.
c) Gomendio soilak dira.
d) Ez dago kontzeptu-esparruan sartuta.



147. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitatearen kontzeptu-esparruari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Merkataritza Kodearen 36.–38. artikuluen erregelamendu bidezko garapena da.
b) «Enpresaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela» emateko helburua ezartzen du.
c) Bigarren ataleko kontabilitate-planean, lehen ataleko printzipioak eta irizpideak betetzeko bitartekoak ezartzen ditu.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

148. Kontabilitate Orokorra. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Kudeaketa-txostena nahitaez egin beharko da balantzea eredu normalean aurkezten denean.
b) Kudeaketa-txostena urteko kontuekin batera aurkez daiteke.
c) Kudeaketa-txostena kontabilitateko printzipio eta arau batzuen mende dago.
d) Kudeaketa-txostenak, besteak beste, sozietatearen aurreikusteko moduko bilakaera jasoko du.

149. Kontabilitate Orokorra. "Aplikazio informatikoak" kontua, Kontabilitate Plan Orokorraren balantzearen zein taldetan sailkatu behar da? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ibilgetu materialenean.
b) Ondasun higiezinetako inbertsioenean.
c) Funts propioenean.
d) Ibilgetu ukiezinenean.

150. Kontabilitate Orokorra. Zein da ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioei aplikatu beharreko hasierako balorazio-irizpidea? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Balio bihurgarri garbia.
b) Arrazoizko balioa; balio-aldaketak galdu-irabazien kontuan erregistratuko dira.
c) Kostu amortizatua.
d) Arrazoizko balioa; gehi zuzenean eslei dakizkiekeen transakzio-kostuak.

151. Kontabilitate Orokorra. Ondorengo sarreretatik, zein kontabilizatzen da galdu-irabazien kontuan? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Finantza-sarrerak. 76 azpitaldea.
b) Enpresak bere aktiborako egindako lanak. 73 azpitaldea.
c) Salgaien, ekoizpen propioen, zerbitzu-prestazioen, eta abarren salmentak, 70 azpitaldea.
d) Aukera guztiak zuzenak dira.

152. Kontabilitate Orokorra. Urteko kontuak eta irudi fidela. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Kontabilitatearen Esparru Kontzeptuala oinarrizko oinarrien, printzipioen eta kontzeptuen multzoa da, eta horiek betetzeak prozesu logiko deduktiboa dakar, hau da, urteko kontuetako elementuak kontabilizatu eta balioestea, enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudia leialki islatu ditzan.
b) Enpresa baten urteko kontuetan hauek sartzen dira: balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera, diru-fluxuen egoera eta memoria. Hala ere, enpresek berek erabaki dezakete ondare garbiaren aldaketen egoera eta diru-fluxuen egoera egin edo ez.
c) Urteko kontuak argi idatzi behar dira, emandako informazioa erabiltzaileentzat ulergarria eta erabilgarria izan dadin erabaki ekonomikoak hartzeko; eta enpresaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela erakutsi behar dute.
d) Urteko kontuek irudi fidela erakusteko, eragiketak errealitate ekonomikoaren arabera kontabilizatuko dira, ez soilik izaera juridikoaren arabera.

153. Kontabilitate Orokorra. Urteko kontuen elementuak eta horien definizioak. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Aktiboak: enpresak ekonomikoki kontrolatzen dituen ondasunak, eskubideak eta bestelako baliabideak; iraganeko gertakarien ondorio dira eta enpresak horien bidez etorkizunean irabaziak edo etekin ekonomikoak lortzea espero du.
b) Sarrerak: enpresaren ondare garbiak izandako gehikuntzak ekitaldian zehar, betiere diruzaintzako sarrerak badira eta jatorria ez bada bazkideen edo jabeen ekarpena.
c) Pasiboak: egungo obligazioak, iraganeko gertaeren ondoriozkoak. Horiek kitatzeko, enpresak espero du etorkizunean irabaziak edo etekin ekonomikoak eragin ditzaketen baliabideetatik askatzea. Ondorio horietarako, hornidurak barne hartzen dira.
d) Ondare garbia: enpresaren aktiboei pasibo guztiak kendu ondoren geratzen den hondar-zatia da.

154. Kontabilitate Orokorra. Ibilgetu elementuen hasierako balioespen-irizpideak. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Kostu historikoa eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua da.
b) Hasierako balioespenak inoiz ez ditu barne hartuko ordainketa geroratuagatik sor litezkeen finantza-gastuak.
c) Enpresak berak egindako ikerketa eta garapen-prozesutik eratorritako ibilgetu ukiezina, bere produkzio-kostuan balioetsiko da.
d) Erositako ibilgetu materiala kostu historikoan balioetsiko da.

155. Kontabilitate Orokorra. Ibilgetuko elementuen ondorengo balioespen-irizpideak. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Merkataritza-funtsa haren balio-bizitzan zehar amortizatuko da, zeina bereizita zehaztuko den merkataritza-funtsa esleitu zaion unitate diru-sortzaile bakoitzerako.
b) Makineria (eskaner-ekipoa, adibidez) amortizazio sistematiko eta arrazionalen mende dago, balio-bizitzaren eta hondar-balioa kontuan hartuta.
c) Inbertsio higiezintzat sailkatutako eraikuntzek ez dute amortizaziorik izango; ibilgetu

materialtzat sailkatutako eraikuntzek, aldiz, bai.

d) Garraio-elementuak, hala nola anbulantziak, amortizatu egiten dira funtzionamenduaren, erabileraren eta gozatzearen ondoriozko ohiko balio-galera dela eta, eragotzi gabe zaharkitze teknikoa edo komertziala ere kontuan hartzea.

156. Kontabilitate Orokorra. Ibilgetu ukiezinari buruzko arau bereziak. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Garapena: ikerketaren edo bestelako ezagutza zientifikoen bidez lortutako emaitzak, plan edo diseinu jakin batean aplikatzea da; material, produktu, metodo, prozesu edo sistema berriak edo nabarmen hobetuak ekoizteko, harik eta ekoizpen komertziala hasten den arte.
b) Ikerketa: ezagutza berriak lortzeko eta daudenak hobeto ulertzeko asmoz, arlo zientifikoetan zein teknikoetan egiten den bilakuntza original eta planifikatua da.
c) Aktiboan agertzen diren garapen-gastuak bere bizitza erabilgarrian amortizatu beharko dira, betiere bost urteko epearen barruan.
d) Ikerketa-gastuak, oro har, egiten diren ekitaldiko gastuak izango dira.

157. Kontabilitate Orokorra. Egoera hauetako zeinetan onartuko da pasibo bat 2022ko abenduaren 31ko balantzean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 2022ko urte amaieran, hainbat komunikabidek azaldu dute hurrengo urtean galera nabarmenak izan daitezkeela Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka dela eta.
b) 2022an, diruzaintzatik 10.000€ atera dira hornitzaileentzako aurrerakin gisa, 2022ko martxoan merkaturatzen hasiko den produktu baten truke.
c) 2022an bi urteko bermea duten salgaiak erosi dira.
d) Enpresa prozesu judizial batean inplikatuta dago. 2022ko urte amaieran badaki litekeena dela epaia kondenatzailea izatea eta zigor ekonomikoa nabarmena izango dela.

158. Kontabilitate Orokorra. Erosketa batetik eratorritako eragiketa hauetatik zeinek dakar kontabilitateko sarrera edo/eta gastu txikiagoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Salgaien erosketak.
b) Erosketen gaineko «rappel»-ek.
c) Aseguruak.
d) Garraioak.

159. Kontabilitate Orokorra. Hornidurei dagokionez, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoaren arabera… (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Ibilgetu materialeko elementuen kasuan, horiek deuseztatzeagatik, horniduren beharra egon liteke.
b) Enpresak ibilgetu materialeko elementu batengatiko hornidura kontabilizatuko du, haren kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarria baino handiagoa denean; zenbateko berreskuragarria izango da arrazoizko balioaren eta salmenta-kostuen arteko handiena, baita erabilera-balioaren arteko handiena ere.
c) Hornidura da, Kontzeptu-esparruko definizioaren arabera, gertaera zehaztugabe bat,

zeinaren zenbatekoa den edo noiz gertatuko den ez dakigun.
d) Hornidura enpresaren pasibo bat da, etorkizuneko betebehar posible bat barne hartzen duelako.

160. Kontabilitate Orokorra. Enpresari orok izan behar du kontabilitatea ordenatuta eta horrek enpresaren jarduerarako egokia izan beharko du, bertako eragiketa guztien jarraipen kronologikoa egin ahal izateko. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Inbentario-liburua: kontabilitatearen azken informazioaren egoerak erregistratzen dituen nahitaezko dokumentua; besteak beste, ondarearen osaera deskribatzen duena.
b) Eguneroko liburua: kontabilitateko egitateak jasotzen dituen nahitaezko agiria, hurrenkera kronologikoan eta idazpenen bidez.
c) Liburu nagusia: Egunkari-liburuko idazpenak sistematizatzen dituen nahitaezko dokumentua; horri esker, elementu eta/edo partida bakoitzaren mugimendua erraz etta laburbilduta ageri da.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

161. Kontabilitate Orokorra. Balantzea kontabilitate-egoera bat da eta hau adierazten du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresaren egitura ekonomikoa eta finantzarioa une jakin batean.
b) Enpresaren egitura ekonomikoa eta finantzarioa, enpresaren ondarean sartutako dataren arabera ordenatuta.
c) Enpresaren ondarearen egoera merkatuko balio errealetan.
d) Urtean sortutako gastuak eta sarrerak.

162. Kontabilitate Orokorra. Galdu-irabazien kontuaren eredu ofizialean, finantza-krediruengatiko kanbio-diferentzia negatiboak honakoen hauen parte dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sorrarazten dituzten eragiketen izaeraren arabera, ustiapeneko emaitza edo emaitza finantzario gisa ager daitezke.
b) Ustiapeneko emaitzenak.
c) Emaitza finantzarioenak.
d) Ez dira galdu-irabazien kontuan sartzen.

163. Kontabilitate Orokorra. Maskarak eta gel hidroalkoholikoa kreditu bidez erosteak, erosteko unean, gastua handitzeaz gain, zer gehiago eragiten du? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktiboa handitzen du.
b) Pasiboa handitzen du.
c) Ondare garbia handitzen du.
d) Ondare garbia murrizten du.

164. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorrak bost atal ditu: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kontuen taula: behar diren taldeak, azpitaldeak eta kontuak jasotzen ditu, behar bezala kodetuta. Nahitaez aplikatu beharreko atala da.
b) Urteko kontuak: urteko kontuen ereduak jasotzen ditu (bai eredu laburtua, bai eredu arrunta), baita horiek egiteko arauak ere. Nahitaez aplikatu beharreko atala da.
c) Kontzeptu-esparrua: oinarri, printzipio eta oinarrizko kontzeptuen multzoa ezartzen duen atala da, eta horiek betetzeak urteko kontuak aintzatetsi eta baloratzea dakar. Nahitaez aplikatu beharreko atala da.
d) Erregistro- eta balorazio-arauak: kontabilitate-printzipioak garatzen dituzte eta transakzio ekonomikoei eta hainbat ondare-elementuri aplikatu beharreko irizpideak eta arauak jasotzen dituzte. Nahitaez aplikatu beharreko atala da.

165. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorrak urteko kontuen elementuak definitzen ditu. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Izakinak: aktibo bat da, enpresak ekonomikoki kontrolatutako ondasun bat delako, iraganeko gertaera baten ondorioz sortua, eta etorkizunean mozkin ekonomikoak ematea espero da.
b) Bezeroak: aktibo bat da, enpresak ekonomikoki kontrolatutako eskubide bat delako, iraganeko gertaera baten ondorioz sortua, eta etorkizunean mozkinak ematea espero da.
c) Bezeroek emandako aurrerakinak: aktibo bat da, enpresak ekonomikoki kontrolatutako ondasun bat delako, iraganeko gertaera baten ondorioz sortua, eta etorkizunean mozkinak ematea espero da.
d) Kobrantza zalantzagarriko bezeroak: aktibo bat da, enpresak ekonomikoki kontrolatutako eskubide bat delako, iraganeko gertaera baten ondorioz sortua, eta etorkizunean mozkinak ematea espero da.

166. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, aktiboko elementuen hasierako balorazio-irizpidea honakoa izango da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresak eskuratzen dituen elementuetarako: kostu historikoa; alegia, erosketa-prezioa edo salmenta-prezioa.
b) Enpresak produzitzen edo ekoizten dituen elementuetarako: produkzio-kostua, betiere finantza-gastuak alde batera utzita.
c) Erakundeak egindako ikerketa eta garapenetik eratorritako patenteetan: produkzio-kostua.
d) Trukeetan: jasotako elementuaren kontabilitate-balio garbia.

167. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, hau da aktiboko elementuen ondorengo balorazio-irizpidea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresak eskuratzen dituen elementuetarako: hasierako balorazioa ken amortizazioak. Narriaduragatiko balio-zuzenketak ez dira kontuan hartzen, beharrezkoa bada, elementua bajan ematen delako.
b) Enpresak produzitzen edo ekoizten dituen elementuetarako: izakinen kasuan, kontuan



hartu behar dira narriaduragatiko balio-zuzenketak.

c) Erakundeak egindako ikerketa eta garapenetik eratorritako patenteetan: hasierako balorazioa ken kostu-amortizatua.
d) Trukeetan: hasierako balorazioa ken amortizazioak. Narriaduragatiko balio-zuzenketak ez dira kontuan hartzen, beharrezkoa bada, elementua bajan ematen delako.

168. Kontabilitate Orokorra. Gazak eta eskularru kirurgikoak kreditu bidez erosteak, hasierako kontabilitate-idazpenean, gastua handitzeaz gain, zer gehiago eragiten du? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktiboa eta pasiboa batera handitzea.
b) Aktiboa eta pasiboa batera murriztea.
c) Aktiboa handitzea.
d) Pasiboa handitzea.

169. Kontabilitate Orokorra. Adieraz ezazu partida hauetako zein EZ den ordaindu beharrekoa:

a) Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun.
b) Ogasun Publikoa, erasandako BEZagatik.
c) Ogasun Publikoa, jasandako BEZagatik.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

170. Kontabilitate Orokorra. Adieraz ezazu partida hauetako zein den "pasibo finantzarioa": (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kapital soziala.
b) Hornitzaileak.
c) Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekiko.
d) Aurreratutako diru-sarrerak.

171. Kontabilitate Orokorra. Zer adierazten dute balantze baten pasiboan dauden elementuek? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Betebeharrak.
b) Ondasunak eta eskubideak.
c) Sarrerak eta gastuak.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

172. Kontabilitate Orokorra. "Enpresaren ondare garbiaren gehikuntzak ekitaldian zehar, bai aktiboen balioaren gehikuntza edo sarrera gisa, bai pasiboen murrizketa gisa, betiere haien jatorria ez badira bazkideen edo jabeen ekarpen monetario edo ez-monetarioak". Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, zeren definizioa da? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pasiboarena.

b) Ondare garbiarena.
c) Gastuena.
d) Diru-sarrerena.

173. Kontabilitate Orokorra. Honela egin behar dira urteko kontuetako ibilgetu ukiezinaren elementuen erregistroa eta balorazioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontabilitate-printzipioak nahitaez aplikatuz.
b) Zuhurtasun-printzipioarekin edo sortzapen-printzipioarekin bat datozen balorazio-irizpideak aplikatuz, baina ez biak aldi berean.
c) Arrazoizko balioa lortzera bideratutako balorazio-irizpideei jarraituz.
d) Ikerketa eta Garapenaren kasuan, enpresaren baliabideak murrizten direnean eta, aldi berean, aktibo bat aintzatesten denean bakarrik erregistratuko dira.

174. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak… (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Balantzean aintzatetsiko dira dirulaguntza itzulgarriak direnean; izan ere, itzultzekoak ez direnak galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira.
b) Itzulgarriak eta diruzkoak badira, itzuli beharreko zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera baloratuko dira.
c) Ez itzultzekoak badira, hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa kontabilizatuko dira, oro har, eta galdu-irabazien kontuan aintzatetsiko dira diru-sarrera gisa, oinarri sistematiko eta arrazional bati jarraituz, dirulaguntzaren ondoriozko gastuekin korrelazioan jarrita.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

175. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate Plan Orokorraren arabera, galdu-irabazien kontua egiteko: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Salmentei, zerbitzu-prestazioei eta ustiapeneko bestelako sarrerei dagokien zenbatekoa galdu-irabazien kontuan islatu behar da, zenbateko gordinean, itzulketak eta deskontuak gastuen atalean islatzen baitira.
b) Enpresak aparteko sarrera edo gastu handirik badu, (adibidez, zehapenek eragindakoak) horren berri eman beharko du xehetasunez memorian, eta “Beste emaitza batzuk” izeneko partida bat sortu beharko da, ustiapeneko emaitzaren parte izango ez dena.
c) Kontuan izan behar da gastuak eta sarrerak izaeraren arabera sailkatuko direla.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

176. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate-informazioa. Enpresa baten urteko kontuak. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresa guztiek, urteko kontuak osatzeko, dokumentu hauek egin behar dituzte: balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta memoria.
b) Ondare garbiaren aldaketen egoera eta diru-fluxuen egoera ez dira nahitaezkoak izango

balantze eta memoria laburtuak egin ditzaketen enpresentzat, ezta enpresa txiki eta ertainenen Kontabilitate Plan Orokorra erabiltzen duten enpresentzat ere.

c) Kontuak egiteko bi eredu daude: eredu laburtuak eta eredu arruntak. Enpresek beren borondatez aukera dezakete aplikatu beharreko eredua, betiere merkataritzako erregistratzailearen aurrean justifikatzen badute.
d) Galdu-irabazien kontu laburtua honako baldintza hauetako gutxienez bi betetzen dituzten enpresek egin ahal izango dute: aktiboaren guztizkoa 8.000.000€-tik gorakoa ez izatea, urteko negozio-zifraren zenbateko garbia 16.000.000€-tik gorakoa ez izatea eta 75 langile baino gehiago ez izatea.

177. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate-informazioa. Zer baldintza bete behar ditu enpresa batek igorritako informazioak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Informazioak garrantzitsua izan behar du, alegia, erabakiak hartzeko baliagarria; eta fidagarria izan behar du, hots, errakuntza esanguratsurik gabekoa eta neutrala.
b) Informazioak ahalik eta zehatzena izan behar du, eta, horretarako, auditatuta egon behar du beti.
c) Integritatea, konparagarritasuna eta argitasuna dira enpresa batek emandako informazioak bete behar dituen hiru baldintza orokorrak.
d) a) eta c) aukerak zuzenak dira.

178. Kontabilitate Orokorra. Kontabilitate-informazioa. Urteko kontuei erantsi dakizkiekeen dokumentuak. Auditoretza-txostena. (Aukeratu erantzun zuzena).

a) Enpresak emandako eta kontuen auditoreek sinatutako dokumentu publikoa da.
b) Enpresa baten fidagarritasuna eta iraunkortasuna betetzearen adierazle da.
c) Merkataritza-dokumentu bat da, zeinetan auditoretzan espezializatutako pertsona edo erakunde batek egindako lana ageri den. Bertan, pertsona horrek bere iritzi profesionala ematen du enpresaren urteko kontuek, arlo esanguratsu guztietan, ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi zehatza islatzen duten ala ez adieraziz.
d) Dokumentu hori enpresa guztiek egiten dute, urteko kontuak zehatzak direla eta akatsik edo irregulartasunik ez dutela bermatzeko.

179. Kontabilitate Orokorra. Egoera-balantzea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hiru balantze-eredu daude: arrunta, laburtua eta ETEen (enpresa txiki eta ertainak) Kontabilitate Plan Orrokorrekoa.
b) Hiru balantze-eredu daude: enpresa handiena, ETEena eta mikroenpresena.
c) Balantzearen aktiboa honela sailkatzen da: saldu daitezkeen partida likidoenetatik (ibilgetua) ez-likidoenetara (eskudirua).
d) Balantzearen pasiboa galdagarritasun-maila handienetik (kapitala) galdagarritasun-maila txikienera (hartzekodunak) ordenatzen da.

180. Kontabilitate Orokorra. Adieraz ezazu honako kontabilitate-printzipio hauetatik zein dagokion adierazten den egitateari:

a) Garrantzi erlatiboa: Kontabilitate-printzipio guztiak nahitaez bete behar dira, baina printzipio horietakoren bat ez aplikatzea onartuko da, baldin eta egitate horrek

eragindako aldaketaren garrantzi erlatiboa, kuantitatiboa zein kualitatiboa, oso txikia bada eta, ondorioz, irudi fidela ez bada aldatzen.

b) Zuhurtasuna: Ziurgabetasun-egoeretan egindako estimazio eta balorazioetan zuhur jokatu beharko da. Zuhurtasun-printzipioak justifika dezake ondare-elementuen balorazioak bat ez etortzea urteko kontuek islatu behar duten irudi fidelarekin.
c) Ez konpentsatzea: Aktiboaren eta pasiboaren partidak edo gastuen eta sarreren partidak ez dira elkarrekin konpentsatuko, salbu eta bi partidak entitate berari badagozkio.
d) Uniformetasuna: Aplikatzeko dauden aukeren artean irizpide bat hautatzen denean, gutxienez ekitaldi ekonomiko osoan mantendu beharko da eta modu uniformean aplikatu transakzio, gertaera eta baldintza antzekoetan. Ekitaldia igaro ondoren, beste irizpide bat hautatu ahal izango da, hurrengo ekitaldian modu uniformean aplikatzeko.

181. Kontabilitate-egoeren analisia. Hau da gastu finko ez-finantzarioen eta marjina gordin unitarioaren zatidura: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Egitura-koefizientea.
b) Egiturazko indizea.
c) Errentagarritasun-atalasea.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

182. Kontabilitate-egoeren analisia. Balantzearen sailkapen funtzionalean, zer ondare-masatan sartzen dira epe laburreko hornidurak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kostu espliziturik gabeko bestelako finantzaketan.
b) Baldintzapeko bihurgarriari kenduta.
c) Bihurgarri ziurrari kenduta.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

183. Kontabilitate-egoeren analisia. Hau da enpresak, bere izakinak saldu gabe, betebeharrak kitatzeko duen gaitasunaren adierazle gisa erabiltzen den ratioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Proba azidoaren ratioa.
b) Zorpetze-ratioa.
c) Ratio arrunta.
d) Diruzaintzako ratioa.

184. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisi hori egiteko: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aintzat hartu behar da kontabilitate-informazioa, baita ingurunea baldintzatzen duten beste inguruabar batzuk eta sektorearen berezitasunak ere.
b) Aintzat hartu behar da soilik erakundeak emandako kontabilitate-informazioa.
c) Beharrezkoa da beti kontuan hartzea burtsako informazioa nahiz enpresak emandako kontabilitate-informazioa.
d) Ez da beharrezkoa galdu-irabazien kontua edukitzea.



185. Kontabilitate-egoeren analisia. 10.000€-ko errotazio-funts negatiboak hau esan nahi du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktibo korrontea pasibo korrontea baino 10.000€ handiagoa dela.
b) Hornitzaileek eta bestelako pasibo korronteek emandako kredituek 10.000€-tan gainditzen dutela izakinen, bezeroen eta diruzaintzaz bestelako aktibo korrontearen zenbateko metatua.
c) Hornitzaileek eta bestelako pasibo korronteek emandako kredituek 10.000€-tan gainditzen dutela izakinen, bezeroen eta bestelako aktibo arrunten zenbateko metatua.
d) Izakinak ustiapeneko bihurgarria baino 10.000€ handiagoak direla.

186. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresa baten zorpetze-ratioa (REnd) honako partida hauen arteko zatiketaren araberakoa da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktibo korrontea / Pasibo korrontea.
b) Aktiboa guztira / Pasiboa guztira.
c) Pasiboa guztira / Aktiboa guztira.
d) Pasiboa guztira / Ondare garbia.

187. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontabilitateko egoera-orriak analisirako prestatzea. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Enpresak ematen duen informazioa analisirako modurik egokienera egokitu behar dugu, lortu nahi diren helburuen arabera.
b) Enpresek dagokien lege-formatuaren arabera ematen dituzte urteko kontuak; hala ere, analisia errazteko, kontabilitateko egoera-orrietako partidak doitu eta sailkatu egiten dira.
c) Enpresek dagokien lege-formatuaren arabera ematen dituzte urteko kontuak; beraz, analisia egiteko, ezin ditugu kontabilitateko egoera-orrietako partidak ez doitu ez sailkatu.
d) Kontabilitate-analisiaren ondorioetarako, baliagarria da bereiztea enpresaren produkzio-prozesuan zuzenean erabilitako aktibo ez-korronteak, inbertsioetatik datozen aktiboetatik.

188. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontabilitateko egoera-orriak analisirako prestatzea. Funtsezko ondare-masak. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Analisiaren ondorioetarako, honakoek osatzen dute aktibo korrontea: baldintzapeko bihurgarriak eta bihurgarri ziurrak.
b) Analisiaren ondorioetarako, honakoek osatzen dute aktibo korrontea: baldintzapeko bihurgarriak, bihurgarri ziurrak, periodifikatzeek eta erabilgarriak.
c) Aktibo korronteko baldintzapeko bihurgarria honakoek osatzen dute: gastu-aurreratuek eta aurrez ordaindutako interesek.
d) Bihurgarri ziurra, likidezia bihurtzeko saldu behar diren edo produkzio-prozesuan sartu behar diren elementuek osatzen dute.

189. Kontabilitate-egoeren analisia. Likideziaren analisia. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Likidezia aztertzearen helburua da enpresak epe laburreko ordainketa-konpromisoei erantzuteko duen gaitasuna ebaluatzea.
b) Enpresaren likideziaren osagai nagusia lokagunea da.
c) Kapital korrontea da aktibo korrontearen eta aktibo ez-korrontearen arteko aldea.
d) Maniobra-funtsa, ekitaldi-amaieran diruzaintzan geratzen den eskudirua da.

190. Kontabilitate-egoeren analisia. Likideziaren analisia. Kapital korrontea. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Aktibo korrontea pasibo korrontea baino handiagoa bada, kapital korronte positiboa izango dugu.
b) Aktibo korrontea pasibo korrontearekin bat badator, kapital korronte nulua izango dugu.
c) Aktibo korrontea pasibo korrontea baino txikiagoa bada, kapital korronte negatiboa izango dugu. Egoera horrek beti dakar enpresaren deskapitalizazioa, eta edozein enpresa motak ezin du funtzionatu kapital korronte negatiboarekin.
d) Enpresa bakoitza bere jarduerarako egokia den kapital korronteaz jabetu behar da.

191. Kontabilitate-egoeren analisia. Kaudimenaren analisia. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kaudimenaren analisia enpresaren ondare-egoera ebaluatzeko da, bai finantzaketari dagokionez, bai inbertsioari dagokionez.
b) Kaudimenaren analisia epe laburrean ordaintzeko konpromisoei erantzuteko gaitasuna ebaluatzeko da.
c) Likidezia handia duen enpresa batek beti izango du epe luzerako kaudimena.
d) Likidezia puntualik ez duen enpresa batek beti izango ditu kaudimen-arazoak.

192. Kontabilitate-egoeren analisia. Kaudimenaren analisia. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kaudimenaren analisia bi ikuspegitatik egin ohi da: estatikotik eta dinamikotik.
b) Praktikan gehien erabiltzen diren kaudimen-ratioen artean daude, besteak beste: finantza-autonomiaren ratioa, zorpetze-ratioak eta berme-ratioa.
c) Finantza-autonomia izateak berekin dakar enpresak egokien deritzon finantzaketa-modua hautatzeko aukera.
d) Likideziak epe luzeko perspektiba gehiago du, enpresaren jarraitasun mugagabeari gehiago zuzenduz, eta kaudimenak, berriz, epe laburrekoa.

193. Kontabilitate-egoeren analisia. Emaitzaren analisia. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Emaitzaren analisia aparteko emaitzetan oinarritzen da, horiek sortzen baitute enpresaren mozkina edo galera.
b) Emaitzaren analisia ohiko emaitzetan zentratzen da, enpresak egindako kudeaketaren adierazgarri baitira.
c) Egungo Kontabilitate Plan Orokorrak sarrera eta gastu errepikakor eta ez-errepikakorrak bereizten ditu emaitzen kontuan.



d) Askotan, enpresek EBITDAL izeneko adierazlea ematen dute, ustiapeneko emaitza garbia adierazten duena.

194. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontabilitateko egoera-orriak analisirako prestatzeko moduaren arabera, hau da kontabilitate-egoeren antolaketa funtzionalaren helburu nagusia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Urteko kontuak 1990eko Kontabilitate Plan Orokorrak eskatutako lege-formatura egokitzea.
b) Enpresen edo/eta ekitaldien arteko konparazioa erraztea, partidak multzo nagusietan modu homogeneoan birsailkatuz, eskuragarri dagoen informazioaren laburpen gisa.
c) Enpresak balantzean, emaitzen kontuan, diru-fluxuen egoeran, ondare garbiaren aldaketen egoeran eta kudeaketa-txostenean (jasangarritasunari buruzko informazioaren egoera barne) erabilitako balioespen-irizpideak aldatzea.
d) Ekitaldiko emaitzan eraginik ez duten partidak ezabatzea.

195. Kontabilitate-egoeren analisia. Aktibo korrontearen birsailkapenari dagokionez, (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Izakinak bihurgarri seguruaren parte dira, saltzeko aktiboak baitira.
b) Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak baldintzapeko bihurgarrian sartzen dira.
c) Diruzaintza eta beste aktibo likido baliokide batzuk bihurgarri ziurrean sartzen dira.
d) Epe laburreko periodifikatzeak, eskudiruaren eta beste aktibo likido baliokide batzuen zatitzat hartzen dira.

196. Kontabilitate-egoeren analisia. Pasibo korrontea birsailkatzean, zergatik da berezia finantzaketa espontaneoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresarentzat beti finantza-kostu esplizitua sortzeagatik.
b) Kreditu-erakundeekiko zorrei soilik lotuta dagoelako.
c) Jarduera arruntetik eratorritako ordainketak, geroratzetik sortzen delako, kostu espliziturik gabe.
d) Beti epe luzerako epemuga izateagatik eta, epe laburrera zein luzera kostu esplizitua sortzeagatik.

197. Kontabilitate-egoeren analisia. Emaitza banatzeko proposamenari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Emaitza banatzeko proposamenak ez dio ondare-analisiari eragiten.
b) Proposatutako dibidendu osagarria oso-osorik mantendu behar da ondare garbian.
c) Proposatutako dibidendu osagarria pasibo korronte gisa birsailkatu behar da analisiaren ondorioetarako.
d) Konturako dibidenduak pasibo korrontetik ondare garbira birsailkatu behar dira.

198. Kontabilitate-egoeren analisia. Galdu-irabazien kontuari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Galdu-irabazien kontua egoera estatiko bat da, enpresak une jakin batean duen ondare-

egoera islatzen duena.
b) Analisiaren ondorioetarako, ez da beharrezkoa emaitzen kontua birsailkatzea, Kontabilitate Plan Orokorrak informazioa behar bezala aurkezten baitu.
c) Galdu-irabazien kontua zirkulazio-ekonomikako egoera bat da, ekitaldian zehar emaitza nola osatu den erakusten duena.
d) Emaitza finantzarioak beti sartu behar dira ustiapen-emaitzean.

199. Kontabilitate-egoeren analisia. Hau da analisi ekonomiko-finantzarioan erabiltzen den kontabilitate-informazioaren ezaugarri nagusia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Barne-izaera du, soilik.
b) Irizpide fiskalekin bakarrik egiten da.
c) Mugatua da, horregatik, analisia informazio gehigarriarekin osatu behar da.
d) Beti jasotzen ditu merkatu-balio eguneratuak.

200. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisiaren ikuspegitik, hau da egoera-balantzearen definizioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontabilitate-egoera dinamiko bat, emaitza nola osatu den azaltzen duena.
b) Kontabilitate-egoera estatiko bat, enpresak une jakin batean duen ondare-egoera islatzen duena.
c) Finantza-analisirako garrantzirik ez duen barne-dokumentu bat.
d) Diru-fluxuak bakarrik jasotzen dituen egoera.

201. Kontabilitate-egoeren analisia. Analisiaren ikuspegitik, honako hau adierazten du aktiboak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresaren finantzaketa-iturriak.
b) Hirugarrenen aurrean dauden betebehar galdagarriak.
c) Egitura ekonomikoa edo baliabideen aplikazioa.
d) Enpresaren ondasun materialak soilik.

202. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresa baten salmenta garbiak 300.000€ dira eta aktibo guztia 150.000€. Zein da aktiboaren errotazioa? (Aukeratu erantzun zuzena)
a) Aktibo guztia / Salmenta garbiak = 0,5.
b) Salmenta garbiak – Aktibo guztia = 150.000€.
c) Salmenta garbiak / Aktibo guztia = 2.
d) Aktibo guztia – Salmenta garbiak = –150.000€.

203. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresak baten aktibo korrontea 50.000€ da eta pasibo korrontea 25.000€. Zein da epe laburreko kaudimen-ratioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pasibo korrontea / Aktibo korrontea = 0,5.
b) Pasibo korrontea – Aktibo korrontea = –25.000€.
c) Aktibo korrontea / Pasibo korrontea = 2.
d) Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = 25.000€.

204. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresa baten aktibo korrontea 80.000€ da eta horietatik: 20.000€ izakinak, 10.000€ saltzeko dauden aktibo ez-korronteak eta 40.000€ pasibo korrontea. Zein da proba azidoaren ratioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) (Aktibo korrontea – Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak) / Pasibo korrontea = 1,75.
b) (Aktibo korrontea – Izakinak) / Pasibo korrontea = 1,5.
c) (Aktibo korrontea – Izakinak – Saltzeko dauden aktibo ez-korronteak) / Pasibo korrontea = 1,25.
d) Aktibo korrontea / Pasibo korrontea = 2.

205. Kontabilitate-egoeren analisia. Kontabilitate-egoera prestatzeak, zer ondorio dakarkio analisiari? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresak aplikatutako kontabilitate-irizpideak aldatzea.
b) Partidak birsailkatzea, analisia egitea helburu.
c) Partida ez-monetarioak ezabatzea.
d) Urteko kontuak barne-egoerengatik ordezkatzea.

206. Kontabilitate-egoeren analisia. Aktibo korrontearen sailkapen funtzionalean, erabilgarria honako elementu hauek osatzen dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Izakinek eta bezeroek.
b) Zordun komertzialek.
c) Diruzaintzak eta bestelako aktibo likido baliokideek.
d) Epe laburreko periodifikatzeek.

207. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren aktibo korrontea 70.000€ da eta pasibo korrontea 90.000€. Zein da horren kapital korrontea (errotazio-funtsa)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pasibo korrontea – Aktibo korrontea = 20.000€.
b) Aktibo korrontea – Pasibo korrontea = –20.000€.
c) Aktibo korrontea + Pasibo korrontea = 160.000€.
d) Aktibo korrontea / Pasibo korrontea = 0,78.

208. Kontabilitate-egoeren analisia. Hauek dira baldintzapen bihurgarriaren ezaugarriak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Likidezia bihurtzen da berehala.
b) Likidezia bihurtzeko, eragiketa bat egin behar da aurretiaz.
c) Ez da aktibo korrontearen parte.
d) Eskudiruz eta bestelako aktibo likido baliokidez soilik dago osatuta.



209. Kontabilitate-egoeren analisia. Galdu-irabazien kontuaren analisiak bere elementu guztiak ehuneko bihurtzen ditu. Zer partida erabili behar dira ehuneko horiek egiteko? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Salmenta garbiak.
b) Emaitza finantzarioa.
c) Ekitaldiko emaitza.
d) Interesen eta zergen aurreko emaitza.

210. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren eskudirua 10.000€ da, izakinak 80.000€, bezeroak 20.000€ eta aurrezki-kontuan 5.000€ ditu. Pasibo korrontea 30.000€ bada, zein da diruzaintza-ratioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskudirua / Pasibo korrontea = 0,33.
b) (Eskudirua + Aurrezki-kontua) / Pasibo korrontea = 0,5.
c) (Izakinak + Bezeroak + Eskudirua + Aurrezki-kontua) / Pasibo korrontea = 3,834.
d) Pasibo korrontea / Eskudirua = 3.

211. Kontabilitate-egoeren analisia. Hau da likidezia-analisiaren helburua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresaren errentagarritasuna ebaluatzea.
b) Epe laburreko ordainketa-ahalmena aztertzea.
c) Enpresaren merkatu-balioa zehaztea.
d) Ekoizpen-efizientzia neurtzea.

212. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren aktibo ez-korrontea 80.000€ da, aktibo korrontea 120.000€, pasibo korrontea 50.000€ eta pasibo ez korrontea 50.000€. Zein da berme-ratioa edo porroterako distantzia? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pasibo guztia / Aktibo guztia = 0,5.
b) Aktibo ez-korrontea / Pasibo ez-korrontea = 1,6.
c) Aktibo guztia / Pasibo guztia = 2.
d) Aktibo guztia – Pasibo guztia = 100.000€.

213. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren pasibo korrontea 60.000€ da, pasibo ez korrontea 30.000€, ondare garbia 60.000€, aktibo ez korrontea 100.000€ eta aktibo korrontea 50.000€. Zein da zorpetze-ratioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondare garbia / Aktibo guztia = 0,4.
b) Aktibo guztia / Ondare garbia = 2,5.
c) Pasibo guztia / Ondare garbia = 1,5.
d) Pasibo guztia + Ondare garbia – Aktibo ez korrontea = 150.000€.

214. Kontabilitate-egoeren analisia. Zer ebaluatzen da kaudimenaren analisiaren bidez? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kaudimenak zehazten du enpresa batek aurrez ezarritako irizpideak betetzen dituen, akatsak edo irregulartasunak detektatzen dituen; eta fidagarritasuna eta etengabeko hobekuntza ziurtatzen ditu.
b) Kaudimenak enpresaren epe luzeko finantza-oreka globala eta jarraitzeko gaitasuna aztertzen ditu.
c) Kaudimenak enpresak epe laburrean ordaintzeko konpromisoei erantzuteko duen gaitasuna ebaluatzen du.
d) Kaudimenak enpresak irabaziak sortzeko duen gaitasuna ebaluatzen du.

215. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren RAII (interesen eta zergen aurreko emaitza) 20.000€ da, aktiboa guztira 200.000€ eta pasiboa guztira 150.000€. Zein da errentagarritasun ekonomikoa (ROA)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aktiboa guztira / RAII = 10.
b) RAII / Aktiboa guztira = 0,10.
c) RAII / (Aktiboa guztira + Pasiboa guztira) = 0,057.
d) (Aktiboa guztira + Pasiboa guztira) / RAII = 7.000.

216. Kontabilitate-egoeren analisia. Zer neurtzen du zorpetze-ratioak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Epe luzeko kanpoko finantzaketak duen pisua baliabide propioekiko.
b) Epe laburreko kanpoko finantzaketak duen pisua baliabide propioekiko.
c) Kanpoko finantzaketa guztiak duen pisua baliabide propioekiko.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

217. Kontabilitate-egoeren analisia. Zer esan nahi du enpresa batek autonomia finantzario handia izateak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Finantzaketa-iturriak hautatzeko aukera txikiagoa duela.
b) Egoera ezin hobean dagoela, akziodunek arrisku finantzario osoaren ardura hartzen dutelako euren gain.
c) Baliabide propioek pisu handiagoa dutela enpresaren finantzaketan.
d) Likidezia-arazoak dituela eta produktu bukatuen biltegiratze epea handiegia dela.

218. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresa hauetako zeinek erakutsiko luke ibilgetuaren egonkortasun- edo estaldura-ratioaren balioa bere balio optimotik hurbil duela? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 0,05eko ratioa duenak.
b) 0,5eko ratioa duenak.
c) 1,1eko ratioa duenak.
d) 2,9ko ratioa duenak.

219. Kontabilitate-egoeren analisia. Zer ezaugarri dute, nagusiki, enpresa baten galdu-irabazien kontuko emaitza arruntek? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dira errepikakorrak.
b) Ez daude ohiko jardueraren mende.
c) Enpresaren kudeaketa normala islatzen dute.
d) Ez dute eraginik ekitaldiko emaitza osoan.

220. Kontabilitate-egoeren analisia. EBITDAri buruz: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) EBITDA ez da ustiapeneko emaitza gordinaren neurria.
b) EBITDA ustiapeneko sarreren eta ustiapeneko gastuen arteko diferentziatik kalkulatzen da, kontuan izan gabe zorraren interesak, mozkinen gaineko zerga eta ibilgetuaren amortizazioak.
c) EBITDA kalkulatzeko, batu ustiapeneko emaitza errepikakorra, ibilgetuaren amortizazioekin eta kreditu-erakundeekiko zorrarekin.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

221. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren RAI (zerga aurreko emaitza) 15.000€ da eta ondare garbia 75.000€. Zein da errentagarritasun finantzarioa (ROE)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondare garbia / RAI = 5.
b) Ondare garbia – RAI = 60.000€.
c) RAI / Ondare garbia = 0,2.
d) RAI – Ondare garbia = –60.000€.

222. Kontabilitate-egoeren analisia. Enpresaren salmenta garbiak 120.000€ dira, aktiboa guztira 200.000€ eta RAII (interesen eta zergen aurreko emaitza) 24.000€. Zein da salmenten marjina-ekonomikoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Salmenta garbiak / Aktiboa guztira = 0,6.
b) Salmenta garbiak / RAII = 5.
c) RAII / Salmenta garbiak = 0,2.
d) RAII / Aktiboa guztira = 0,12.

223. Kontabilitate-egoeren analisia. Zer adierazten du enpresak errotazio-funts positiboa izateak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Pasibo korrontea aktibo korrontea baino handiagoa dela.
b) Aktibo ez-korrontearen zati bat epe laburreko kanpo-baliabideekin dagoela finantzatuta.
c) Aktibo korrontearen zati bat baliabide iraunkorrekin dagoela finantzatuta.
d) Enpresa ordainketa-etenduran dagoela.

224. Kontabilitate-egoeren analisia. Zorpetzeari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zorpetzea handia bada, enpresaren finantza-arriskua txikia da eta enpresaren



kaudimena zalantzan egon liteke.
b) Zorpetzea handia bada, enpresaren finantza-arriskua txikia da, eta enpresaren kaudimena ez litzateke zalantzan jarriko.
c) Zorpetzea handia bada, enpresaren finantza-arriskua handia da eta enpresaren kaudimena zalantzan egon liteke.
d) Zorpetzea handia bada, enpresaren finantza-arriskua handia da, eta enpresaren kaudimena ez litzateke zalantzan jarriko.

225. Kontabilitate-egoeren analisia. Kanpo-baliabideekin lotutako fluxua honela kalkulatzen da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sarrera finantzarioak ustiapeneko emaitzarekin batuta.
b) Sarrera finantzarioak ustiapeneko emaitzari kenduta.
c) Gastu finantzarioak, interesen eta zergen aurreko emaitzarekin batuta
d) Gastu finantzarioak, interesen eta zergen aurreko emaitzari kenduta.

226. Kostuen kontabilitatea. Hau da zuzeneko kostuen eta zeharkako kostuen arteko bereizketan oinarritutako kalkulu-metodoa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Osagarrien metodoa.
b) Baliokidetasunen metodoa.
c) Lotura-metodoa.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

227. Kostuen kontabilitatea. Hauetako zein EZ da kostuen kontabilitatearen helburua?

a) Enpresari buruzko informazio garrantzitsua ematea.
b) Kostuen kontabilitate-ikuspegiaren eta ikuspegi-ekonomikoaren arteko dikotomia haustea.
c) Enpresaren eraginkortasuna aztertzea.
d) Urteko kontuak egitea.

228. Metodo baten arabera, produktuari esleitzen zaizkio epealdiaren zuzeneko kostuak gehi, tradizionalki zeharkakotzat hartu izan diren arren, ekoizpen-bolumenarekiko aldagarriak diren beste kostu batzuk (esaterako, administrazio-kostuak edo merkataritza- eta salmenta-kostuak). Zein da metodo hori? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) *Direct cost simple*.
b) Zatiketa-metodoa.
c) *Indirect cost simple*.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

229. Kostuen kontabilitatea. Nola esaten zaio enpresaren merkataritza-jarduera garatzeko behar den galerari? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gastua.

b) Erosketa.
c) Inbertsioa.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

230. Kostuen kontabilitatea. “Kalkulu-eremuaren” araberako sailkapenean, hauek dira gizarte-kostuak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ongizate sozialari eragiten ez dioten baina aldakorrak izan daitezkeen barne-kostuak.
b) Erdi-mailako kargudunek kontrola ditzaketen kostuak.
c) Ondasun publikoen erabilera pribatutik eratorritako kostuak, komunitatera eraman daitezkeenak.
d) Epe laburreko kostu marjinalak.

231. Kostuen kontabilitatea. "Kostuaren" eta "gastuaren" arteko aldea. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) "Kostua" enpresaren merkataritza-jarduera garatzeko behar den galeratzat har daiteke, eta salmentekin berreskuratzen da haren zenbatekoa.
b) "Gastua" sortuko da produkzio-faktoreen kontsumoa eraldaketa ekonomiko produktiborako egiten denean, hau da, balioa eransteko.
c) Kontabilitateko "gastu" terminoa batez ere barne-eremurako erabiltzen da (kontabilitate orokorra edo finantzarioa), eta "kostu" terminoa, berriz, kanpo-eremuari dagokio (kontabilitate analitikoa edo kostu-kontabilitatea).
d) Kontabilitateko "gastu" terminoa batez ere kanpo-eremurako erabiltzen da (kontabilitate orokorra edo finantzarioa), eta "kostu" terminoa, berriz, barne-eremuari dagokio (kontabilitate analitikoa edo kostu-kontabilitatea).

232. Kostuen kontabilitatea. Kostuen kontabilitatean, hainbat metodo daude kostuak kalkulatzeko. Horien guztien helburu nagusia da produktuei dagozkien kostuak egoztea, zeharkakoak nahiz komunak. Adieraz ezazu zein diren metodo horiek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zuzeneko metaketaren Metodoa eta zeharkako metaketaren Metodoa.
b) Zuzeneko kostuen Metodoa eta zeharkako kostuen Metodoa.
c) Zatiketa-Metodoak, baliokidetasun-Metodoa eta osagarrien Metodoak.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

233. Kostuen kontabilitatea. Hau da kostu-sistema estandarra: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontabilitate Orokorreko tresna bat, enpresak epe laburrean egindako gastu eta inbertsioei buruzko informazioa kontuan hartzeko aukera ematen duena.
b) Enpresa baten kontabilitate-egoeren analisia egiteko tresna erabilgarria.
c) Kontabilitate Analitikoko teknika bat, kostuak, produktuak eta emaitzak baloratzeko aukera ematen duena. Beraz, enpresa baten barruan kontrola eta plangintza egiteko beharrezkoa den informazioa ematen digu.
d) Dagoeneko erabiltzen ez den teknika bat, Kostuen Kontabilitatean indarrean dagoen kontzeptu-esparruaren araberakoa dena.

234. Kostuen kontabilitatea. Izakinak hainbat irizpideren arabera sailka daitezke: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Biltegiratze-edukiera kontuan hartuta.
b) Kontabilitate Plan Orokorraren eta nazioarteko kontabilitate-araudiaren sailkapena kontuan hartuta.
c) Produktua amaierako kostura eramateko materialen kontabilitate-egozpena kontuan hartuta.
d) Izakinen hornitzaileak kontuan hartuta.

235. Kostuen kontabilitatea. Finantza-kostuen zenbateko kuantitatiboa zehazteko, hiru aldagai hauek aztertu behar dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Unitate bakoitza produzitzeko erabilitako denbora, produzitutako unitateen kostua eta inflazio mota.
b) Denbora, finantza-baliabideen jatorria eta finantza-baliabideen kostua.
c) Interes-tasa, inflazio-tasa eta finantza-baliabideen jatorria.
d) Enpresak erabilitako funtsen kalkulu-oinarria edo kopurua, enpresak funtsak zenbat denboran erabili dituen eta interes-tasa.

236. Kostuen kontabilitatea. *Direct cost* irizpidea, kostuak honela sailkatzen dituelako bereizten da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kostu finkoak eta aldakorrak.
b) Zuzeneko kostuak.
c) Zuzeneko eta zeharkako kostuak.
d) Kostu organikoak eta ez-organikoak.

237. Kostuen kontabilitatea. Ikaskuntza-funtzioak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Produktu-unitate bakoitzeko behar diren zuzeneko eskulan orduen eta produzitutako unitate kopuruaren arteko erlazioa adierazten du.
b) Produktu-unitate bakoitzeko behar diren zeharkako eskulan orduen eta produzitutako unitate kopuruaren arteko erlazioa adierazten du.
c) Oinarrizko bi faktore erlazionatzen ditu: unitate bakoitza produzitzeko erabilitako denbora eta produzitutako unitateen kostua.
d) Produktu-unitate bakoitzeko laneskuaren kontsumoaren ehuneko-igoera konstantean oinarritzen da, guztizko ekoizpen-bolumena handitu ahala.

238. Kostuen kontabilitatea. Kontzeptua eta helburuak. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Kostuen kontabilitateak eragiketen azterketa zehatza erabiltzen du informazio-eremu gisa, lortutako output, produktu eta zerbitzuetako inputen edo baliabideen eraldaketa tekniko-ekonomikoa kontrolatzeko.
b) Kostuen kontabilitatearen edo zuzendaritza-kontabilitatearen helburua da enpresaren balioen barne-zirkulazioa biltzea, neurtzea, erregistratzea, baloratzea eta kontrolatzea,



erabakiak hartzeko informazioa emateko.

c) Kostuen kontabilitatea zuzendaritza-kontabilitatearen zati bat da, eta enpresaren balioen barne-zirkulazioa biltzea, neurtzea, erregistratzea, baloratzea eta kontrolatzea du helburu, erabakiak hartzeko informazioa emateko.
d) Kudeaketa-kontrola, auditoreek barne-kontrol ere deritzotena, zuzendaritza-kontabilitatearen parte da.

239. Kostuen kontabilitatea. Kontzeptua eta helburuak. Hauek dira kostuen kontabilitateari esleitzen ohi zaizkion helburuak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Finantza-kontabilitateak erabiltzen duen informazioa sortzea, erabakiak hartzeko informazio erabilgarria egitea, eta enpresaren jarduerak eta prozesuak planifikatzeko eta kontrolatzeko informazioa ezartzea.
b) Kontuen auditoreentzako informazio-oinarriak prestatzea.
c) Analisi kualitatibo eta kuantitatiboko sistema bat garatzea, langileei laguntzeko kostu handiegia eta produktibitate txikia duten jarduera ez operatiboak identifikatuta.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

240. Kostuen kontabilitatea. Kostuen analisia eta sailkapena. "Kostu" terminoaren adierak. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) “Kostu”, kontzeptu ekonomiko gisa, bi eratara erabili izan da: produkzio-faktoreen baliabideen kontsumoa edo sakrifizioa adierazteko, eta kostu alternatiboa edo aukera-kostuaz mintzatzeko.
b) Pedersen-en arabera (1958), kostua ondasunen eta zerbitzuen kontsumoa da, dirutan balioetsia, eta horixe da enpresaren helburua.
c) Schneiderren ustez (1962), kostua produkzio-prozesuan erabilitako edo kontsumitutako ondasunen baliokide monetarioa da.
d) Kontabilitate finantzarioan, “kostu” kontzeptua erabiltzen da, enpresariak, bere jarduerak gauzatzeko, bere gain hartutako zorraren balioa kalkulatzeko.

241. Kostuen kontabilitatea. ABC sisteman (jardueren kostuak), zer da “*cost driver*” bat? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kostu aldakor guztien batura.
b) Sorgailu/transmisore kausala. produktu/zerbitzuei jarduera-kostuak esleitzen dizkiena.
c) Egiturazko kostu finkoa.
d) Amortizazio-azkar mota bat, aktibo eroaleen bizitza erabilgarria eta higadura-maila kontuan hartzen dituena.

242. Kostuen kontabilitatea. Kostuen analisia eta sailkapena. Kontabilitatean, kostuak hainbat irizpideren arabera sailkatzen dira. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Kostua osatzen duten elementuen arabera.
b) Kalkulatzeko unearen arabera.
c) Manipulatzen dituen langilearen arabera.
d) Bitarteko edo berehalako esleipenaren arabera.

243. Kostuen kontabilitatea. Kostuen analisia eta sailkapena. Erabakiak hartzeari dagokionez, kostuak honela sailkatzen dira… (Aukeratu erantzun zuzena):

a) Kostu marjinala, gehikuntza-kostua eta kostu diferentziala.
b) Kostu pribatuak eta kostu sozialak.
c) Kostu espezifikoak edo banakakoak, kostu komunak eta baterako kostuak.
d) Kontrolatu ahal diren eta kontrolatu ezin diren kostuak.

244. Kostuen kontabilitatea. Kostu estandarrak kalkulatzeko eta desbideratzeak aztertzeko sistemak. Produkzioaren aurrekontua egitean honako hauek hartu behar dira kontuan… (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Produktu bukatuak eta erdi-bukatuak biltegiratzeko ahalmena.
b) Materialak biltegiratzearen kostu finantzarioa.
c) Materialak biltegiratzeko ahalmena eta bere finantzaketa-kostua.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

245. Kostuen kontabilitatea. Lan-faktorearen kostua. Kontabilitatean, honetan datza eskulanaren kudeaketa eta azterketa, funtsean: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Lan-denborak zehaztu eta kontrolatzean.
b) Giza faktorearen kontsumoak baloratzean.
c) Eskulanaren kostuak lanbide-kategoriaren arabera baloratzean.
d) Kostuak azken produktuei esleitzean.

246. Kostuen kontabilitatea. Kostuak gehitzeko eredua: *full cost* eta *direct cost*. Zein abantaila ditu *direct cost* metodoak enpresaren kudeaketan? (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Kostu finkoa produkzio-kostuaren osagai gisa ez erabiltzeak, enpresa-barruan egokiak ez diren erabakiak hartzea saihesten du.
b) Salmentaren eta administrazioaren kostua barne hartzen du, kostu erreala zehaztuz, eta irabazia edo galera salmenta-prezioaren eta kostu osoaren arteko diferentziatik lortzen da.
c) Marjinak banan-banan zehazteak, puntu hila kalkulatzea ahalbidetzen du eta salmenta-politika bideratzen du.
d) Errazagoa da produktuen araberako errendimendua aurkitzea eta ezagutzea, inbentarioak ez baitira gainbaloratzen kostu finkoekin, kostu aldakorrekin baizik.

247. Kostuen kontabilitatea. Kostu finantzarioen zenbatekoa zehazteko, hiru aldagai hauek aztertu behar dira: (Aukeratu erantzun zuzen)

a) Interes-tasa, inflazio-tasa eta finantza-baliabideen jatorria.
b) Enpresak erabilitako funtsen kostua, edo funtsen kalkulu-oinarriarena; enpresak funtsak erabiltzen dituen denbora; eta funts horien interes-tasa, igarotako denboraren arabera.
c) Enpresak funtsak erabiltzen dituen denbora, finantza-baliabideen jatorria eta finantza-

baliabideen kostua.
d) Unitate bakoitza fabrikatzeko erabilitako denbora, produzitutako unitateen kostua eta inflazio mota.

248. Kostuen kontabilitatea. Xurgapen bidezko kostuen ereduan (*full cost*), hauek daude produktu bukatuen inbentarioetan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zuzeneko materialak eta zuzeneko eskulana soilik.
b) Zuzeneko materialak, zuzeneko eskulana eta produkzio-kostu orokorrak.
c) Zuzeneko materialak eta aldi horretako merkataritza-kostuak.
d) Zuzeneko eskulana eta administrazio-kostuak.

249. Kostuen kontabilitatea. "Kostuen maila metagarrien" eskeman, hauek osatzen dute lehen mailako kostua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Egitura- eta finantza-kostu finkoek.
b) Industria-kostu orokorrek eta finantza-kostuek.
c) Zuzeneko materialek eta merkataritza-kostuek.
d) Zuzeneko materialek, zuzeneko eskulanak eta zuzeneko beste kostu batzuek.

250. Kostuen kontabilitatea. Emaitza kalkulatzeko sailkapena. Hauek daude denbora tarte bateko kostuen artean, besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Merkataritza- eta administrazio-kostuak, denbora tartean kargatzen direnak, produkzio-maila edozein dela ere.
b) Fabrikazio-kostu orokor aldakorrak, beti inbentarioetan aktibatzen direnak.
c) Finantza-kostuak, emaitza analitikotik kanpo geratzen direnak.
d) Amortizazio teknikoa, kostuetan sartzen ez dena.

251. Kostuen kontabilitatea. Kontabilitate-informazio logiko-ekonomikoaren eredua. Eskuliburuko eskema logiko-ekonomikoak, zer berdintzaren adierazgarri da kostu ekonomikoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kostu industriala + aldi horretako kostuak.
b) Ekoizpeneko kostu osoa + kapital propioaren kostu inplizituak.
c) Lehen mailako kostua + ekoizpeneko kostu orokorrak.
d) Marjina gordina – aldi horretako kostuak.

252. Kostuen kontabilitatea. Eredu marjinalistan, hau da kostu marjinalaren definizioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kostu osoa zati produzitutako kopurua.
b) Unitate bakoitzeko kostu finkoa, ekoizpen-maila jakin batean.
c) Unitate bat gehiago produzitzearen kostu gehigarria (kostu aldakor guztiaren ondoriozkoa, kantitatearekiko).
d) Kostu aldakorren batez bestekoa.

253. Kostuen kontabilitatea . "C", jarduera-maila jakin baterako guztizko kostua da; "a", kostu finkoak dira; "b", kostu aldakor unitarioa; eta "x", jarduera-maila. Jarduera-mailaren aldaketaren araberako sailkapenean, kostu erdi-aldakor bat honela adierazten da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) C = a + b · x (zati finkoa + zati aldakorra).
b) C = a (konstantea).
c) C = b · x (proportzionala).
d) C = a + b · x + c·x² soilik.

254. Lan-faktorearen kostua aztertzean, enpresak presentzia-denbora (T) eta lan-denbora (t) bereizten ditu. Zein da bi kontzeptuen arteko ezberdintasuna? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dago bereizketarik.
b) T lanpostuan emandako denbora da; t esleitutako zereginetan emandako benetako denbora.
c) T benetako denbora da; t enpresan emandako denbora da.
d) T-k aldagaiak jaiegunak eta oporrak kontuan hartzen ditu; T aldagaiak, ez.

255. Kostuen kontabilitatea. Denboren kontrola. Honela kalkulatzen da absentismo-indizea (OIT, Nazioarteko Lan Erakundea): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aparteko orduak / presentzia-orduak.
b) Ez-egote denbora / presentzia-denbora teorikoa (edo efektiboa) × 100.
c) Presentzia-denbora / ez-egote denbora × 100.
d) Lan-denbora / presentzia-denbora × 100.

256. Kostuen kontabilitatea. Ikaskuntza-funtzioa. $Y = A \cdot X^n$ funtzioa duen ikaskuntza-kurban, hau adierazten du"A" parametroak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Unitate guztien kopurua.
b) Produzitutako lehen unitaterako eskulan-orduak.
c) Ikaskuntza-indizea.
d) Aurreikusitako inflazio-tasa.

257. Kostuen kontabilitatea. Ordainsari-sistema tradizionalak. Ordainsarietan, hau da "soma sinplera" sistemaren helburua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Finko bat ordaintzea, ekoizpena edozein dela ere.
b) Produzitutako unitateen arabera proportzionalki ordaintzea, normalaren aldean denbora aurrezteko hobariak emanez.
c) Finkatutako etekina lortzen denean bakarrik ordaintzea.
d) Puntu-ordutan ordaintzea (Bedaux).

258. Kostuen kontabilitatea. Finantza-kostuetan, hau da zor-kapitalaren kostua (Ki), oro har: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) i × (1 − T), non "i" kontratu-tasa den eta "T" zerga-tasa.
b) Dibidenduen tasa.
c) Zerga-egokitzapenik gabeko tasa-aktiboen batez bestekoa.
d) Proiektuaren BETa (Barne Errentagarritasun tasa).

259. Kostuen kontabilitatea. Akzio-kapitalen kostua. Kapital propioaren kostua (Ke) honela uler daiteke: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Epe luzeko inflazioa.
b) Arriskurik gabeko tasa, primarik gabe, baldin eta zenbatekoa zero edo txikiagoa ez bada.
c) Akzioaren egungo prezioa eta espero diren dibidenduen korrontea berdintzen dituen tasa.
d) Bankuko kontratu-tasa, KPIaren (Kontsumorako Prezioen Indizea) arabera eguneratua.

260. Kostuen kontabilitatea. Hau da atxikitako mozkinen kostua (Kr), gutxi gorabehera: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zero, ordainketarik ez dakarrelako.
b) Akzio-kapitalen (Ke) berdina, PFEZaren eta transakzio-kostuen arabera doituta.
c) Bonuen kontratu-tasa, aztertu den urteari dagokion (KPIren Kontsumorako Prezioen Indizea) arabera eguneratua.
d) WACCren berdina (kapitalaren batez besteko haztatua).

261. Kostuen kontabilitatea. "Ki", kanpo-kapitalaren (zorra) kostua da; "Ke", kapital propioaren (akzioak) kostua; "D", zorraren balioa; eta "S", funts propioen balioa. Honela kalkulatzen da kapitalaren batez besteko kostu haztatua (Ko): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ko = (Ki · D + Ke · S)/(D + S).
b) Ko = (D · S)/(Ki + Ke).
c) Ko = Ki – Ke.
d) Ko = Ke bakarrik.

262. Kostuen kontabilitatea. "c", finantza-kostuaren oinarrizko tasa da eta "n", urteko errotazioak. Finantza-kostuak urteko “n” errotazio dituzten faktore zirkulatzaileei egozteko, hau izan behar da gutxi gorabeherako egozpen-tasa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) c
b) c/n
c) n · c
d) c^2

263. Kostuen kontabilitatea. "c", finantza-baliabideen kostu-tasa da; "m", batez besteko heltze-aroa; "n", aktibo zirkulatzailearen urtebeteko errotazio-kopurua. m (>1 urte) batez besteko heltze-aroa duten faktore finkoen kasuan, hau da finantza-kostuaren egozpen-tasa, gutxi gorabehera: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) c/m
b) m · c
c) n · c
d) c – m

264. Kostuen kontabilitatea. Palanka-efektua duen galdu-irabazi analitikoaren kontuan, zeri dagokio BAIIa (*Interesen eta Zergen Aurreko Mozkina*)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Mozkin garbia + zergak.
b) Salmentak − kostu aldakorrak.
c) Interesen eta zergen ondorengo mozkina.
d) Salmentak − kostu aldakorrak − kostu finkoak (ustiapenekoak).

265. Kostuen kontabilitatea. Hau neurtzen du palanka-efektu operatibo mailak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Interesen eta Zergen Aurreko Emaitzaren (RAII) sentsibilitatea salmenta-mailaren aldaketen aurrean.
b) Mozkin garbiaren sentsibilitatea interes-tasaren aldaketen aurrean.
c) Akzioaren prezioaren sentsibilitatea dibidendu-aldaketen aurrean.
d) Interesen eta Zergen Aurreko Emaitzaren sentsibilitatea kanbio-tasaren aldaketen aurrean.

266. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, hau osatzen dute EAEk ekonomiaren arloan dauzkan eskubide eta betebehar ekonomiko guztiek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskadiko Foru Ogasuna.
b) Euskadiko Ogasun Nagusia.
c) Euskadiko Diruzaintza Nagusia.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra.

267. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, honako hau EZ dago Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaien artean:

a) Aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura.
b) Zorpetzeko eta bermeak emateko araubideak.
c) Ondarearen, kontrataziorako eta Diruzaintza Nagusiaren araubideak.
d) Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoaren kontabilitatearen barne-kontrol eta barne-auditoretza sistemak.



268. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, honako zeintzuk dira Eusko Legebiltzarraren eskumenekoak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskadiko Aurrekontu Orokorrak onartzea, jarraipena egitea eta kontrolatzea.
b) Ondarearen araubidea.
c) Zorpetze-araubidea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

269. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, hauek dira Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aurrekontu orokorren lege-proiektuak onartzea.
b) Autonomia Erkidegoaren berezko tributuak ezartzea edo aldatzea.
c) Kontratazio-araubidea.
d) Zorpetze-araubidea.

270. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, noren eskumenekoa da Euskadiko zorpetze-araubidea? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eusko Jaurlaritzarena.
b) Eusko Legebiltzarrarena.
c) Ogasun Sailarena.
d) Euskadiko Ogasun Nagusiarena.

271. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, organoen eskumenei dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Eusko Jaurlaritzari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta finantza-politikaren oinarrizko gidalerroak zehaztea.
b) Eusko Jaurlaritzari dagokio aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura.
c) Eusko Legebiltzarrari dagokio Euskadiko Aurrekontu Orokorrak onartzea, jarraipena egitea eta kontrolatzea.
d) Eusko Legebiltzarrari dagozkio ondarearen, kontrataziorako eta zorpetzearen araubideak.

272. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, hauek izango dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko diru-sarrerak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek herentzia, legatu edo dohaintza bidez eskuratutakoak.
b) Foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenak, lurralde historikoek erkidegoaren aurrekontu-gastuetarako egin behar duten ekarpenaren adierazgarri.
c) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen



jabetzako eskubide erreal edo pertsonalak, baldin eta dirutan zenbat balio duten zehatz badaiteke eta ez badaude erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzako ondasunak erabili edo edukitzearen ondoriozko etekinak.

273. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, hauek izango dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren zuzenbide pribatuko diru-sarrerak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Isunak eta gainerako zehapen ekonomikoak.
b) Herentzia, legatu edo dohaintza bidez eskuratutakoak.
c) Beste erakunde publiko batzuen transferentziak eta dirulaguntzak.
d) Zuzenbide publikoko diru-sarrerei dagozkien interesak.

274. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, adieraz ezazu zer prozedura erabiltzen den izaera publikoko eskubideak gauzatzeko (ez hartu kontuan legeak adierazitako salbuespenak):

a) Prozedura zibil arrunta.
b) Diru-bilketako administrazio-prozedura.
c) Prozedura ekonomiko-administratiboa.
d) Betearazpen judizial automatikoko prozedura.

275. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, erakunde publiko ez direnek EAEri zor dizkioten kopuruei dagokienez, noiz hasten dira interesak sortzen? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Betebeharraren epemuga amaitzen denetik aurrera, baldin eta Administrazioak formalki jakinarazten badu.
b) Ordainketa-errekerimendu bat ematen denetik aurrera.
c) Betebeharraren epemuga amaitzen denetik aurrera, ohartarazpena beharrezkoa izan gabe.
d) Betearazpen-aldia hasten denetik.

276. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, EAEk errekarguak ezarri ahal izango ditu honako hauen gainean: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergan.
b) Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan.
c) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan.
d) Txikizkako salmenten gaineko ezarpen orokorra.

277. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, zein eskubide EZIN dira betearazi edo bahitu? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubide pribatuak, baldin eta titularra EAEko Administrazioa bada.
b) Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubide pribatu guztiak, bereizketarik egin gabe.
c) Egindako egintza eta kontratuen ondorioz sortutako eskubide pribatuak, Ogasun Nagusiaren kalterako ez bada.
d) Zerga-eskubideak bakarrik.

278. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, bermeak babesteari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lehentasunezko eskubidea du, Estatuko Administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin batera gertatzen denean izan ezik.
b) Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideak enbargatu ahal izango dira.
c) Euskadiko Ogasun Nagusiaren kalterako egindako egintza eta kontratuak ezin izango dira desegin.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

279. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaketa Arauei buruzko Legearen arabera, Legean aipatzen diren erantzukizunen artean, honako hauek daude: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoan diharduten funtzionarioek, Euskadiko Ogasun Nagusiaren araudien aurkako egite edo ez-egiteren batengatik Ogasun Nagusiari kalteak edo galerak eragiten badizkiote, kalte-ordainak ordaindu beharko dituzte, dolu, erru edo zabarkeria larria gertatzen den kasuetan.
b) Euskadiko Ogasun Nagusiari kalte-ordaina emateko betebeharra ekarriko duten ekintzak hauek izango dira: gastuak baimentzea eta konprometitzea, baita krediturik gabeko edo kreditu nahikorik gabeko ordainketak agintzea edo aurrekontu-diziplinaren arloan indarrean dauden xedapenak hautsi dituzten ordainketak agintzea ere.
c) Arauek eskatzen dituzten kontuak ez ematearen ondoriozko erantzukizuna, baita kontuak berandu ematearena edo akats larriekin ematearena ere, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak izapidetutako administrazio-espedientean ezarriko da. Espediente hori Jaurlaritzak (ustezko erantzulea agintaritza denean) eta ogasun eta finantzen arloan eskumena duen sailburuak (gainerako kasuetan) hasi eta ebatziko dute.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

280. Hau da Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen helburu nagusia, besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) EAEko sektore publikoaren aurrekontuen kudeaketa antolatzea eta arautzea.
b) Zerga- eta finantza-sistema antolatzea.
c) Foru Aldundien eginkizunak arautzea.



d) Euskal sektore publikoa osatzen duten elementuak ezartzea.

281. Hauek daude Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen aplikazio-eremuan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Administrazio Orokorra bakarrik.
b) EAEn presentzia duten Estatuko eta Europako sektore publikoak.
c) Euskal sektore publiko osoa.
d) Lotutako erakunde pribatuak bakarrik.

282. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, zer erakundek osatzen dute euskal sektore publikoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Administrazio publiko guztietako sektore publikoek.
b) Lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak.
c) Izaera juridiko independentea duten eta atxikipen-araubiderik ez duten erakunde publikoek.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

283. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, euskal sektore publikoa osatzen duten subjektu guztiek printzipio orokor hau beteko dute beren jardunean: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresa-lehiakortasunaren printzipioa.
b) Interes pribatuaren printzipioa.
c) Elkartasunaren, eraginkortasunaren eta aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak.
d) Neutraltasun fiskalaren printzipioa.

284. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, Euskal Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Dimentsionatzeko Erakundearteko Batzordeari dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Sektore publikoen arteko eraginkortasun falta, gainjartze eta bikoiztasun posibleen tratamendurako proposamenak aztertzen eta formulatzen ditu.
b) Administrazioen arteko lankidetza, kooperazio eta koordinazioari buruzko proposamenak aztertzen eta formulatzen ditu.
c) Lehendakaria izango da buru, baldin eta Eusko Jaurlaritzan Administrazio publikoaren arloko eskumena duen sailburuari esku uzten ez badu.
d) Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak izendatutako adituek osatuko dute.

285. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Administrazio Orokorrak eta Administrazio Instituzionalak.
b) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek.
c) Administrazio Orokorrak eta Erakunde Autonomoek.



d) Administrazio Instituzionalak eta Erakunde Autonomoek.

286. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, hauek osatzen dute Autonomia Erkidegoko Administrazio publiko instituzionala: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Partzuergoek eta sozietate publikoek.
b) Erakunde autonomoek eta zuzenbide pribatuko ente publikoek.
c) Fundazio publikoek eta sozietate anonimoek.
d) Administrazio-arteko fundazioek eta organismoek.

287. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, erakunde hauek osatzen dute EAEko sektore publikoa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) EAEko sektore publikoko zuzenbide publikoko sozietate pribatuek.
b) EAEko sektore publikoko fundazioek.
c) EAEko sektore publikoko partzuergoek.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

288. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, hauetatik zein da EAEko antolaketa-printzipio bat? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erabateko zentralizazioa.
b) Hierarkia eta deskontzentrazio funtzionala.
c) Pribatizazio funtzionala.
d) Nahitaezko azpikontratazioa.

289. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, nork izendatzen ditu sailburuak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Legebiltzarrak.
b) Gobernu Kontseiluak.
c) Lehendakariak.
d) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

290. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, sailetako zuzendaritzek, EAEko Administrazio Orokorreko sailetako antolaketa-unitate direnez gero, honelako izaera izango dute: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Goi-organoena.
b) Oinarrizko organo autonomikoena.
c) Zuzendaritza-organoena.
d) Organo aholku-emaileena.

291. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak helburu honekin egingo du Erkidegoaren lurraldetik kanpo egiten duen administrazioa besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskaditik kanpo egiten diren jardueren tributuak kudeatzeko.
b) Euskal kultura eta nazioartekotzea sustatzeko.
c) Tokiko proiektuak gainbegiratzeko.
d) Euskaditik kanpo egiten diren azpiegitura publikoak kudeatzeko.

292. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legeak ezartzen duenez, honelakoa da ordenamendu juridikoak administrazio-organoei ematen dien eskumena: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Uko egin ahal zaie.
b) Beste baten esku utz daiteke edozein kasutan.
c) Ezin zaio uko egin.
d) Legebiltzarrak horren eskumen esklusiboa du.

293. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, kudeaketa-gomendio intrasubjektiboari buruz: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Agindutako jardueraren funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen da.
b) Dagokion administrazio-organoak horretarako baliabide egokirik ez duenean gerta daiteke.
c) Agindutako jardueraren kudeaketa ekonomikoa lagatzen da.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

294. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, hau dira Erakunde Autonomoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Izaera publikoko EAEko erakunde instituzionalak, zeinen helburua euren eskumenekoak diren jarduerak egitea baita -modu deszentralizatuan-. Administrazio-zuzenbidearen mende daude.
b) Izaera publikoko EAEko erakunde instituzionalak, zeinen helburua euren eskumenekoak diren jarduerak egitea baita -modu deszentralizatuan-. Batez ere, zuzenbide pribatuaren mende daude.
c) Merkataritza-sozietateak, zeinen kapitaleko partaidetza gehiena EAEko Administrazioaren edo haren erakunde instituzionalen esku baitago. Zuzenbide publikoaren mende daude.
d) Merkataritza-sozietateak, zeinen kapitaleko partaidetza gehiena EAEko Administrazioaren edo haren erakunde instituzionalen esku baitago. Zuzenbide pribatuaren mende daude.

295. Euskal Sektore Publikoa arautzen duen Legearen arabera, EAEko Administrazio Orokorraz bestelako erakundeak eratzeko, beharrezkoa izango da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren finantza-txostena.
b) Hasierako jarduera-plana.



c) Urteko arau-berrikuspena.
d) EAEko Administrazio Orokorraz bestelako erakunderik ezin da eratu.

296. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein kontrol mota EZ den barneko kontrol ekonomikoaren parte:

a) Kontabilitate-kontrola.
b) Kontrol kontu-hartzailea.
c) Erreklamazio ekonomiko-administratiboen bidez egindako kontrola.
d) Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola.

297. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zein den kontrolatutako organoekiko autonomia bermatzen duen barneko kontrol ekonomikoaren printzipioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Unibertsaltasun-printzipioa.
b) Independentzia funtzionalaren printzipioa.
c) Bakartasun-printzipioa.
d) Lankidetza organikoaren printzipioa.

298. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, honek beteko ditu Eusko Jaurlaritzaren kontabilitatearen eta barneko kontrol ekonomikoaren eginkizunak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak.
b) Kontuen Auzitegiak.
c) Eusko Jaurlaritzako sailek eta erakunde autonomoek.
d) Aurrekontu Zuzendaritzek.

299. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, barneko kontrol ekonomikoko eginkizunak betez, espedienteak, datuak, txostenak eta abar eskatu ahal izango ditu, eta errekerimendu hori ezin izango da ukatu, ezinbesteko arrazoiren bategatik ez bada edo jarduketak sekretuak badira izan ezik.
b) Eusko Jaurlaritzaren egituraren barneko organo bat da, barneko kontrol ekonomikoaren eta kontabilitatearen arloetan eskumena duena.
c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak lege horretan aurreikusitako kontrol kontu-hartzaileko eginkizunak beteko ditu, erabateko autonomiaz eta independentziaz kudeaketa kontrolatzen dien organo eta erakundeekiko, eta, beraz, ez du inolako administrazio-organoren jarraibiderik jasoko.
d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bulegoari atxikitako langileen bidez, kontu-hartzailetzako kontrola egingo du. Kontrol hori egiteko kontu-hartzaileak izango dira, eta Ekonomia eta Ogasun sailburua izango da kontrol haien buru.

300. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko Sektore Publikoaren urteko kontuak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Dokumentu hauek barne hartzen dituzte: balantzea; galdu-irabazien kontua; memoria; diru-fluxuen egoera; eta ondare garbiaren aldaketen egoera.
b) Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egingo ditu.
c) Gutxienez, gai hauei buruzko informazioa emango dute: Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren ekonomia-, finantza- eta ondare-egoerak; ekitaldiko ekonomia- eta ondare-emaitzak; eta Aurrekontu Orokorren gauzatzea eta likidazioa.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

301. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu ZEIN den EAEko sektore publikoko kontabilitatea zuzentzen duen organoa:

a) Eusko Legebiltzarra.
b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoa.
c) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
d) Gobernantza Publiko Saila.

302. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, hau da kontrol kontu-hartzailearen: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erakunde pribatuen finantza-independentzia bermatzea.
b) Legezkotasun finantzarioa betetzen dela bermatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideak ziurtatzeko.
c) Gastu publikoa bakarrik kontrolatzea.
d) Autonomia Erkidegoko urteko kontuak egitea.

303. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu zeinen kontrol kontu-hartzailearen kontrol-modalitateren helburua den, besteak beste, EAEko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bat datorren erregulartasun-, legezkotasun-, eraginkortasun-, efizientzia- eta ekonomia-printzipioekin bat:

a) Ez dagokio kontrol kontu-hartzaileari, kontabilitate-kontrolari baizik.
b) Kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa-kontrolarena.
c) Ekonomia- eta arau-kontrolarena.
d) Kontrol ekonomiko-administratiboarena.

304. EAEko Kontrol Ekonomikoari eta Kontabilitateari buruzko araudia onartzen duen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu kontu-hartzailetzako kontrolaren zein modalitatek ikuskatzen dituen eduki ekonomikodun lege-aurreproiektuak:

a) Kontrol ekonomiko-fiskalak.
b) Kontrol ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa-kontrolak.

c) Kontrol ekonomiko-normatiboak.
d) Kontrol ekonomiko-administratiboak.

305. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, EAEko ogasunaren eskubideak eta betebeharrak berrezartzeko errekurtso eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzean datzan kontrol ekonomiko-administratiboak honako gai hauen inguruan jardungo du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren betebeharrak onartzeko edo likidatzeko, baita haren kargura diren ordainketekin lotutako gaien inguruan ere.
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenekoak diren pentsio eta eskubide pasibo guztiak onartzeko eta ordaintzeko.
c) Berezko tributuak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

306. EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontabilitatea arautzen dituen Legegintzako Dekretuaren arabera, adieraz ezazu NOR dagoen legitimatuta erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzeko:

a) Eragindako herritarrak.
b) Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
c) Ogasun sailburua eta sail horretako sailburuordeak, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendaria.
d) Erakunde autonomoetako zuzendariak.

307. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren xedea araudi bat garatzea da. Adieraz ezazu zein:

a) Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrolari dagokiona.
b) EAEko barneko ekonomiaren kontrolari eta kontabilitateari dagokiona.
c) EAEko merkataritza-sozietateen kontabilitateari dagokiona.
d) Kontabilitate-erregistro bakarraren funtzionamendu-arauak ezartzeari dagokiona.

308. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, EAEko Administrazio publikoaren eremuko kontabilitateari eta kontabilitate-kontrolari dagokienez, adieraz ezazu kontabilitateko edozein idazpenek bete behar duen BALDINTZA:

a) Euskarri elektronikoan bakarrik egin behar da.
b) Eskumena duten sinadurekin baimendutako kontabilitate-agiri batek justifikatuta egon behar du.
c) Zuzenean Ogasun sailburuak onartu behar du.
d) Ez du egiaztagiririk behar sistema automatizatu batetik badator.

309. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontabilitate-erregistroak honako denboran gorde behar dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 6 urte.
b) 10 urte.
c) 15 urte.
d) Mugarik gabe.

310. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontabilitateari dagokionez, erantzukizun hauek ditu Kontrol Ekonomikoko Bulegoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Administrazio Orokorraren aurrekontuak egitea.
b) Kontabilitate-ziurtagiriak modu esklusiboan ematea.
c) Administrazio-kontratu guztiak baimentzea.
d) Funts arrunt aurreratuak kudeatzea.

311. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuak, kontabilitateari eta kontabilitate-kontrolari dagokienez, honakoa ezartzen du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren erantzukizuna da, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoa gorabehera, bidaltzen zaion dokumentazioan jasotako datuak erregistratzea; ondoren, informazioa helaraziko die eragiketa bakoitzari dagozkion zerga- eta kontabilitate-kontrolen arduradunei, ikuskapena gainditzeko.
b) Erakunde eta enpresa publiko edo pribatuek eta partikularrek Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskatu ahal izango diote kontabilitatean erregistratutako datuen ziurtagiria, non hartzekodun, zordun eta kobrantzen edo ordainketen titular gisa agertzen baitira.
c) Kontabilitatean erregistratutako dokumentuak eta haien ziurtagiriak, indarrean dauden arauek ezartzen dutenaren arabera gordeko dira, gutxienez urtebetez.
d) Kontabilitateko idazpen guztiak baimendutako kontabilitate-agirian oinarrituta egin beharko dira, kasu bakoitzean eskumena duten organoen sinadurekin, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ezin izango ditu inola ere aldatu.

312. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola edozein erakunde edo enpresa publiko edo pribaturi egin ahal izango zaio, baita partikularrei ere, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren edo Batasuneko funtsen kontura edozein laguntza jasotzen badute. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Bai.
b) Ez, salbuespenekin.
c) Inoiz ere ez.
d) Laguntzen araudian ezarritakoaren arabera.

313. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrola ondorengo berrikuspenaren bidez egingo da -kontrolatutako subjektuaren jardueraren ondorengo berrikuspena- eta auditoretza-tekniken bidez. Teknika horiek, helburuen arabera, honelakoak izan daitezke: kudeaketakoak, finantzakoak, aurrekontua eta legezkotasuna betetzekoak, prozedurak berrikustekoak eta barne-kontrolekoak. Testuinguru horretan, aukera ezazu erantzun zuzena:

a) Kudeaketa-auditoretza hau izango da: erakunde baten jardueren berrikuspen sistematikoa, baliabide publikoen kudeaketan lortutako eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia ebaluatzeko. "Eraginkortasuna" aurreikusitako helburuen lorpen-maila da; "efizientzia", baliabide eta faktore produktiboak ahalik eta etekin handiena lortzeko erabiltzea; eta "ekonomia", baliabide finantzarioak, materialak eta giza baliabideak lortzea, kalitate eta kantitate egokienarekin eta kosturik txikienean. Horretarako, kontrolatutako erakundeen informazio ekonomiko-finantzario eta kontabilitate informazio guztia bildu behar du berrikuspenak.
b) Finantza-auditoretza hau izango da: erakunde baten kontabilitatea eta informazio ekonomiko-finantzarioa berrikustea, arlo esanguratsu guztietan finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoeraren irudi fidela erakusten duten egiaztatzeko; baita xedapen eta printzipio aplikagarrietara egokitzen diren egiaztatzeko ere. Horretarako, kontrolatutako erakundeen informazio ekonomiko-finantzario eta kontabilitate informazio guztia bildu behar du berrikuspenak.
c) Aurrekontua eta legezkotasuna betetzeari buruzko auditoretza hau izango da: kudeaketa ekonomiko-finantzarioko eta aurrekontua gauzatzeko egintzak eta prozedurak, aplikatu beharreko arauetara egokitu diren zehaztea, baita aurrez definitutako helburuetara ere egokitu diren.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

314. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, honetan datza prozeduren berrikuspenaren eta barne-kontrolaren auditoretza: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aplikatutako kudeaketa ekonomiko-finantzarioko prozedurak ebaluatzea da, hobekuntzak eta aldaketak gomendatu eta proposatzeko, aurki daitezkeen ahulezia edo disfuntzionalitateetan oinarrituta.
b) Barne-auditoretza barne-kontroleko sistema bat da, erakunde publiko batek bere aktiboa babesteko ezarritako neurri, politika eta prozedura guztiak biltzen dituena.
c) Aldez aurretik fiskalizatu beharreko espedienteak aztertzean datza.
d) Unitate ekonomiko bateko informazio-sistema baten azterketa kritiko, sistematiko eta zehatza da, erakunde publikoarekin lan-loturarik ez duen kontadore publiko batek egina.

315. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, ekonomia-, finantza- eta kudeaketa-kontrolari buruzko behin betiko txostena egin aurretik, hau egin behar du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian zirriborro bat argitaratu.
b) Alegazioak eskatu behin-behineko txosten baten bidez.



c) Dagokion saileko Sailburuaren sinadura eskatu.
d) Aldez aurreko txosten juridikoa igorri.

316. EAEko Administrazio publikoaren esparruan barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen Dekretuaren arabera, kontrol ekonomiko-fiskalari dagokionez, hauek izango dira aldez aurretik fiskalizatu beharrekoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Funts arrunt aurreratuak.
b) Bi aurrekontu-ekitalditarako edo gehiagorako konpromisoak dakartzaten egitate edo eragiketa ekonomikoak.
c) Hiru aurrekontu-ekitalditarako edo gehiagorako konpromisoak dakartzaten egitate edo eragiketa ekonomikoak.
d) Ondare-eragiketa guztiak, kontratu txikiak barne.

317. EAEko herri-administrazioaren esparruan barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituen dekretuaren arabera, adierazi baieztapen hauetatik zeinek EZ duen Dekretu horretako alderdiren bat jasotzen edo zeinek KONTRA EGITEN dion alderdiotako baten bati.

a) EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako langileek, 14/1994 Legean aurreikusitako kontabilitate- eta kontrol-eginkizunak betetzen dituztenek, konfidentzialtasuna eta sekretua gorde beharko dituzte euren lana dela-eta ezagutzen dituzten gaiei dagokienez.
b) Aurrekontu-aldaketak aldez aurreko fiskalizazioaren mende daude.
c) Guztira edo lote-zatika 600.000€-tik gorako hornidurak daudenean eta homologatu ez direnean, egiaztapen fisikoa nahitaezkoa izango da.
d) Dekretuak aurreko baieztapen guztiak jasotzen ditu.

318. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide izatea... (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez da bateraezina bere lanbidearekin edo beste edozein jarduerarekin, ordaindua izan ala ez.
b) Ez da bateraezina Eusko Legebiltzarkide izatearekin.
c) Ez da izaera publikoa duen kargua.
d) Epaileen independentzia eta mugiezintasun bera izango dutela esan nahi du.

319. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, fiskalizazio-funtzioa betetzean, EAEko aurrekontuen likidazioari buruzko dokumentazioa aztertu eta egiaztatuko du... (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eta txosten bat egingo du, likidazioa jaso eta hurrengo 4 hilabeteen barruan.
b) Eta txosten bat egingo du, non nahitaez adierazi beharko baitu funts publikoen kudeaketaren arloan indarrean dagoen legeria betetzen den.
c) Eta txosten bat egingo du, aurkeztutako dokumentazio finantzarioak aplikatu beharreko kontabilitate-printzipioak betetzen dituen ala ez adierazteko.

d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

320. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Egokitzat jotzen dituen zuhurtzia-neurri guztiak hartu ahal izango ditu ondasun, ondare eta efektu publikoak babesteko.
b) Jaurlaritzak bere kontuak aztertuko ditu.
c) Ezin izango du jurisdikzio-prozedurarik instruitu kontabilitateko ustezko erantzukizunak epaitzeko.
d) Kontrolak bere egoitzan bertan egingo ditu.

321. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiari dagokionez… (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Euskal Autonomia Erkidegoan betetzen ditu bere eginkizunak.
b) Honako bi eginkizun hauek ditu, besteak beste: fiskalizatzea eta epaitzea.
c) Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko organoa da, zuzenean Eusko Legebiltzarraren mende dago, eta, beraz, Eusko Legebiltzarraren eskuordetzaz jarduten du.
d) Euskal sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioak fiskalizatzeko organo gorena da.

322. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Honetarako ahalmena du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE): (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Euskal sektore publikoaren eta araudian ezarritako erakundeen kudeaketari buruzko espediente eta dokumentu, datu, aurrekari eta txosten guztiak eskuratzeko.
b) Eskudiruan dagoena, baloreak, salgaiak eta abarri dagokionez, beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko, eta, horretarako, berariaz gaitutako kanpo-adituen laguntza izan dezake.
c) HKEEk dokumentazioa aurkezteko epeak ezarri ahal izango ditu, baita ahozko agerraldietarako ere, hala badagokio.
d) HKEEri eskatutako informazioa ez bidaltzea «oztopotzat» har daiteke, eta ondorio penalak izan ditzake.

323. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (HKEE) fiskalizazio-funtzioa: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Funtzio horrekin, HKEEren helburua da euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioa ordenamendu juridikora egokitzen dela egiaztatzea, zuzenbidean onartutako edozein modalitatetan sortutako edozein pertsona juridiko barne, baldin eta finantzaketa edo partaidetza gehienbat euskal sektore publikoko erakundeena bada eta zeharkakoa bada.
b) Fiskalizazioaren helburuetan sartzen da euskal sektore publikotik laguntza ekonomikoak edo finantzarioak jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei laguntzak emateko xedea betetzea. Kontrola laguntzen erabilera zuzenari eta xede egokiari buruzkoa izango da.

c) Fiskalizazioak barne hartzen du euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioaren efikazia eta efizientzia aztertzea.
d) Aurrekontu-sarreren erregulartasuna eta eraginkortasuna fiskalizaziorako gaia da, baina aurrekontu-sarreren legezkotasuna ez, Kontuen Epaitegiari baitagokio.

324. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (HKEE) fiskalizazio-funtzioa txostenetan gauzatzen da: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Txosten horiek arruntak zein ezohikoak dira.
b) Txostenak Eusko Legebiltzarrera bidaltzen dira, eta hark, lurralde historikoei buruzkoak badira, kasuan kasuko batzar nagusietara bidaltzen ditu.
c) Txostenak euskal sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetzeko neurrien proposamenak jasotzen ditu.
d) Txostenen ondorioak bi hilabeteko epean argitaratuko dira dagozkien aldizkari ofizialetan.

325. Kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren (HKEE) osaerari buruz: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Zazpi kidek osatzen dute.
b) Kide izateko, beharrezkoa da HKEEren funtzioen arloan gaitasun profesional aitortua izatea, baita gutxienez hamar urteko esperientzia profesionala izatea ere.
c) Kide izateko, beharrezkoa da goi-mailako titulazio akademikoa izatea.
d) Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak hautatuko ditu, eta haren hiru bostenen aldeko botoa beharko da.

326. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren jardueran aritzeko betebeharrak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Funtzionarioa izatea.
b) Kontuen Epaitegiko kide izatea.
c) Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea.
d) Espainiako Ekonomialarien Elkargoen Kontseilu Nagusiko kide izatea.

327. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren jardueran eszeptizismotzat joko da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuetan errakuntza esanguratsuak egon daitezkeela onartzea, iruzurrak edo erroreak barne.
b) Auditoretzaren ondorioak modu kritikoan aztertzea.
c) Auditatu diren urteko kontuetan errakuntzaren bat egon daitekeela adieraz lezakeen edozein egoeraren aurrean, jakin-mina eta alerta berezia izatea.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

328. Kontuen auditoretza. ICACaren inspekzioak. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Egiaztatze-, ikertze- eta ikuskatze-jarduerak Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren (ICAC) lokaletan bertan egingo dira.
b) Kontuen auditoretza jarduera ez da ofizioz egingo.
c) Ikuskapen-, ikerketa- edo egiaztapen-lanak funtzionarioek egingo dituzte, eta ezingo da hirugarrenik kontratatu.
d) Ikuskapenak, kontuen auditoreen eta auditoretza-sozietateen jardueren tamainaren eta konplexutasunaren araberakoak eta egokiak izango dira.

329. Kontuen auditoretza. Urteko kontuen auditoretza honetan datza: Aukera ezazu erantzunik OSATUENA.

a) Urteko kontuak egiaztatzea, auditatutako erakundearen ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adierazten duten ala ez erabakitzeko, aplikatzekoa den finantza-informazioko arau-esparruaren arabera.
b) Aztertu beharreko informazio ekonomikoa hirugarrenei jakinaraztea eta behar bezala baloratzea.
c) Kontuak, balantzean eta emaitzen kontuan emandako informazioarekin bat datozen egiaztatzea, aplikatzekoa den finantza-informazioko arau-esparruaren arabera
d) Iruzurrik edo dolorik ez dagoela egiaztatzea.

330. Kontuen auditoretza. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Kontuen auditorearen kontratu-erantzukizuna eskatzeko ekintzak, sei urtera preskribatuko du, auditoretza-txostenaren datatik zenbatzen hasita.
b) Erantzukizun zibila modu pertsonal eta indibidualizatuan eskatu ahal izango da, auditatutako erakundeak berak edo hirugarrenek eragindako kaltea alde batera utzita.
c) Kontuen auditoreek erantzukizuna izango dute Kode Zibilaren arau orokorren arabera dituzten betebeharrak ez betetzearen ondoriozko kalte-galerengatik.
d) Kontuen auditoretza, kontuen auditore batek egiten duenean auditoretza-sozietate baten izenean, erantzukizun solidarioa izango dute txostena sinatu duen auditoreak eta auditoretza-sozietateak.

331. Kontuen auditoretza. Hau da kontuen auditoretzaren 22/2015 Legearen xedea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Nahitaezko kontuen auditoretzaren jarduera arautzea.
b) Borondatezko kontuen auditoretzaren jarduera arautzea.
c) Kontuen auditoretzaren jarduera arautzea, nahitaezkoa zein borondatezkoa.
d) Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo tokiko sektore publikoko organoek egindako kontuen auditoretzaren jarduera arautzea.

332. Kontuen auditoretza. Kontuen auditorezaren 22/2015 Legeari dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kontuen auditoretzaren jarduera arautzea du xede, nahitaezkoa zein borondatezkoa.
b) Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo tokiko sektore publikoko organoek, euren



eskumenak baliatuz, egiten dituzten kontuen auditoretzei aplikatzen zaie lege hau.
c) Kontuen auditoretza kontuen auditore batek edo auditoretza-sozietate batek egin beharko du nahitaez, dagokion txostena eginez eta lege honetan ezarritako betebeharrak eta formalitateak betez.
d) Bere helburua gainbegiratze publikoaren sistema eta nazioarteko lankidetzarako mekanismoak arautzea da, jarduera horri dagokionez.

333. Kontuen auditoretza. Honen arabera egingo da kontuen auditoretzarako jarduera: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legea eta hura garatzen duen erregelamendua betez.
b) Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legea eta auditoretzaren arloko Europako Direktibak betez.
c) Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legea eta hura garatzen duen erregelamendua betez, baita kontuen auditoreen eta auditoretza-sozietateen auditoretzako arauak, etika- eta independentzia-arauak eta barne-kalitatearen kontrol-arauak ere. Eta interes publikoko erakundeen kontuen auditoretzak badira, 537/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa ere aplikatuko zaie.
d) Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legea, Merkataritza Kodea eta Kontabilitate Plan Orokorra betez.

334. Kontuen auditoretza. Nor da "Auditore nagusi arduraduna”? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beste auditore batzuekin lankidetzan aritzeko baimendutako kontuen auditorea.
b) Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuak (ICAC) kontuen auditoretzak egiteko baimendutako kontuen auditorea.
c) Kontuen auditorea. Talde bateko burua da eta taldeko lanaren ardura hartzen du.
d) Kontuen auditoretza-txostena sinatzen duen kontuen auditorea, bere izenean edo auditoretza-sozietate baten izenean.

335. Kontuen auditoretza. Hauek dira kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren kontuen auditoretza-modalitateak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Merkataritza-enpresa baten urteko kontuen auditoretza eta sektore publikoko erakunde baten urteko kontuen auditoretza.
b) ETE (enpresa txiki eta ertainak) baten urteko kontuen auditoretza eta ETE ez den enpresa baten urteko kontuen auditoretza.
c) Urteko kontu indibidualen auditoretza eta urteko kontu bateratuen auditoretza.
d) Urteko kontuen auditoretza eta, bestelako egoera finantzario batzuen edo kontabilitate-agiri batzuen auditoretza.

336. Kontuen auditoretza. Kontuen auditore izateko betebeharrak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekonomialari eta Kontabilitate Auditoreen Erregistroan (REAC) inskribatuta egotea.
b) Ekonomialari eta Kontabilitate Auditoreen Erregistroak (REAC) antolatutako lanbide-

gaitasuneko azterketa gainditu izana.
c) Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren (ICAC) baimena izatea.
d) Unibertsitateko titulu ofiziala izatea.

337. Kontuen auditoretza. Independentziaren printzipio orokorra: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Ekonomialari eta Kontabilitate Auditoreen Erregistroa (REAC), independentziaren betebeharra behar bezala betetzen dela zaintzeko ardura duen erakundea da, baita lan bakoitzean kontuen auditore edo auditoretza-sozietate baten independentzia falta posiblea baloratzeko ardura duena ere.
b) Kontu-auditoreek eta auditoretza-sozietateek auditatutako erakundeekiko independenteak izan beharko dute beren eginkizuna betetzean, eta ez dute lan hori egingo urteko kontuak, finantza-egoerak edo beste kontabilitate-agiri batzuk berrikusteko eta egiaztatzeko independentzia arriskuan baldin badago.
c) Auditatutako erakundearekin lan-, merkataritza- edo bestelako harremana duten kontu-auditoreak, interes-gatazka sor dezaketenak edo, oro har, interes-gatazka baten eragile gisa har daitezkeenak, ezin izango dira auditoretza-taldeko kide izan.
d) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek, baita auditoretzaren emaitzan zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketen pertsona guztiek ere, ez dute inola ere parte hartu beharko auditatutako erakundearen kudeaketan edo erabakietan.

338. Kontuen auditoretza. Finantza-bermea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuen auditore eta auditoretza-sozietate orok eman behar duen bermea da, kontuen auditoreen erregistro ofizialean inskribatuta egoteko.
b) Auditatzen diren urteko kontuen administratzaileek eman behar duten bermea da, errakuntzak izateagatik eragin ditzaketen kalte-galerei erantzuteko.
c) Eskudiruzko gordailu bidez, zor publikoaren titulu bidez, finantza-erakunde baten abal bidez edo erantzukizun zibileko edo kauzioko aseguru bidez eman ahal izango da, Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuak ezartzen duen zenbatekoan eta moduan.
d) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek finantza-bermea emateko beharra dute beren jarduera gauzatzean eragin ditzaketen kalte-galerei erantzuteko.

339. Kontuen auditoretza. Dokumentazioa gordetzeko eta zaintzeko betebeharrak hau esan nahi du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek bost urteko epean gorde eta zainduko dute, auditoretza-txostenaren datatik hasita, haiek egindako kontuen auditoretza bakoitzari buruzko dokumentazioa.
b) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek sei urteko epean gorde eta zainduko dute, auditoretza-txostenaren datatik hasita, haiek egindako kontuen auditoretza bakoitzari buruzko dokumentazioa.
c) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek sei urteko epean gorde eta zainduko dute, kontratua amaitzen denetik hasita, haiek egindako kontuen auditoretza bakoitzari buruzko dokumentazioa.
d) Kontuen auditoreek eta auditoretza-sozietateek hiru urteko epean gorde eta zainduko dute, auditoretza-txostenaren datatik hasita, haiek egindako kontuen auditoretza

bakoitzari buruzko dokumentazioa.

340. Kontuen auditoretza. Auditoretza-arauak. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kontuen auditoreek kontuen auditoretzako lana egitean bete behar dituzten printzipioak eta eskakizunak dira.
b) Auditoretza-arauak dira iritzi tekniko arduratsu eta independentea emateko beharrezkoak diren jardueren oinarri izan behar duten printzipio eta betebeharrak.
c) Auditoretzako arau teknikoen xedea izango da Europar Batasunak egokitutako nazioarteko auditoretza-arauetan jasotako arloak aldi berean arautzea.
d) Auditoretza-arauak hauek izango dira: Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legean, hura garatzeko erregelamenduan, Europar Batasunak egokitutako nazioarteko auditoretza-arauetan eta auditoretzako arau teknikoetan jasotakoak.

341. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren gainbegiratze publikoari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuak, 22/2015 Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, ematen dituen ebazpenen aurka, gorako-errekurtsoa jarri ahal izango da Justizia Ministerioan.
b) Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutua (ICAC) da gainbegiratze publikoko sistemaren agintaritza-arduraduna.
c) Gainbegiratze-funtzioa betetzean, beharrezkotzat jotzen diren egiaztapen-, ikuskapen-, ikerketa- eta diziplina-jarduerak egin ahal izango dira, betiere auditoreek zaindutako eta gordetako erregistroak eta informazioa eskuratzen ez bada.
d) Kontuen auditoretzako lan jakin batzuei edo kontuen auditoretzaren jardueraren arlo jakin batzuei buruzko ikerketen helburua izango da kontuen auditoreen eta auditoretza-sozietateen barne-kalitatea kontrolatzeko sistemak ebaluatzea.

342. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren jardueraren ezaugarri nagusia, daukan garrantzi publikoa da. Zer esan nahi du horrek? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuen auditoretzak zerbitzua ematen dio berrikusten duen erakundeari, eta erakunde horri ez ezik, erakundearekin harremanak dituzten edo izan ditzaketen hirugarrenei ere eragiten die.
b) Auditatutako erakundeak eta hirugarrenek, auditatutako informazio ekonomiko-finantzarioaren kalitatea jakin dezakete, horri buruzkoa baita emandako auditoretza-iritzia.
c) Auditoretza-txostena edozein erabiltzailek eskura dezakeen dokumentu publikoa da.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

343. Kontuen auditoretza. Aplikazio-eremua eta helburua. Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legean xedatutakoa EZ zaie honako hauei aplikatuko: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo tokiko sektore publikoko organoek, beren eskumenak baliatuz, egiten dituzten auditoretzei.
b) Eskaintza publikoan obligazioak jaulkitzen dituzten erakundeen auditoretzei.



c) Ohiko jarduera finantza-bitartekaritza duten erakundeen auditoretzei.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

344. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren jardueraren arautegia. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontuen auditoretzaren jarduera arautegi hau betez egingo da: 22/2015 Legea eta hura garatzen duen erregelamendua; eta kontuen auditoreen eta auditoretza-sozietateen auditoretzako arauak, etika- eta independentzia-arauak eta barne-kalitatearen kontrol-arauak. Interes publikoko erakundeen (EIP) kontuen auditoretzak badira, 537/2014 (EB) Erregelamenduan interes publikoko erakundeen legezko auditoretzen betebehar espezifikoentzat ezarritakoa ere aplikatuko zaie.
b) Kontuen auditoretzaren jarduera Ekonomialari Auditoreen Erregistroak (REA) argitaratutako Kalitatea Kudeatzeko Arauen arabera egingo da.
c) Kontuen auditoretzaren jarduera Zinpeko Kontu Azterlarien Institutuak (ICJCE) argitaratutako Nazioarteko Auditoretza-arauen arabera egingo da.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

345. Kontuen auditoretza. Definizioak. Kontuen auditoretzaren 22/2015 Legearen arabera, hauek izango dira interes publikoko erakundeak (IPE): (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Bigarren mailako balore-merkatu ofizialetan negoziatzeko onartutako baloreak jaulkitzen dituzten erakundeak.
b) Erregelamendu bidez zehazten diren erakundeak, jardueraren izaera, tamaina edo langile kopurua kontuan izanda, garrantzi publiko esanguratsua dutela zehaztu delako.
c) Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo tokiko sektore publikoko organoak.
d) Kreditu-erakundeak.

346. Kontuen auditoretza. Kontuen auditoretzaren jardueran aritzeko betebeharrei dagokienez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kontuen auditoretzaren jarduera egin ahal izango dute Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden eta dagokion finantza-bermea duten pertsona fisiko edo juridikoek.
b) Kontuen auditoretzaren jarduera egiteko, edozein motatako delituengatik zigor-aurrekaririk ez izatea eskatzen da.
c) Kontuen auditoretzaren jarduera egiteko, beharrezkoa da Espainiako nazionalitatea edo Europar Batasuneko estatu kideren batekoa izatea, hargatik eragotzi gabe kokatzeko-eskubideari buruzko arauek adierazitakoa.
d) Kontuen auditoretzaren jarduera egiteko, Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren baimena lortu behar da.

347. Kontuen auditoretza. Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legearen arabera, nork egin beharko du nahitaez kontuen auditoretza? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekonomialari kolegiatu batek edo erakunde profesional batek.
b) Kontuen auditore batek edo auditoretza-sozietate batek, legearen betebehar eta

formalitateei lotutako txostenarekin.
c) Sektore publikoko kontu-hartzaile batek edo Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren ikuskari batek.
d) Kontabilitate-eskumenak dituen edozein elkargo profesionaletan inskribatutako auditore batek.

348. Kontuen auditoretza. Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legean jasotako definizio hauetatik, zein dagokio "enkarguaren taldeari"? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Interes publikoko erakundeen (EIP) auditoretzak ikuskatzen dituen Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuko (ICAC) langileak.
b) Auditatutako erakundeko langileak, auditoreari informazioa ematen diotenak.
c) Auditorearen edo auditoretza-sozietatearen langileak, lan jakin batean parte hartzen dutenak. Enplegatuak eta auditorearen esanetara edo kontrolpean daudenak ere.
d) Auditorearen nazioarteko sareko langileak, marketinean dihardutenak.

349. Kontuen auditoretza. Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legean, zer erakunde dira Interes publikodun erakundeak (EIP), negoziatzeko onartutako baloreak jaulkitzen dituzten sozietateez gain? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gainbegiratze-publikopean dauden kreditu-erakundeak eta aseguru-etxeak.
b) Estatuko sektore publikoko edozein organo.
c) 250 langiletik gorako enpresak.
d) 40 milioitik gorako negozio-zifra duten nekazaritza-kooperatibak.

350. Kontuen auditoretza. Urteko kontuen auditoretzan, irudi fidelari buruzko iritzia emateaz gain, hau egin beharko du auditoreak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beti egiaztatu behar du iruzurrik ez dagoela.
b) Kudeaketa-txostena egiaztatu behar du, kontuekin eta aplikatzekoa den araudiarekin bat datorren adierazteko, hala dagokionean.
c) Hiruhileko tarteko egoerak berrikusi behar ditu.
d) Erakundearen kaudimen-ziurtagiria eman behar du.

351. Kontuen auditoretza. "Bestelako egoera finantzario edo kontabilitate-agiri batzuen auditoretza" modalitateak helburu hau du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Barne-kontrolaren eraginkortasuna ebaluatzea eta gomendio-gutuna egitea, enpresako zuzendaritzari bidaltzeko.
b) Erakundearen betetze fiskala ebaluatzea.
c) Irudiaren fideltasuna edo horren prestakuntza egiaztatzea eta irizpena ematea, hori egiteko berariaz ezarritako arau-esparruaren arabera.
d) Diru-fluxuen egoera bakarrik berrikustea.

352. Kontuen auditoretza. Gaitasun profesionalaren azterketari dagokionez, Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legeak honakoa ezartzen du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekonomialari Auditoreen Erregistroak/Auditoreen Erregistro Nagusiak (REA/REGA) soilik antolatzen eta onartzen du, hiru hilean behin, Zinpeko Kontu Azterlarien Institutuaren (ICJCE) laguntzarekin.
b) Unibertsitate-titulurik ez dutenei bakarrik eskatzen zaie.
c) Espainiako Bankuak urtero deitzen du.
d) Kontabilitateari, auditoretzari, etikari, independentziari eta beste arlo juridiko eta ekonomiko garrantzitsu batzuei buruzkoa izan behar du, eta Estatuak antolatzen eta onartzen du.

353. Kontuen auditoretza. Independentziaren arloan, independentzia zalantzan jartzen denean dagokion ekintzari uko egiteaz gain, Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legeak honako hau ere exijitzen du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Txosteneko salbuespenak bakarrik dokumentatzea.
b) Mehatxuak (autoberrikuspena, norberaren interesa, abokatutza, senidetasuna edo larderia) identifikatzeko, ebaluatzeko eta saihesteko prozedurak ezartzea, dokumentazioa lan-paperetan gordeta.
c) Erakundearen Auditoretza Batzordeari mehatxuak igortzea.
d) Independentziaren urteko kanpo-ziurtagiri bat lortzea eta Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutura (ICAC) bidaltzea, Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean (ROAC) erregistratzeko.

354. Kontuen auditoretza. Interes publikoko erakunde (EIP) EZ den sozietate batekin nahitaezko auditoretzak kontratatzeko araubideari dagokionez, hau dio Kontuen Auditoretzaren 22/2015 Legeak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hasierako aldia 3 urtetik beherakoa izan daiteke, Batzordea ados badago, baina inoiz ez da 10 urtetik gorakoa izango.
b) Isilbidezko luzapena urtebetekoa baino ezin da izan, Kontabilitate eta Kontuen Auditoretza Institutuaren (ICAC) oniritzia badu betiere.
c) Gehieneko epea 5 urtekoa da, luzapenik gabe.
d) Hasiera batean, 3 eta 9 urte artekoa izan behar du, eta 3 urtera arteko luzapenekin. Kontratua ezingo da bidezko arrazoirik gabe deuseztatu, ez hasierako aldian, ezta luzapenean ere.

355. Kontuen auditoretza. Hau da interes publikoko erakundeen (EIP) auditoreei aplikatu beharreko arautegia:

a) KAL bakarrik (Kontuen Auditoritzaren 22/2015 Legea).
b) 537/2014 (EB) Erregelamendua soilik.
c) KAL eta, gainera, 537/2014 (EB) Erregelamendua, I. tituluko II. kapituluko berezitasunak kontuan hartuta. IV.
d) Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legea eta KAL bakarrik.

356. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiak kontratazio publikoa arautzen du, hauxe bermatu edo ziurtatu ahal izateko: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea, betiere eskaintzak kontratuaren objektuarekin zerikusia duten gizarte- eta ingurumen-irizpideak jasotzen baditu, zeharka eta nahitaez.
b) Lizitazioetan parte hartzeko askatasuna, diskriminazio-eza eta tratu-berdintasuna lizitatzaileen artean.
c) Lizitazioen publizitatea eta gardentasuna.
d) Obrak egiteko jarritako fondoak modu efizientean erabiltzea, aurrekontu-egonkortasuna eta gastuen kontrola bermatzeko.

357. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, adieraz ezazu honako printzipio hauetatik zein EZ dagoen bertako xede eta helburuen artean:

a) Tratu-berdintasuna.
b) Merkatu librea.
c) Diskriminaziorik-eza.
d) Publizitatea eta gardentasuna.

358. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, HAUEK dira botere adjudikatzaileak:

a) Fundazio publikoak.
b) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuak.
c) Alderdi politikoak, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko 8/2017 Lege Organikoaren 1. artikuluan zehaztutako zentzuan.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

359. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, adieraz ezazu kontratu hauetako zein dagoen SPKLtik (Sektore Publikoko Kontratuen legetik) KANPO:

a) Zerbitzu-emakidako kontratuak.
b) Obra-kontratuak.
c) Alderdi politiko batek adjudikatzen dituen kanpaina politikorako kontratuak.
d) Hornidura-kontratuak.

360. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, hauek dira, besteak beste, hornidura-kontratu baten ezaugarriak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jendearentzako zerbitzu bat ustiatzen dute.
b) Ordenagailurako programak xede dituzten kontratuak.
c) Xedetzat dute produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo errentan hartzea dutenak, erosteko aukerarekin edo gabe.
d) Xedetzat dituzte mantentze-zerbitzuak.

361. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, hauek dira erregulazio harmonizatuko kontratuak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Estimatutako balioa Legean adierazitako zenbateko jakin batzuen berdina edo handiagoa duten kontratuak.
b) Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuetara bideratutako programak eskuratzea, garatzea, ekoiztea edo koproduzitzea xede dutenak.
c) Defentsa-sektorean sartuta daudenak.
d) Objektutzat komunikazio elektronikoen zerbitzuetarako programak eskuratzea, garatzea, ekoiztea edo koproduzitzea dutenak.

362. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, obra-kontratu bat erregulazio harmonizatukoa izango da, baldin eta: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Obra-kontratuak ez badaude erregulazio harmonizatuaren mende.
b) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 5.402.000€ baino txikiagoa bada.
c) Estimatutako balioa 5.402.000€ baino txikiagoa bada.
d) Estimatutako balioa 5.402.000€-koa edo handiagoa bada.

363. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zein da administrazio-kontratuak prestatzeko, adjudikazioa egiteko, ondorioak izateko, aldatzeko eta azkentzeko eskumena duen jurisdikzio-ordena? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Jurisdikzio-orden penala.
b) Jurisdikzio-orden zibila.
c) Gizarte-arloko jurisdikzio-ordena.
d) Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena.

364. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zerbitzu-kontratuen iraupen-epea eta gauzatze-epea honako hauetara egokitu behar da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hasierako aldi bat izan beharko dute, baina gerora luzapen bat edo gehiago egin litezke, baldin eta ezaugarriak ez badira aldatzen aldi osoan.
b) Prestazioak zer-nolakoak izango diren, finantzaketaren ezaugarriak eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez emateko beharra.
c) Prestazioen izaera, baldin eta alderdien isilbidezko adostasuna badago.
d) Bost urteko gehieneko epea; hortik aurrera, ondoz ondoko hornidura- eta zerbitzu-kontratuak badira, luzatu ahal izango dira, aplikatzekoak diren aurrekontu-arauetan ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuz.

365. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zer agertu behar da kontratuan, gutxienez? (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Prezio zehatza edo hori zehazteko modua, baita ordaintzeko baldintzak ere. Gainera, prezioa ordaintzeko erabiliko den aurrekontu-kreditua edo kontabilitate-programa edo



-errubrika, hala badagokio.

b) Aldaketak edo deuseztapenak zein kasutan egin behar diren adierazten duten estipulazioak, adjudikaziodunak proposatuta, eta baldintza-agirietan aurreikusitakoez bestelakoak.
c) Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, baita luzapenaren edo luzapenen iraupena ere, aurreikusita badaude.
d) Enpresa kontratistak duen betebeharra, hitzarmen kolektiboan finkatutako arau eta baldintzak kontratuaren iraupen osoan betetzekoa.

366. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zer EZ da nahitaez agertu behar sektore publikoko erakundeek egiten dituzten kontratuak formalizatzeko dokumentuetan?

a) Kontratuaren balio zenbatetsia.
b) Kontratuaren iraupena.
c) Alderdien identifikazioa.
d) Entregatzeko baldintzak.

367. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, noiz baliogabetu edo deuseztatuko dira botere-adjudikatzaileek egindako kontratuak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Inoiz ez, ezin da halakorik gertatu.
b) Ahoz itxi badira.
c) Organo kontratatzaileak lizitatu dituenean, baina iragarri gabe.
d) Organo kontratatzaileak hala nahi duenean.

368. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zein dira botere-adjudikatzaileek egindako kontratuak deuseztatzeko arrazoiak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gaitasun tekniko edo profesional handiegia izatea.
b) Jarduteko gaitasunik edo kaudimen ekonomikorik ez izatea.
c) Kontratua prestatzeko ez den egintza bat deuseztatzea.
d) Guztiak dira deuseztatzeko arrazoiak.

369. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, arduradun bat izendatu behar da kontratua nola gauzatzen den gainbegiratzeko eta beharrezkoak diren erabakiak hartzeko; funtsean, kontratuan hitzartutakoa behar bezala ematen dela bermatzeko. Adieraz ezazu NORK egiten duen izendapen hau:

a) Kontu-hartzaileak.
b) Adjudikaziodunak.
c) Kontratazio-organoak.
d) Kontratazio-mahaiak.



370. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, kontratu publikoetako kontratatzailearen profilari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontratatzailearen profileko informazioa edozeinek eskuratu ahal izango du, eta ez da aldez aurretik identifikaziorik eskatuko.
b) Kontratatzailearen profileko informazioa beren burua identifikatzen dutenek soilik eskuratu ahal izango dute. Horretarako, sisteman erregistratu beharko dute.
c) Kontratatzailearen profileko informazioa edozeinek eskuratu ahal izango du baldin eta kontratu txikiak badira eta bi hilabeterako badira. Ondoren, sisteman erregistratu egin beharko dira.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

371. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, kontratatzeko debekuei dagokienez, ezingo zaie kontraturik egin honako egoera hauetakoren batean dauden pertsonei: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Langileen eskubideen aurkako delituengatik epai irmo bidez kondenatuak izan direnei.
b) Zehapen irmo bat jaso dutenei, lanbide-arloan arau-hauste larria egiteagatik; izan ere, horrek zalantzan jartzen du haien zintzotasuna.
c) Zerga-betebeharrak egunean ez dituztenei.
d) Goian aipatutako inori ezingo zaio kontraturik egin sektore publikoan.

372. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, sektore publikoarekin kontratuak egiteko: (Aukeratu erantzunik OSATUENA)

a) Enpresariek, kontratazio-organoak ezarritako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kaudimen ekonomiko, finantzario, profesional edo teknikoari dagokionez.
b) Enpresariek, kontratazio-organoak ezarritako gutxieneko kaudimen teknikoaren baldintzak betetzea nahikoa da.
c) Enpresariek eskaera egitea besterik ez dute.
d) Enpresariek, sektore publikoko kontratuak arautzen dituen legean (SPKL) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte kaudimen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez.

373. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, Administrazio publikoekin egingo diren kontratuak prestatzeko, hauxe jaso/justifikatu beharko da kontratazio-espedientean: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kaudimen tekniko edo profesionaleko eta kaudimen ekonomiko-finantzarioko irizpideak, baita kontratua adjudikatzeko aintzat hartuko diren irizpideak eta hura gauzatzeko baldintza bereziak ere.
b) Kontratuaren balio estimatua, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, lan-kostuak izan ezik, halakorik balego.
c) Kontratuaren finantzaketa jatorri desberdineko ekarpenekin egiten bada, jatorri bakoitzaren balio estimatua.
d) Kontratua gauzatzeko, sektore publikoko erakundeek datuak laga behar badizkiote kontratistari, konfidentzialtasun-klausula bat txertatuko da.

374. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, hauek dira kontratu txikiak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 25.000€-tik beherako balio estimatua duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
b) 5.000€-tik beherako balio estimatua duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
c) 50.000€-tik beherako balio estimatua duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
d) 15.000€-tik beherako balio estimatua duten kontratuak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.

375. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, Administrazio publikoek kontratu bat egiteko prozedurari dagokionez, adieraz ezazu zein EZ den prozesu horietako bat edo zein EZ datorren guztiz bat horiekin.

a) Kontratua esleitzea. Zerbitzu-emakida denean, fase honetarako, kalitate-prezio erlazio onenean oinarritutako hainbat adjudikazio-irizpide erabiliko dira, prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz. Eta, salbuespen gisa, zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna duen eta gaitasun-profesionala duen enpresariri.
b) Espedientea onartzea. Espediente horren edukia, besteak beste, honakoa izango da: lizitazio-prozedura hautatzea; kaudimen tekniko edo profesionaleko irizpideak eta kaudimen ekonomiko-finantzarioko irizpideak, eta kontratua adjudikatzeko kontuan hartuko diren irizpideak; kontratuaren balio estimatua; dagozkion prestazioak kontratatuz lortu nahi den administrazioaren beharra, eta horrek kontratuaren objektuarekin duen harremana, zuzena, argia eta proportzionala izan beharko duena.
c) Adjudikazioa ebaztea eta jakinaraztea; kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean. Argitalpen horrek, nolanahi ere, esleipendunaren izena eta berak egindako proposamenaren ezaugarriak eta abantailak jaso beharko ditu, gainerako lizitatzaileek aurkeztutakoen aldean lehentasuna izateko erabakigarriak izan direnak.
d) Espedientea izapidetzea. Kontratazio-organoak hasiko du, kontratuaren beharra arrazoituz, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

376. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, erregulazio harmonizatuko kontratuetan, lizitazioa honako hauetan ERE argitaratu beharko dira: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Estatuko Aldizkari Ofizialean.
b) Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.
c) Kontratatzailearen profilean.
d) Ez da argitalpen gehigarririk behar.

377. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, Administrazio publikoen kontratuak adjudikatzeko, aldez aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteari dagokionez, honako dokumentazio hau erantsi behar zaio eskaintzari prozedura irekian: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Banku-ziurtagiria.
b) Erantzukizunpeko adierazpena.

c) Eskritura publikoa.
d) Aurretiazko abala.

378. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, administrazio-kontratuek legean bertan aipatzen diren arauak bete beharko dituzte, baita administrazio-klausulen eta preskripzio-teknikoen (orokorrak zein zehatzak) baldintza-orriek adierazten dutena (edo horiek ordezkatzen dituen deskripzio-dokumentuak). Hala ere: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontratistak, berari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioak osorik edo zati batean bete ez baditu, Administrazioak kontratua deuseztatzea erabaki dezake.
b) Kontratistak kontratua finkatutako guztizko-epearen barruan eta ondoz ondoko epe partzialen barruan bete behar duenez, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua atzeratzen bada, Administrazioak honako zigor hau ezarriko dio egunero: 0,60€ kontratuaren prezioaren 1.000€ bakoitzeko.
c) Baldintza-orrietan penalizazioak aurreikusi ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa behar bezala betetzen ez denerako. Penalizazioek ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak izan beharko dute, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira izan kontratuko prezioaren ehuneko 10 baino handiagoak, BEZik gabe, eta guztien baturak kontratuko prezioaren ehuneko 50 baino handiagoak ere ezin dira izan.
d) Kontratua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei sortzen zaizkien kalte eta galera guztiak ordaindu beharko ditu kontratistak. Baita obra-kontraturen edo produkzioko hornidura-kontratuaren proiektuak dituen akatsen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ere (kalte horiek proiektua idatzi duenaren aurka egiteko aukera alde batera utzi gabe).

379. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, Administrazio publikoarekin kontratuak gauzatzean, obra-ziurtagiriak onartu eta gero; edo entregatutako ondasunen edo emandako zerbitzuen kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartu eta gero; eta faktura onartu ondoren, Administrazioak kontratistari prezioa ordaindu beharko dio gehieneko ere epe honetan: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 10 egun.
b) 20 egun.
c) 30 egun.
d) 60 egun.

380. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, noiz aldatu ahalko dira administrazio-kontratuak, dira indarrean dauden bitartean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Administrazio-klausula partikularren agirian hala aurreikusi denean, Legean ezarritako moduan eta baldintzetan.
b) Kontratazio-organoaren eta kontratatzailearen artean berariaz hitzartu denean.
c) Kontratistak hala eskatzen duenean kostuak handitzeagatik, betiere eskaera kontratua hasi baino lehen egiten bada, Legean ezarritako moduan eta baldintzetan.

d) Nolanahi ere, aldaketak ez badu kontratuaren hasierako prezioaren %20 gainditzen.

381. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, Administrazio publikoen kontratuetan zer zenbatekora arte aldatu ahalko da, gehienez ere, hasierako prezioa, indarrean dagoen bitartean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ezin izango da inola ere hasierako prezioa aldatu.
b) Hasierako prezioaren %20ra arte, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan aukera horretaz berariaz ohartarazi bada.
c) Ez dago gehiengorik, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan aukera horretaz berariaz ohartarazi bada.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

382. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, administrazioak kontratu bat etetea erabakitzen duenean, Administrazioak kontratistari benetan jasandako kalteak eta galerak ordainduko dizkio, hauexek egiaztatzen badira, betiere: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Makineriaren, instalazioen eta ekipamenduen alokairuak edo mantentze-kostuak, etenaldiak irauten duen bitartean.
b) Etenaldiko mantentze-gastuak.
c) Etenaldian nahitaez kontratuari atxikita geratu behar duten langileen soldata-gastuak.
d) Etenaldian hornidura-kontratuak eteteagatiko kalte-ordainak.

383. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, kontratuen esleipena arrazionalizatzeko eta antolatzeko, Administrazio publikoek esparru-akordioak egin, sistema dinamikoak artikulatu edo kontratazioa zentralizatu dezakete. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Esparru-akordioen kasuan, horien iraupena ezin izango da 10 urtetik gorakoa izan, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
b) Sistema dinamiko bat artikulatuz gero, prozesu erabat elektronikoa denez, sisteman parte hartzeak gastu bat karga diezaieke enpresei, formatu elektronikoaren kontzeptuagatik.
c) Kontratazioa zerbitzu espezializatuetan zentralizatuz gero, obra, zerbitzu eta horniduretakoak izan daitezke, eta zerbitzu espezializatuei esleitu.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

384. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, obra-kontratu bati dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Lehen-ezarpeneko, eraberritzeko edo konponketa handiko obren proiektua, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 500.000€-tik beherakoa denean, aurrekontuaren atalean sinplifikatu ahal izango da, neurketen egoera-orriarekin eta baloratzeko behar diren xehetasunekin.
b) Obren hasiera lau hilabete baino gehiagoz etetea, obra-kontratu bat suntsiarazteko arrazoia da.
c) Ezinbesteko kasuetan, hondamendiek eragin dituzten fenomeno naturaletan (itsasoko



ekaitzak eta uholdeak), kontratistak beti izango du kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea.
d) Prezio berriak jartzea ez da jotzen obra-kontratuaren aldaketatzat.

385. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zerbitzu-emakidako kontratu bati dagokionez, honako betebehar hauek bete beharko ditu emakidadunak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zerbitzuaren garapenaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzea, salbuespenik gabe.
b) Zerbitzua adostutako jarraitutasunarekin ematea eta partikularrei zerbitzua zehaztutako baldintzetan erabiltzeko eskubidea bermatzea.
c) Emakidadunak ezarritako tarifetan jasotako kontraprestazio ekonomikoarekin ematea zerbitzua.
d) Zerbitzua ondo ematen ari direla ziurtatzea eta emakidadunak ezarritako jarraibide egokiak ematea.

386. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, errentamendu-kontratu bati dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Errentatzaileak bere gain hartuko du, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratuaren xedea mantentzeko betebeharra. Eta mantenu-kanon gisa ordaindu beharreko zenbatekoak errentamenduaren prezioarekin batera finkatuko dira.
b) Errentatzaileak bere gain hartuko du, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratuaren xedea mantentzeko betebeharra. Administrazioak mantentze-kanon gisa ordaindu behar dituen zenbatekoak errentamenduaren preziotik bereizita finkatuko dira.
c) Errentatzaileak ez du inoiz bere gain hartuko, kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratuaren xedea mantentzeko betebeharra. Errentamenduaren prezioa eta mantentze-kanona kontratuan bertan finkatuko dira, eta Administrazioak ordaindu beharko ditu zenbateko horiek.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

387. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, hornikuntza-kontratu bati dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kontratistak hornikuntzaren xede diren ondasunak entregatu beharko ditu kontratuan finkatutako denboran eta lekuan, eta preskripzio teknikoen eta administrazio-klausulen arabera.
b) Hornigaia edozein izanda ere, esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ondasunak administrazioari entregatu aurretik galdu, matxuratu edo kaltetzen badira, salbu eta administrazioa ondasunak hartzeko orduan berandutu bada.
c) Baldintza-agiriko baldintzen arabera, ondasunak hartzeko egintza formala ematea baino beranduago denean, administrazioak izango du ondasunak zaintzeko erantzukizuna, entregatzen direnetik jasotzen diren arte.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

388. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, obrak egitean izandako desbideratzeen ondoriozko kalte-ordainei eta proiektuko akats edo errakuntzen ondoriozko erantzukizunari dagokienez, honakoa gertatzen da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Proiektuan aurreikusitako obra gauzatzeko aurrekontua kostu errealaren ehuneko 20ra arte desbideratzen denean, bai goitik bai behetik (kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen edo ez-egiteen ondoriozko zenbatekoa), kontratuaren prezioa murriztu egingo da kalte-ordain gisa, gutxienez 1.000€eta gehienez 30.000€, desbideratze-ehunekoaren arabera.
b) Kalte-ordainen baremoak honako aukera hauek jasotzen ditu: desbideratzea %20tik gorakoa baina %30etik beherakoa bada, kontratua adjudikatzeko prezioaren %30ekoa izango da kalte-ordaina; desbideratzea %30etik gorakoa baina %40tik beherakoa bada, kontratua adjudikatzeko prezioaren %40koa izango da kalte-ordaina; desbideratzea %40tik gorakoa baina %50etik beherakoa bada, kontratua adjudikatzeko prezioaren %50ekoa izango da kalte-ordaina. Kasu guztietan BEZa barne dago.
c) Obra bat egitean ausarkeria edo fede txarra ikusten bada, ez da kalte-ordainik emango, eta administrazioak isuna jartzea erabaki ahal izango dio obraren arduradunari. Isuna 1.000€ eta 30.000€ artekoa izango da.
d) Kalte-ordainaren zenbatekoa zehaztu ondoren, kontratistak kalte-ordain horren zenbatekoa hilabeteko epean ordaindu beharko du ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera. Ebazpena eta interesdunari entzun ondoren izapidetuko da.

389. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, zer arau bete behar dira Administrazio publiko izaera ez duten botere adjudikatzaileek egindako kontratuak esleitzeko? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zuzenbide pribatuak soilik arautzen ditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legea aplikatu gabe.
b) Administrazio publikoak, horrelako kasuetan, araudi espezifikoa argitaratuko du.
c) Administrazio publikoei buruzko Sektore Publikoko Kontratuen Legean arautzen dira.
d) Barne-araudiaren arabera arautzen dira, publizitate- eta lehia-printzipioei lotu gabe.

390. Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegiaren arabera, honela esleituko dira Administrazio publiko izaera ez duten eta erregulazio harmonizatukoak diren botere adjudikatzaileek egindako kontratuak : (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen arautegian jasotakoaren arabera.
b) Erakundeak kontrataziorako onartutako barne-jarraibideen arabera.
c) Beti kontratu txikiaren bidez.
d) Nahitaez publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez.

391. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Adieraz ezazu zer den *lead time* logistikoa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Itxarote-denbora defizita.
b) Bezeroak itxaron nahi duen gehieneko denbora.
c) Hornikuntzetan, fabrikazioan eta banaketan emandako denbora.



d) Hornikuntzetan emandako denbora.

392. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Adieraz ezazu zer lortu nahi den biltegien inbentario automatikoarekin: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Stockaren kudeaketa beti denbora errealean egitea, automatikoki eta akatsak saihestuz.
b) Stockaren kudeaketa beti a posteriori egitea, automatikoki eta akatsak saihestuz.
c) Biltegiko azpiegitura-kostuak zehatz-mehatz aztertzea.
d) Eskaerak prestatzeko dagoen sistema aldatzea.

393. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Segurtasun-stockari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beharrezkoa da beti.
b) Kontsumoa normala bada erabili behar da, emateko epea atzeratu ala ez.
c) Ez da erabili behar kontsumoa normala bada eta emateko epea atzeratzen ez bada.
d) Eskaera-puntua da.

394. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Adieraz ezazu zer esan nahi duen LIFO biltegiratze-sistemak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Sartzen den azkena irteten den lehena dela.
b) Sartzen den lehena irteten den lehena dela.
c) Biltegiratzea blokean egiten dela, apalategi mugikorren bidez.
d) Biltegiratzea blokean egiten dela, apalategien bidez.

395. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Nola deritzo kontratu bati, zeinean erosleak ordaintzen baititu hornitzaileak hornidura gauzatzeko egin dituen kostu justifikatuak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Prezio finkoko kontratua.
b) Prezio aldakorreko kontratua.
c) Prezio itxiko kontratua.
d) Kostu itzulgarriak dituen kontratua.

396. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Bloke trinkotan egindako biltegiratzeari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Apalategi dinamikoak erabiltzera behartzen du.
b) Biltegi bat %100ean betetzeko aukera ematen du.
c) Biltegiratze ez oso ordenatua izatearen arazoa du.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

397. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Honela sailkatzen dira biltegiratze-kostuak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Azpiegitura-kostuak, kudeaketa-kostuak eta eragiketa-kostuak.



b) Zuzeneko eta zeharkako kostuak.
c) Kostu materialak, kostu immaterialak eta finantza-kostuak.
d) Kostu ukigarriak eta finantza-kostuak.

398. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Une jakin batean, enpresa batek izakin gehiagoren eskaera egin behar izaten du, stock hausturarik ez izateko. Nola deritzo une horri? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hornikuntza-epea.
b) Kontsumo-puntu normala.
c) Eskaera-puntua.
d) Errotazio-puntua.

399. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Eskaera-puntua hauen araberakoa da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskaera bakoitzeko gastuaren araberakoa.
b) Urteko gastu osoaren araberakoa.
c) Zuzenean segurtasun-stockaren araberakoa.
d) Alderantziz segurtasun-stockaren araberakoa.

400. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Inbentarioen kudeaketa. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Zenbat eta baliabide gehiago eduki biltegiratuta, orduan eta hobeto, kostuei eragiten baitie eta segurtasun handiagoa ematen baitu.
b) Eskaera-puntuak hau adierazten du: eskaera berri bat egin behar den unean, biltegian dagoen izakin kopurua.
c) Garrantzitsua da biltegiratutako baliabideak izatea, stock-haustura gertatzen bada ere.
d) Izakinak baloratzeko, enpresek hainbat irizpide erabil ditzakete, eta horietako bat LIFO da.

401. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Adieraz ezazu zer den SKU (*stock-keeping unit*): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Letraz eta zenbakiz osatutako kode bakarra da. Normalean, hortik abiatuta ondoriozta daiteke zein produkturi egiten dion erreferentzia.
b) Enpresa baten metodoak eta prozesuak deskribatzen dituen terminoa.
c) Bezeroari zuzendutako kudeaketa-eredu bat.
d) Berriz hornitzeko teknika eraginkorra, salgaien bidalketa eta jasotzea hobetzen saiatzen dena.

402. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornikuntza-katearen plangintza, Sarrera. Logistikaren definizioa. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondasunen fluxuarekin eta eraldaketarekin lotutako jarduera guztien antolaketa da, lehengaiaren etapatik (erauzketa) azken erabiltzaileraino, baita lotutako informazio-



fluxuak ere.

b) Ondasun eta zerbitzuen fluxu eta biltegiratze eraginkorra planifikatzen, gauzatzen eta kontrolatzen duen hornikuntza-katearen prozesuaren zatia da, baita horrekin lotutako informazioarena ere, jatorritik kontsumo-puntura arte, bezeroren eskakizunak betetzeko.
c) Hornikuntza-kate bat planifikatzeko behar diren informazio-fluxuen antolaketa telematikoa da.
d) Eskaeren informazioa transmititzeko erabiltzen den metodologia da, baita biltegiekin eta stockekin duen harremanaren informazioa ere.

403. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornikuntza-katearen plangintza, Sarrera. Kostu logistikoak: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Aktibo logistikoen errendimendua ROLA izeneko erlazioarekin adieraz daiteke (*return on logistics assets*).
b) ROLA erlazioa, inbertsio logistikoaren errendimendua da.
c) Inbertsio logistikoaren errendimendua honela kalkulatzen da: (eragiketa logistikoaren sarrena – eragiketa logistikoaren kostua)/aktibo logistikoaren kapitalaren kostua.
d) ROLA erlazioa honela definitzen da: (aktibo logistikoaren kapitalaren kostua – eragiketa logistikoaren kostua)/aktibo logistikoaren kapitalaren ekarpena.

404. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Biltegiak. Biltegi bateko lan-arloak. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Salgaiak jasotzeko arloa.
b) Administrazio-arloa.
c) Biltegiratze-arloa eta eskaerak prestatzeko arloa.
d) Bidalketen arloa.

405. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontrola eta kudeaketa. Stocken kostu motak. Enpresak erositako materialak hiru kostu mota ditu. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erosketaren kostua, stocka edukitzearen kostua eta stocka eskuratzearen kostua.
b) Erosketaren kostua, stocka mantentzearen kostua eta stocka kokatzearen kostua.
c) Stocka edukitzearen kostua, stocka eskuratzearen kostua eta eskuratzearen finantza-kostuak.
d) Erosketaren kostua, garraioaren kostua eta stocka mantentzearen kostua.

406. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Kontrola eta kudeaketa. Zer adierazten du eskaera-puntuak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Hornitzailearekin harremanetan jartzen garen unea beste eskaera bat egiteko.
b) Eskaera baten ordainketa egiten dugun unea.
c) Eskaera berria noiz egin behar den adierazten duen izakin kantitatea.
d) Stocka hornitzeko epea da.

407. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornikuntza-katea kudeatzeko teknikak. Zer da SKU (*stock-keeping unit*)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Eskaera-prestaketa mota bati dagokio, stockean salgairik jarri gabe egiten dena.
b) Blokeetan biltegiratutako stockerako paletak eta edukiontziak partekatzean datza.
c) Stockaren informazioa biltegiratzeko sistema bat da.
d) Merkataritzan erabiltzen den identifikatzaile bat da, bezeroei eskainitako produktuen eta zerbitzuen jarraipen sistematikoa egin ahal izateko.

408. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Erosketa industrialak kudeatzea, Sarrera. Zer dira erosketa produktiboak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresarentzat erabilgarriak direnak.
b) Produktu bukatuaren parte direnak, hala nola lehengaiak, osagaiak, erdilanduak, produktu amaitua, edo jarduerari lotutako erosketa-jarduera bat sortzen dutenak.
c) Produkzioan finantza-osagairik ez dutenak.
d) Enpresaren diruzaintzan mozkina ematen dutenak.

409. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Erosketa industrialak kudeatzea, Sarrera. Erosketa-prozesu batean, hainbat eragilek parte hartu ohi dute, besteak beste: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erabiltzaileak, preskriptoreak, hornitzaileak eta erosleak.
b) Enpresak, hornitzaileak, biltegizainak eta finantza-zuzendariak.
c) Finantza-zuzendariak, hornitzaileak, biltegizainak eta bezeroak.
d) Preskriptoreak, hornitzaileak, finantza- zuzendariak eta kontabilitate-zuzendariak.

410. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. Hauek dira erosketen kudeaketan parte hartzen duten lau kudeaketa-arloak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erosketa, administrazioa, kontabilitatea eta biltegia.
b) Produktuaren erosketa, produktuaren kudeatzea, eragiketaren kontabilizazioa eta garraioaren kudeaketa.
c) Produktuaren kudeaketa, prozesuaren kudeaketa, kontratuaren kudeaketa eta hornitzaileen kudeaketa.
d) Prozesuaren kudeaketa, produktuaren erosketa, kudeaketa finantzarioa eta garraioaren kudeaketa.

411. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Erosketa industrialen kudeaketaren antolaketa ingurune globaletan. Erosketa-merkatuaren ezaugarrietan eta balizko erosketa-erakundeetan oinarrituta, lau erosketa-aukera daude. Zeintzuk dira? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erosketa zentrala, hornikuntza orokorrarekin; tokiko erosketa, tokiko hornikuntzarekin; erosketa zentralizatua, tokiko hornikuntzarekin; eta torkiko erosketa, hornikuntza orokorrarekin.
b) Tokiko erosketa, hornikuntza zentralizatuarekin; tokiko erosketa, hornikuntza

partzialarekin; erosketa zentralizatua, hornikuntza osoarekin; eta erosketa zentralizatua, hornikuntza partzialarekin.
c) Tokiko erosketa, hornikuntza zentralizatuarekin; tokiko erosketa, hornikuntza partzialarekin; erosketa zentralizatua, tokiko hornikuntzarekin; eta erosketa zentralizatua, Estatuko hornikuntzarekin.
d) Tokiko erosketa, hornikuntza zentralizatuarekin; erosketa zentralizatua, tokiko hornikuntzarekin; tokiko erosketa, tokiko hornikuntzarekin; eta erosketa zentralizatua, hornikuntza zentralizatuarekin.

412. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Erosketen kudeaketa estrategikoa. Ingurune lehiakor eta dinamikoetan, estrategiarako hurbilketa dinamikoa ere izan behar da, kudeaketa-prozesuak eraginkorrak izan daitezen. Hurbilketa dinamiko horretan, hainbat kudeaketa-maila bateratu daitezke, lau faseren bidez. Zeintzuk dira? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Estrategia, marketina eta publizitatea formulatzea eta ezartzea.
b) Estrategiaren diagnostikoa, marketina, berrikuspena eta formulazioa.
c) Estrategiaren marketina, formulazioa, ezarpena eta berrikuspena.
d) Estrategiaren diagnostikoa, formulazioa, ezarpena eta berrikuspena.

413. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Hornitzaileen politikak, eta erosketa-familien azterketa eta hornitzaileen integrazioa. Helburuak betetzen direla ziurtatzeko eta kontrol egokiak egiteko, enpresek integrazio-egoera aztertzeko tresnak dituzte. Tresna horietan hainbat integrazio-ardatz daude. (Aukeratu erantzun OKERRA):

a) Kalitatea, hornitzaileen kalitate-sistema baten bidez integratzea.
b) Enpresaren helburuarekin lotutako marka integratzea.
c) Materialen fluxuaren eta hornikuntza-prozesuarekin lotutako informazioaren integrazio logistikoa.
d) Produktua garatzeko diseinu-prozesuaren eta hari lotutako fabrikazio-prozesuaren diseinua integratzea.

414. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Biltegiak. Nolakoa izan liteke biltegiratzeko metodoen sailkapena, espazio erabilgarriaren optimizazio-mailaren arabera?

a) Biltegiratzea bloke trinkoan, biltegiratzea blokean baina pilatzeko makinen gainean, eta korridoreetan biltegiratzea apalategi mugikorrak erabiliz.
b) Biltegiratzea bloke trinkoan, biltegiratze aldakorra apalategi mugikorretan eta korridoreetan biltegiratzea, karga-kamioia erabiliz.
c) Blokean biltegiratzea apalategietan, korridoreetan biltegiratzea (pilatzeko makinak erabiliz) eta blokean biltegiratzea apalategi mugikorren bidez.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

415. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Apalategietan blokean biltegiratzea. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) *Drive-in* apalategietan, bertatik igaro daitezke pilatzeko ibilgailuak edo orga jasotzaileak, karga/deskarga bi muturretatik egin ahal izateko.

b) Apalategi dinamikoetatik ezin da orgarik pasa, eta, beraz, kanpotik kargatu behar dira nahitaez.
c) LIFO apalategi dinamikoak mutur batetik kargatzen dira eta kontrako aldetik deskargatu. Instalazioan, beraz, bi korridore jarri beharko dira, alde bakoitzeko bat, orgen maniobrak errazteko.
d) FIFO apalategi dinamikoak horma baten kontra eraikitzen dira eta aurrealdetik kargatzen dira, aurretik sartutako kargari bultza eginez, une horretan sartu nahi den kargarekin.

416. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Biltegiaren antolaketa. Biltegi baten antolaketa eraginkorra izateko, hau lortu behar da, nagusiki: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erabilitako apalategien kostua minimizatzea eta barne-garraioa maximizatzea.
b) Eskulana minimizatzea eta elementu automatikoen erabilera maximizatzea.
c) Okupatutako espazioa minimizatzea eta barne-garraioa maximizatzea.
d) Daukagun bolumena maximizatzea (m^3) eta manipulazioko eta barne-garraioko eragiketak minimizatzea.

417. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Logistika eta hornikuntza-katea. Baieztapen hauetatik, zeinek definitzen du zuzen hornikuntza-katearen (SCM) kudeaketa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) SCM logistikaren azpimultzo bat da, eta lehengaiak biltegiratzen ditu esklusiboki.
b) SCM enpresa baten barruko ekoizpen- eta garraio-eragiketetara mugatzen da.
c) SCMk marketinaren, logistikaren eta ekoizpenaren arteko jarduerak eta harremanak integratzen ditu enpresaren barruan, baita enpresen artean ere, produktuaren fluxu-kanalean zehar, lehia-abantaila jasangarria lortzeko.
d) SCMk garraio- eta biltegiratze-kostuak minimizatzean soilik jartzen du arreta.

418. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Inbertsioaren errendimendua sistema logistikoan. Zein da ROLAren (*return on logistics assets*) adierazpen zuzena? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) ROLA = (Kapital-kostuak – Sarrerarako ekarpena) / Eragiketa-kostuak.
b) ROLA = (Sarrerarako ekarpena – Eragiketa logistikoaren kostuak) / Aktibo logistikoaren kapitalaren kostua.
c) ROLA = (Sarrerarako ekarpena + Eragiketa logistikoaren kostuak) × Kapitalaren kostua.
d) ROLA = Eragiketa logistikoaren kostuak / (Sarrerarako ekarpena – Kapitalaren kostua).

419. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Enpresan logistikaren kudeaketa. Faktore hauetako zein hartu behar da kontuan banaketa-biltegi bat ezartzean? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Merkataritza-sailari esleitutako administrazio-langileen kostua.
b) Hornitzaile logistikoaren ISO ziurtagiriak izatea.
c) Kokalekua aukeratzea, trenbideko garraioa, errepideko garraioa, lurraren kostua eta



eraikuntza-arauak kontuan hartuta.
d) Biltegiratutako produktuen merkatu-prezioaren balorazioa.

420. Erosketak eta biltegien kudeaketa. Enpresan erosketen kudeaketa. Arrazoi hauengatik bereizten dira "Erosketak" eta "Hornikuntza" atalak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Erosketak, materialen fluxu fisikoa kudeatzen du. Hornikuntzak, hornitzaileekiko estrategia definitzen du.
b) Erosketak, estrategia definitzen du merkatu hornitzailean; hornitzaileak, berriz, kontratuak eta antolaketa/prozesuak kudeatzen ditu. Hornikuntzak, zerbitzu-maila bermatzen du; emateak planifikatzen/programatzen ditu; garraioak eta stockak koordinatzen ditu kapital eta kudeaketa-kostu txikienarekin.
c) Biak berdin-berdinak dira, baina izen desberdina dute.
d) Hornikuntza, barneko administrazio-zereginetara mugatzen da. Erosketak, prezio puntualak soilik negoziatzen ditu.

421. Estatistika deskriptiboa. Nola deitzen zaio zirkulu bat marraztu eta horren gainean aldagai bakoitzerako sektore bat mugatzen duen estatistika-taulari? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Grafiko sektoriala.
b) Barra-diagrama.
c) Histograma.
d) Maiztasun-poligonoa.

422. Estatistika deskriptiboa. Batezbesteko aritmetikoari dagokionez, hau da sakabanatze-neurririk garrantzitsuena: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Moda.
b) Batez besteko desbideratzea.
c) Mediana.
d) Bariantza.

423. Estatistika deskriptiboa. Zer da desbideratze tipikoa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Desbideratze estandarraren erro karratua.
b) Modaren erro karratu positiboa.
c) Bariantzaren erro karratu positiboa.
d) Batez bestekoaren erro karratu positiboa.

424. Estatistika deskriptiboa. Kobariantzaren zeinua positiboa bada, zer esan nahi du? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aldagaien arteko erlazioa alderantzizkoa edo negatiboa da.
b) Aldagaien arteko erlazioa zuzena edo positiboa da.
c) Aldagaien artean ez dago loturarik.



d) Erantzun guztiak okerrak dira.

425. Estatistika deskriptiboa. Aldagai estatistikoak. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Aldagai estatistiko kuantitatibo diskretuak, aldagaiaren balioak tarteen arabera taldekatzen dituen aldagaiak dira.
b) Aldagai estatistiko kuantitatiboak diskretuak eta jarraituak izan daitezke.
c) Kuantitatiboak edo kualitatiboak izan daitezke.
d) Kolektibo edo populazio baten barruan balioa alda dezaketen ezaugarriak dira.

426. Estatistika deskriptiboa. Aldagai baten bariantzari dagokionez, (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Inoiz ezin da negatiboa izan.
b) Karratuen batura bat denez, beti zero baino handiagoa izan behar du.
c) Zero, handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.
d) Bere erro karratu positiboa, mediana da.

427. Estatistika deskriptiboa. Batez besteko desbideratzea: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Batez bestekoarekiko desbideratze tipikoak adierazten duen bateko emaitza da.
b) Datuek batez besteko batekiko dituzten desbideratzeen balio absolutuen batez besteko aritmetikoa da.
c) Batez besteko desbideratzea minimoa da aukeratutako batez bestekoa moda denean.
d) Desbideratzeak txikiak badira, batez besteko desbideratzea handia izango da.

428. Estatistika deskriptiboa. Kobariantza: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kobariantzaren zeinuak, aldagaien artean zer erlazio lineal mota dagoen adierazten du.
b) Bariantzaren karratua da.
c) Inoiz ezin da negatiboa izan.
d) Kobariantza zero bada, aldagaien artean zeharkako erlazioa dagoela esango dugu.

429. Estatistika deskriptiboa. Hauek dira dimentsio bakarreko aldagai estatistikoen adierazpen grafikoak: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Barra-diagrama.
b) Dispertsio-diagrama edo puntu-hodeia.
c) Sektore-grafikoa.
d) Histograma.

430. Estatistika deskriptiboa. Maiztasun-banaketa baten moda edo balio modalari honela deritzo: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Banaketa baten balio zentralari.
b) Banaketa zati berdinetan zatitzen duen aldagaiaren balioari.



c) Batez bestekotik gehien urruntzen den aldagaiaren balioari.
d) Gehien errepikatzen den aldagaiaren balioari, hau da, maiztasun handiena duenari.

431. Estatistika deskriptiboa. Ikerketa estatistiko edo prozedura estatistiko baten etapak. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Esperimentuaren buru izango den ikertzailea hautatzea.
b) Arazoa formulatzea.
c) Esperimentuaren modelizazioa eta diseinua.
d) Datuen bilduma eta tabulazioa.

432. Estatistika deskriptiboa. Hauek dira aldagai estatistikoak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Esperimentu batean egindako test-azterketa kuantitatiboak.
b) Populazioa osatzen duten elementuak, eta ezaugarri desberdinak dituztelako aldakorrak direnak.
c) Estatistika-lan baterako lagin bat osatzen duten elementuak.
d) Kolektibo baten barruan balioa alda dezaketen ezaugarriak.

433. Estatistika deskriptiboa. Hau da bi dimentsioko maiztasun-banaketa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Bi dimentsioko aldagai estatistikoen multzoa, maiztasun erlatiboekin.
b) Aldagai estatistiko bidimentsional baten balioen multzoa, bakoitzaren maiztasunekin (absolutuak edo erlatiboak).
c) Bi dimentsioko aldagai estatistikoen multzoa, maiztasun absolutuekin.
d) Bi dimentsioko banaketa duten maiztasunen multzoa.

434. Estatistika deskriptiboa. Kobariantza. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Kobariantzaren zeinuak adierazten du zer erlazio lineal mota dagoen aldagaien artean.
b) Kobariantzaren zeinua positiboa, negatiboa eta nulua (kobariantza zero) izan daiteke.
c) Aldagaien neurketa-unitateek ez diote kobariantzaren magnitudeari eragiten; beraz, zenbakizko balioak aldagaien arteko erlazio linealaren maila argi eta garbi interpretatzeko aukera ematen du.
d) Aldagaien arteko erlazio linealaren maila ebaluatzeko, korrelazio-koefizientera joko dugu.

435. Estatistika deskriptiboa. Taldea eta lagina. Estatistikan, hau da lagin bat: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Azterlanaren unibertsoko elementu guztien zerrenda osoa.
b) Kolektiboa ordezkatzen duen azpimultzo bat, guztiak neurtzea bideragarria ez denean.
c) Maiztasun absolutuak eta erlatiboak jasotzen dituen taula.
d) Deskribapen-fasean erabilitako grafikoen multzoa.

436. Estatistika deskriptiboa. Aldagai kualitatibo baten izaera. Ezaugarri hauek ditu aldagai kualitatibo batek: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zenbaki oso ez-negatiboak bakarrik hartzea.
b) Beti tarte gisa adieraztea.
c) Kategorietan edo atributuetan sailkatzea, ez zenbakizko neurrietan.
d) Klase-markaz bakarrik definituta egotea.

437. Estatistika deskriptiboa. Prozedura estatistikoan, ezaugarri hauek ditu emaitzen deskribapenak: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Datuak eraldatzen dituen informazio-sintesia izatea, interpretazioa errazteko.
b) Lagina, errolda oso batengatik ordezkatzea.
c) Irudikapen grafiko oro baztertzea.
d) Hipotesi nuluak formulatzeko eskatzea.

438. Estatistika deskriptiboa. Azterketa bateko lagina. Zer da lagin bat? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Maiztasun metatuen zerrenda.
b) Aldagai estatistikoaren sinonimoa.
c) Kolektiboa ordezkatzen duen azpimultzo bat
d) Aldagai kualitatibo eta kuantitatiboetarako grafiko bat.

439. Estatistika deskriptiboa. Prozedura estatistikoan, emaitzen deskribapenak… (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Taulak eta grafikoak saihesten ditu.
b) Lagina errolda batekin ordezkatzen du eta maila nuluetara aldatzen du.
c) Datuak laburtzen eta eraldatzen ditu, errazago irakurtzeko.
d) Kontraste formalak behar ditu.

440. Estatistika deskriptiboa. Aldagai kuantitatibo diskretua. Honela identifikatzen da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Balio desberdinen kopuru txiki batengatik.
b) Nahitaezko tarte jarraitu eta diskretuengatik.
c) Ordinala delako beti.
d) Ehuneko metatu nuluak dituelako.

441. Estatistika deskriptiboa. Aldagai kualitatiboa. Ezaugarri hauek ditu: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Kategoriak edo modalitateak.
b) Klase-markak.
c) Histograma behar izatea.

d) Beti orden posiblerik ez izatea.

442. Estatistika deskriptiboa. Maiztasun erlatiboa. Adieraz ezazu zer den: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Zenbateko absolutuetan neurtutako modak batzea.
b) Kasuen guztizko kopurua.
c) Mediana.
d) Balio bati lotutako bateko balioa.

443. Estatistika deskriptiboa. Maiztasun metatua. Kasu hauetan du zentzua: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aldagaia nominal hutsa eta nulua denean.
b) Balioen artean orden bat dagoenean.
c) Ez dagoenean klase-markarik.
d) Ez dagoenean ehunekorik.

444. Estatistika deskriptiboa. Klase-marka. Zer da? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Tartearen erdiko puntua.
b) Laginaren gehieneko balioa.
c) Ehunekorik altuena.
d) Mediana globala.

445. Estatistika deskriptiboa. Sektore-grafikoa. Zertarako da egokia? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Aldagai kualitatiboetarako.
b) Joera duten denbora-serieetarako.
c) Bi aldaeretarako, korrelazioarekin.
d) Zabalera aldakorreko tarteetarako.

446. Estatistika deskriptiboa. Barra-diagrama. Hainbat tamainatako kolektiboak alderatzeko, hauek erabiltzea komeni da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Metatuak bakarrik.
b) Absolutuak bakarrik.
c) Maiztasun erlatiboak.
d) Besterik gabe pilatutako barrak.

447. Estatistika deskriptiboa. Klase desberdineko histograma. Zutabe bakoitzaren altuerak honelakoa izan behar du: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Bitarte-unitateko maiztasunarekiko proportzionala.
b) Maiztasun absolutua besterik ez, batez bestekoan neurtuta.

c) Metatutako ehunekoa.
d) Tartearen mediana.

448. Estatistika deskriptiboa. Maiztasun-poligonoa. Hauek batuz lortzen da: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Gehieneko eta gutxieneko orokorrak.
b) Histogramaren goiko aldeetako erdiko puntuak.
c) Laginen modak, termino absolutuetan neurtuta.
d) Barra-diagrama bateko barren erdiguneak.

449. Estatistika deskriptiboa. Zer da moda (ikuspegi orokorra)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Baliorik ohikoena.
b) Ibilbidearen erdia.
c) 50. pertzentila.
d) Lehenengo kuartila.

450. Estatistika deskriptiboa. Mediana. Hau da horren definizioa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Beti gainditzen du batez bestekoa termino absolutuetan.
b) Batez besteko balioen batura maximizatzen duena.
c) Behaketen erdia alde bakoitzean uzten duena.
d) Hirugarren kuartilarekin bat datorrena.

GALDERAK PRAKTIKOAK

1. KASUA- ENPRESAREN EKONOMIA

Enpresa baten baliabideen %45 baliabide propioak dira, %22 epe luzeko kanpo-baliabideak eta gainerakoak, epe laburreko kanpo-baliabideak. Finantzaketa-iturri horien kostua, hurrenez hurren, %10ekoa, %7koa eta %3koa da.

451. Kalkula ezazu finantza-baliabideen batez besteko kostu haztatua. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) %2,47.
b) %7,03.
c) %6,97.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

2. KASUA- ENPRESAREN EKONOMIA. 452, 453 eta 454 GALDEREI DAGOKIE.

Bi inbertsio-aukera daude. A inbertsioak 220.000€-ko hasierako ordainketa eskatzen du, eta hiru urteko iraupena du. Hauek dira hurrengo hiru urteetarako aurreikusitako kutxako fluxuak: 66.000€, 99.000€ eta 132.000€. Bigarren urteko gastuak 4.400€ izango dira eta hirugarren urtean 6.600€ berreskuratuko dira salmentagatik.

B inbertsioak 264.000€-ko hasierako ordainketa eskatzen du. Hiru urte iraungo du, eta datu hauek ditu:

	1. urtea	**2. urtea**	**3. urtea**
Kostua, guztira	154.000€	167.000€	206.800€
Unitateko salmenta- prezioa	9€	10€	13€
Saldutako/produzitutako unitateak	26.400	27.500	28.600

Urteko inflazioa %10ekoa da eta urteko gutxieneko errentagarritasuna, %12koa.

452. Zein da inbertsioen BEGa (Balio Eguneratu Garbia)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) A inbertsioak 29.331,13€-ko BEG negatiboa dauka eta B inbertsioak, 35.978,09€-ko BEG negatiboa.
b) A inbertsioak 12.995,85€-ko BEG positiboa dauka eta B inbertsioak, 14.183,54€-ko BEG positiboa.
c) A inbertsioak 2.739,95€-ko BEG positiboa dauka eta B inbertsioak, 35.978,09€-ko BEG positiboa.
d) A inbertsioak 2.739,95€-ko BEG positiboa dauka eta B inbertsioak, 35.978,09€-ko BEG negatiboa.

453. Zer proiektu aukeratu behar da BEGa irizpidea kontuan hartuta? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dugu inbertsiorik hautatuko, biek BEG negatiboa dutelako.
b) A inbertsioa hautatuko dugu, BEG positibo handiena duelako.
c) A inbertsioa hautatuko dugu, BEG positiboa duen bakarra delako.
d) B inbertsioa hautatuko dugu, BEG positibo handiena duelako.

454. Zer proiektu da egokiena berreskuratzeko epearen irizpidea kontuan hartuta (*pay back*)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez dugu bat ere hautatuko, inbertsioak hiru urtetik gorako epean berreskuratuko direlako.
b) A inbertsioa hautatuko dugu, *pay back* handiena duelako.
c) B inbertsioa hautatuko dugu, *pay back* handiena duelako.
d) A inbertsioa hautatuko dugu, *pay back* txikiena duelako.

3. KASUA- ENPRESAREN EKONOMIA. 455 eta 456 GALDEREI DAGOKIE.

ALFA MECANICA SA enpresak industria-ekipoak ekoizten ditu, eta hau da izaten da horko kostuen egitura:

- **Unitateko salmenta-prezioa (p): 500€**
- **Unitateko kostu aldakorra (ka): 300€**
- **Urteko kostu finkoak (KF): 600.000€**

Ekitaldi honetan, enpresak 4.000 unitate saldu ditu (V), eta bere produkzio-jarduerari lotutako arrisku ekonomikoa aztertzen ari da. Zuzendaritzak honako hauek jakin nahi ditu:

455. Informazio horrekin, zein da ALFA MECANICA S.A. enpresaren palanka-efektu operatiboaren (A_o) koefizientea? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1,25
b) 2,50
c) 3,33
d) 4,00

456. Aukera ezberdinak aztertu ondoren, enpresak uste du salmentak %10 jaitsi daitezkeela datorren urtean. Egoera honetarako kalkulatu den Palanka-efektu operatiboa $A_o = 3$ izango dela suposatzen bada, zein ehunekotan aldatuko da mozkin operatiboa (BE)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) %10 murriztuko da.
b) %20 murriztuko da.
c) %30 murriztuko da.
d) %40 murriztuko da.

4. KASUA- ENPRESAREN EKONOMIA. 457 eta 458 GALDEREI DAGOKIE.

Osasun Zerbitzuko KOKODETZA Ospitale Publikoak kirurgia-anbulatorioko unitatea kudeatzen du. Kudeaketa ereduaren jasangarritasun ekonomikoa ebaluatzeko, gerentziak honako analisi hau egin du du:

- **Ebakuntza bakoitzari egotzitako prezioa (p): 450€**
- **Ebakuntza bakoitzaren Kostu aldakorrak (ka): 250€**
- **Kirurgia-anbulatorioko unitatearen urteko kostu finkoak (KF): 2.000.000€**
- **Gaur egun egindako ebakuntza kopurua (V): 12.000 urtean**
- **Ospitaleak, gainera, 3.000.000 euroko mailegua du ekipamendurako, urteko %5eko interesarekin.**

Informazio hori oinarri hartuta, erantzun galdera hauei:

457. Zein da kirurgia-anbulatorioko unitatearen itopuntua (X)? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 6.000 ebakuntza.
b) 7.500 ebakuntza.
c) 8.000 ebakuntza.
d) 10.000 ebakuntza.

458. Zein da palanka-efektu finantzarioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1,60
b) 1,40
c) 1,20
d) 1,10

5. KASUA- ENPRESAREN EKONOMIA. 459, 460 eta 461 GALDEREI DAGOKIE.

CABESTRILLO SA enpresak beso-euskarriak ekoizten ditu (sorbaldak immobilizatzeko tresna). Iaz (2X19) errentagarritasun-atalasea 200.000 beso-euskarritan zegoen; kostu finkoak 800.000€ ziren eta kostu aldakorra 1€/ unitateko. Aurten (2X20) unitateko kostu aldakorrak %30 hazi dira, eta, beraz, salmenta-prezioa %25 igotzea erabaki dute, kostu finkoak 554.400 eurora nabarmen jaistea lortu duten arren.

459. 2X20an, zein da itopuntua? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 100.000 beso-euskarri.
b) 112.000 beso-euskarri.
c) 85.000 beso-euskarri.
d) 95.000 beso-euskarri.

460. Iaz (2X19) 280.000 beso-euskarri produzitu zituen. Hau izan zen lortu zuen emaitza ekonomikoa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez zuen ez mozkinik ez galerarik izan.
b) 1.400.000 euroko mozkina.
c) 320.000 euroko mozkina.
d) 600.000 euroko mozkina.

461. CABESTRILLO S.A. enpresak bi urteetan (2X19 eta 2X20) 280.000 beso-euskarri produzitzen baditu, hau da mozkinek 2X20an duten gehikuntza (ehunekotan): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Mozkinak %150 edo gehiagoko igo dira, baina %170 baino gutxiago.
b) Mozkinak %170 edo gehiago igoko dira.
c) Mozkinak %150 baino gutxiago igoko dira.
d) Ez du mozkinik lortuko.

<u>1. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 462 eta 463 GALDEREI DAGOKIE</u>.

Otsailaren 1ean, MEDICA-Bat S.A. enpresak 65.000€-ko farmazia-produktuak erosi zituen. Erositako bolumena kontuan hartuta, erakunde hornitzaileak 3.000€-ko deskontua egin du. Bestalde, produktuak MEDICA-Bat S.A.ren biltegietara ekartzeko garraioa MEDICA-Bat S.A.-ak ordaindu du, eta 500€-koa izan da. Halaber, bidaia horretarako aseguru bat kontratatu da (hori ere MEDICA-Baten kontura), 200€-koa. Eragiketa BEZari lotuta badago, %21ekoa izango da.

462. Eragiketaren jasandako BEZa: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 13.125€.
b) 13.167€.
c) 13.020€.
d) 13.797€.

463. Erosketa-eragiketa honetan, "(60) salgai-erosketa" kontuaren saldoari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 62.700€ abonatuko dira.
b) 65.000€ abonatuko dira.
c) 62.700€ kargatuko dira.
d) 65.000€ kargatuko dira.

2. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 464 eta 465 GALDEREI DAGOKIE.

MEDICA-Bi S.A. enpresak osasun-produktu jakin baten 1.000 unitate ditu. Hasierako kostua 28.000€-koa izan zen. Urte amaieran, 100 unitate daude kaltetuta, eta, beraz, baja eman zaie. Gainera, 2X20/12/31n produktu mota horiek merkatuan duten balioa 30€/unitateko dela estimatzen da, eta salmentarako beharrezkoak diren gastuak guztira 500€dira.

464. Kaltetutako 100 unitateei dagokienez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ekitaldi ekonomikoa ixtean egin beharreko izakinen erregularizazioak unitateak zuzentzen ditu. Ondorioz, ez da kontabilitateko idazpen espezifikorik egiten baja emateko.
b) 2.800€-ko galera izan da. Zenbateko hori "Izakinak" kontuan abonatuko da, "Ekitaldiko aparteko galerak" kontua kargatuz.
c) 2.800€-ko galera izan da. Zenbateko hori "Izakinak" kontuan abonatuko da, "Izakinen balio-narriadura" kontua kargatuz.
d) 2.800€-ko galera izan da. Zenbateko hori "Izakinak" kontuan kargatuko da, "ekitaldiko gastuak" kontua abonatuz.

465. 20X0/12/31n, enpresak honakoak ditu kontabilitatean: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) “Amaierako izakinak” 30.000€.
b) “Amaierako izakinak” 26.500€
c) “Amaierako izakinen balio-narriadura” 500€
d) Ez dago amaierako izakinen balio-narriadurarik.

3. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 466, 467 eta 468 GALDEREI DAGOKIE.

MEDICA-Hiru S.A. enpresak furgoneta elektriko bat erosi zuen 2X19/03/01ean, salgaiak banatzeko. Eskuratze-kostua 60.000€ izan zen, matrikulazio-gastuak 500€, eta 500.000 km-ko balio-bizitza izango zuela estimatu zuten, baita 10.000€-ko hondar-balioa izango zuela ere. Eragiketa BEZari lotuta badago, %21ekoa izango da.

Informazio gehigarria:

- **2X19/12/31n 80.000 km eginak zituen.**
- **2X20/12/31n, furgonetaren kilometro-kontagailuak 180.000 km markatzen zuen, eta merkatuko balioa 50.000€-koa da.**

466. 2X19 ekitaldiari dagokionez: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 60.000€-ko garraio-elementuari alta eman zaio.
b) 50.500€-ko garraio-elementuari alta eman zaio.
c) Amortizazio-kontzeptuarekin 9.680€-ko gastua kontabilizatu da.
d) Amortizazio- kontzeptuarekin 8.080€-ko gastua kontabilizatu da.

467. 2X20 ekitaldiari dagokionez, "balio-narriaduragatiko" gastu bat kontabilizatzen da, zehazki: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 7.500€-koa.
a) 18.500€-koa.
b) Egindako 180.000 kilometroen higadurari dagokion zenbatekoa.
c) Ez dago narriadurarik.

468. MEDICA-Hiru enpresak, 2X20 ekitaldiaren erdialdean, furgonetaren hozte-sistema hobetuko balu (eragiketa horrek 5.000€-ko kostua izango luke): (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresak 5.000€-ko gastua kontabilizatzen du.
b) Furgonetaren balioak 5.000€-an egingo luke gora.
c) Eragiketa honek ez die amortizazio-kuotei eragiten.
d) Eragiketa honek ez du eraginik izango balio-narriaduraren kalkuluan.

<u>4. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 469 eta 470 GALDEREI DAGOKIE</u>.

MEDICA-Lau S.A. enpresak pabiloi batzuk ditu alokatuta banaketetarako furgonetak gordeta eduki ahal izateko. Kontratua 10 urterako sinatu da (2X15/06/01-2X25/06/01). Urteko kostua 24.000€-koa da, eta urtero hasieran ordaintzen da (hau da, 2X20/06/01ean 24.000€ ordaindu dira hurrengo 12 hilabeteengatik). Eragiketa BEZari lotuta badago, %21ekoa izango da.

469. MEDICA-Lau enpresak, eragiketa horren ondorioz, hau dauka kontabilizatuta 2X20 ekitaldian: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 24.000€-ko gastu aurreratua.
b) 29.040€-ko gastu aurreratua (24.000€+BEZ).
c) 14.000€-ko gastu aurreratua.
d) 10.000€-ko gastu aurreratua.

470. Zein zenbateko kontabilizatu beharko da 2X20 ekitaldiko gastutzat pabiloien alokairuagatik, sortzapen irizpidearen arabera? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 12.000€.
b) 10.000€.
c) 14.000€.
d) 24.000€.

5. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 471 eta 472 GALDEREI DAGOKIE.

MEDICA-Bost S.A. enpresak bere langile baten nomina ordaindu du. Kontzeptuak: Soldata: 1.500€; PFEZ atxikipenak: soldataren %20; Gizarte Segurantza langilearen kontura: 90€; Gizarte Segurantza enpresaren kontura: 450€.

471. Eragiketa honi dagokionez: (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) (642) *Enpresaren kargurako Gizarte Segurantza* partidan, 450€ kargatuko da.
b) (476) *Gizarte Segurantzako organismoak, hartzekodunak* partidan 90€ abonatuko da.
c) (475) *Ogasun Publikoa, kontzeptu fiskalengatik hartzekodun* partidan 300€ abonatuko da atxikipenengatik.
d) Nomina horrek 1.950€-ko gastua eragiten dio enpresari.

472. Eragiketa honen kontabilitate-idazpenari dagokionez, (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1.200€ ordaindu zaizkio langileari.
b) (640) *Soldatak eta lansariak* kontua 1.500 euroan abonatzen da.
c) Enpresak, guztira, 540€ sartu behar ditu Gizarte Segurantzan.
d) (475) *Ogasun Publikoa atxikipenengatik hartzekoduna* kontua, 300 euroan kargatuko da.

6. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 473 eta 474 GALDEREI DAGOKIE.

MEDIKUNTZA-Bat, S.A. enpresak, gaixorik dauden eta sendatzeko hainbat tratamendu mediko behar dituzten pertsonei asistentzia-zerbitzuak ematen dizkie. 2X25 ekitaldian hainbat eragiketa egin ditu. Horietako bat osasun-materialaren erosketa izan da.

Martxoaren 30ean materialaren hiruhilekoko eskaera egiten da. Oraingo honetan 120.000€-ko materiala erosi da, eta zenbateko honi hauek gehitu behar zaizkio: 1.000€ garraioagatik eta 800€ kontratatutako aseguruagatik (produktu jakin batzuk lekualdatzean hausteko arriskua dagoelako). Bi kontzeptu horiek MEDIKUNTZA-Bat, S.A. enpresak ordaindu ditu. Bestalde, faktura hori 30 egunetan ordainduko da, bi erakundeek sinatutako ordainketa-akordioa jarraituz.

Oharra: Eragiketaren bat BEZaren menpe badago, %21ekoa izango da.

473. 2X25eko martxoaren 30ean: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Enpresak ez du kontabilitate-oharrik egiten.
b) (600) Salgai-erosketak partidako saldoa 121.800€-koa da.
c) Enpresak 25.578€ jasoko ditu erasandako BEZaren kontzeptuan.
d) Enpresak 145.200€-ko zorra izango du hornitzaileekin.

474. 2X25eko abenduaren 31n, eragiketa hori bakarrik kontuan hartuta, hau izango da ekitaldiko emaitza:

a) Zero.
b) Emaitza negatiboa: – 121.100€.
c) Emaitza negatiboa: – 121.800€.
d) Emaitza negatiboa: –145.200€.

7. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA, 475 GALDERARI DAGOKIO.

MEDIKUNTZA-Bat, S.A. enpresak, gaixorik dauden eta sendatzeko hainbat tratamendu mediko behar dituzten pertsonei asistentzia-zerbitzuak ematen dizkie. 2X25 ekitaldian hainbat eragiketa egin ditu. Horietako bat ohe artikulatuen erdia ordeztea izan da.

2X25eko ekainaren 30ean MEDIKUNTZA-Bat S.A. enpresa ohe osagarriak berritzen hasi zen. Oraingo honetan %50 berrituko ditu eta enpresa hornitzailearekin akordio batera iritsi da: truke-eragiketa baten bidez, ohe "zaharrak" berrien truke emango dira.
Informazio gehigarria:

- **Ordezkatu beharreko oheen kontabilitate-balioa: 100.000€.**
- **Ohe berrien Prezioa: 350.000€.**

Hornitzaileak 120.000€-ko balioa eman die ohe "zaharrei"; beraz, banku-transferentzia bat egingo da eragiketako diferentzialaren arabera.

Oharra: Eragiketaren bat BEZaren menpe badago, %21ekoa izango da.

475. Ohe berriak honela baloratuko dira:

a) 350.000€
b) 330.000€
c) 250.000€
d) 230.000€

8. KASUA- KONTABILITATE OROKORRA. 476 eta 477 GALDEREI DAGOKIE.

MEDIKUNTZA-Bat, S.A. enpresak, asistentzia-zerbitzuak ematen dizkie gaixorik dauden eta sendatzeko hainbat tratamendu mediko behar dituzten pertsonei. 2X25 ekitaldian hainbat eragiketa egin ditu. Horietako bat eraikinaren asegurua berritzea izan da.

2X25eko irailaren 30ean, MEDIKUNTZA-Bat enpresak eraikinaren asegurua beste urte batez berritu (eta ordaindu) du. Aurten, 5 urte bete dira asegurua enpresa horrekin daukanetik. Prima 1.200€-koa da.

Oharra: Eragiketaren bat BEZaren menpe badago, %21ekoa izango da.

476. 2X25eko irailaren 30ean, eragiketa horren ondorioz, enpresak honakoak kontabilizatzen ditu: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) (625) Aseguru-primak, 1.200€.
b) (480) Aurreratutako gastuak, 900€.
c) (57) Diruzaintza, 300€ eta (41) Hainbat Hartzekodun, 900€.
d) (4750) Ogasun Publikoa, BEZagatik hartzekodun, 252€.

477. 2X25eko abenduaren 31n, eragiketa horren ondorioz, enpresaren urteko kontuek kontzeptu eta zenbateko hauek jasotzen dituzte: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1.200€-ko gastua eta 900€-ko gastu aurreratua.
b) 900€-ko gastua eta 1.200€-ko gastu aurreratua.
c) 300€-ko gastua eta 900€-ko gastu aurreratua.
d) 900€-ko gastua eta 300€-ko gastu aurreratua.

1. KASUA- KONTABILITATE EGOEREN ANALISIA. 478, 479 eta 480 GALDEREI DAGOKIE.

Hau da GAIXO, SA enpresaren 2X20 ekitaldiko balantzea:

BALANTZEA, 20X20/12/31, €-tan

AKTIBOA	2X20	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2X20
AKTIBO EZ-KORRONTEA	**1.069.550.000**	**ONDARE GARBIA**	**1.103.279.950**
Ibilgetu Ukiezina	10.520.000	*Fondo Propioak*	*18.490.000*
Ibilgatu Materiala	1.054.570.000	Kapitala	18.490.000
Taldeko enpresetan eta elkartuetan e/luzeko inbertsioak	4.460.000	Bezeroen ekarpenak	134.250.000
Epe luzeko finantza-inbertsioak	750.000	Aurreko ekitaldietako emaitzak	-114.610.000
		Ekitaldiko Emaitza	-50
AKTIBO KORRONTEA	**462.312.500**	*Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak.*	*1.065.150.000*
Izakinak	95.500.000		
Merkataritza zordunak eta kobratzeko bestelako kontuak.	263.490.000	**PASIBO EZ-KORRONTEA**	**10.742.000**
Epe laburreko finantza-inbertsioak	602.500	*Epe luzeko hornidurak*	*2.917.000*
Epe laburreko periodifikatzeak	370.000	*Epe luzeko zorrak*	*7.825.000*
Diruzaintza	102.350.000		5.050.253
		PASIBO KORRONTEA	**417.840.550**
		Epe laburreko zorrak	*62.620.000*
		Hartzekodun kom. eta ordaintzek. bestelako kontuak	*354.969.750*
		Hornitzaileak	123.000.000
		Hornitzaileak, taldeko enpresak eta elkartuak	23.500.000
		Hartzekodunak	1.369.750
		Pertsonala (ordaintzeke dauden ordainsariak)	9.100.000
		Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	198.000.000
		Epe laburreko periodifikatzeak	*250.800*
AKTIBO GUZTIRA	**1.531.862.500**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA**	**1.531.862.500**

478. Errotazio-funtsa. Zenbatekoa eta esanahia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 44.471.950€-ko balio negatiboa du eta epe laburreko baliabideekin finantzatuta dagoen aktibo ez-korrontearen zatia da.
b) 1.058.808.000€-ko balio positiboa du, eta epe luzeko zorrekin finantzatuta dagoen aktibo ez-korrontearen zatia da.
c) 44.471.950€-ko balio positiboa du, eta esan nahi du ondare garbiak eta pasibo ez-korronteak, aktibo ez-korrontea ez ezik, aktibo korrontearen zati bat ere finantzatzen dutela.
d) 44.471.950€-ko balio positiboa du eta esan nahi du aktibo korronteak ez direla nahikoak epe laburreko zorrak estaltzeko.

479. Epe laburreko kaudimen ratioa. Zenbatekoa eta esanahia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ratioa 0,90koa da, enpresaren likidezia-egoera ona da.
b) Ratioa 1,11koa da, enpresaren likidezia-egoeran dago, balio optimora iristen ez den arren.
c) Ratioa 3,67koa da, enpresaren likidezia-egoera ona da, balio optimoa gainditzen duen arren.
d) Erantzun guztiak okerrak dira.

480. Zorpetze-ratioa (guztira). Zenbatekoa eta esanahia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ratioa 1,39koa da eta, 1etik gorakoa denez (ratioaren erreferentzia-balioa), enpresaren zorpetze-maila txikia da.
b) Ratioa 0,39koa da eta, 2tik beherakoa denez (ratioaren erreferentzia-balioa), enpresaren zorpetze-maila handia da. Asko erabiltzen ditu kanpo-baliabideak.
c) Ratioa 2,57koa da eta, 2tik gorakoa denez (ratioaren erreferentzia-balioa), enpresaren zorpetze-maila txikia da. Gutxi erabiltzen ditu kanpo-baliabideak.
d) Ratioa 0,39koa da eta, ratioaren erreferentzia-balioa baino txikiagoa denez (1 zenbakiaren inguruan), enpresaren zorpetze-maila oso txikia da. Gutxi erabiltzen ditu kanpo-baliabideak.

2. KASUA- KONTABILITATE EGOEREN ANALISIA. 481, 482, 483, 484 eta 485 GALDEREI DAGOKIE.

SANATU SA enpresaren 2X22ko balantzea eta ekitaldiko galdu- irabazien kontuko atalik esanguratsuenak hauek dira:

BALANTZEA, 2X22/12/31n, eurotan			
AKTIBOA		**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA**	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	**104.437.780**	**ONDARE GARBIA**	**115.771.562**
Ibilgetu Ukiezina	1.118.256	Fondo Propioak	36.084.858
Ibilgetu materiala	97.140.430	Kapitala	19.705
Taldeko enpresetan eta elkartuetan epe luzeko inbertsioak	4.352.495	Erreserbak	29.632.117
		Aurreko ekitaldietako emaitzak	0
Epe luzeko finantza-inbertsioak	1.826.599	Ekitaldiko emaitza	6.433.036
		Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	43.621.551
		PASIBO EZ-KORRONTEA	**2.685.500**
		Epe luzeko hornidurak	729.250
		Epe luzeko zorrak	1.956.250
AKTIBO KORRONTEA	**48.208.408**	**PASIBO KORRONTEA**	**34.189.126**
Izakinak	37.211.005	Epe laburreko zorrak	2.644.815
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	10.408.651	Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	31.481.611
Epe laburreko finantza-inbertsioak	14.088	Hornitzaileak	29.356.348
Epe laburreko periodifikatzeak	160.564	Hartzekodunak	1.418.369
Diruzaintza	414.100	Pertsonala (ordaintzeko dauden ordainsariak)	130.738
		Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	576.156
		Epe laburreko periodifikatzeak	62.700
AKTIBOA GUZTIRA	**152.646.188**	**ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA**	**152.646.188**

GALDU-IRABAZIEN KONTUA, 2X22/12/31n, eurotan	
A) Ustiapeneko Emaitza	**8.797.281**
Sarrera Finantzarioak	250.100
Gastu Finantzarioak (interesak)	-470.000
B) Emaitza Finantzarioa	**-219.900**
C) Zerga Aurreko Emaitza	**8.577.381**
Mozkinen gaineko zerga	2.144.345
D) Ekitaldiko Emaitza	**6.433.036**

481. Balantzea. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) SANATU SA enpresaren baldintzapeko bihurgarria 10.408.651€-koa da eta bezeroaren finantza-egoeraren arabera likidezia bihurtuko diren epe laburreko kobrantza-eskubideak dira.
b) SANATU SA enpresaren bihurgarri ziurra 37.211.005€-koa da eta epe laburrean enpresarentzako likidezia ziur bihurtuko diren aktiboak dira.
c) SANATU SA enpresaren baldintzapeko bihurgarria 10.422.739€-koa da eta enpresan sartuko den likidezia, baldintzaren baten mende, adierazten dute (adibidez, bezeroaren finantza-egoera, kobrantza-epemuga, etab.)
d) SANATU SA enpresaren bihurgarri ziurra 10.422.739€-koa da.

482. Enpresaren likideziaren analisia. Kapital korrontea. Zenbatekoa eta esanahia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 48.208.408€-ko balio positiboa du, eta epe laburrean ordaintzeko betebeharrei erantzuteko enpresak dituen epe laburreko aktiboak adierazten ditu.
b) 14.019.282€-ko balio positiboa du, eta espero diren ordainketa- eta kobrantza-

korronteen desfaseak xurgatu nahi ditu.

c) 48.208.408€-ko balio positiboa du, eta kapital korrontea pasibo korrontea baino handiagoa dela esan nahi du.
d) 14.019.282€-ko balio negatiboa du, eta epe laburreko baliabideekin finantzatuta dagoen aktibo ez-korrontearen zatia da.

483. Enpresaren likideziaren analisia. Diruzaintza-ratioa (DT) edo erabilgarritasunekoa. (Aukeratu erantzun OKERRA)

a) Erabilgarri dituen bitarteko likidoak (diruzaintza eta antzekoak diren aktiboak) eta pasibo korrontea erlazionatzen ditu.
b) SANATU enpresan Diruzaintza Ratioa 0,1541 da (borobilduta).
c) SANATU enpresan Diruzaintza Ratioa 0,01211 da (borobilduta).
d) Ratio horren balioa Bihurgarri Ziurraren araberakoa izan daiteke.

484. Kaudimena aztertzea. Berme-ratioa edo porrotarekiko distantzia edo kaudimen-ratioa (BR). Zenbatekoa eta esanahia: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ondare garbia enpresaren zor osoarekin lotzen du, hots, epe luze nahiz laburrekoarekin. SANATU enpresaren berme-ratioa 3,14 da.
b) Hau adierazten du: enpresaren aktiboek ematen duten gaitasun globala, hirugarrenekin dituen zor guztiei aurre egiteko. SANATU enpresaren berme-ratioa 4,14 da.
c) Enpresak duen zorraren garrantzi erlatiboaren adierazlea da; beraz, finantza-arriskuaren neurria da. SANATU enpresaren berme-ratioa 0,32 da.
d) Enpresak epe laburrean, epe laburreko zor guztiei aurre egiteko duen gaitasuna adierazten du. SANATU enpresaren berme-ratioa 1,41 da.

485. Emaitzaren analisia. Aukeratu erantzun OKERRA:

a) SANATU enpresaren errentagarritasun ekonomikoa %5,76koa da.
b) SANATU enpresaren errentagarritasun finantzarioa, zergen aurretik, %7,41ekoa da.
c) SANATU SA enpresaren errentagarritasun finantzarioa, zergen ondoren, %5,56koa da.
d) SANATU SA enpresaren Palanka-efektu finantzarioa %0,80koa da.

1. KASUA- KOSTUEN KONTABILITATEA 486 eta 487 GALDEREI DAGOKIE.

Osakidetzaren zerbitzu-erakunde batek biltegi bakarra du. Hona hemen bertako stockari buruzko informazioa:

- **2X20/11/01ean, biltegiko stocka 375 unitatekoa izan da eta guztira 1.500€ izan dira.**
- **2X20/12/02an, biltegian 200 unitate sartu dira eta unitateko kostua 5€ izan dira.**
- **2X20/12/10ean, traumatologia-zerbitzuan erabiltzeko 130 unitate entregatu dira.**
- **2X20/12/14an, biltegian 90 unitate sartu dira eta unitateko kostua 7€ izan dira.**
- **2X20/12/16an, larrialdi-zerbitzuan erabiltzeko 400 unitate entregatu dira.**
- **2X20/12/20an, traumatologia-zerbitzuan erabiltzeko 50 unitate entregatu dira.**

486. Batez besteko prezio haztatu bidezko balioztapena (PHB) erabiltzen dutela kontuan hartuta, aukeratu erantzun OKERRA:

a) Larrialdi-zerbitzuko stocka 400 unitatekoa da, eta 1.920 euroko balioa du.
b) Traumatologia-zerbitzuko stocka 180 unitatekoa da, eta 805,50 euroko balioa du.
c) Azken stocka 85 unitatekoa da, eta stockaren batez besteko prezio haztatua 5,25 eurokoa.
d) Azken stocka 85 unitatekoa da, eta 408,00 euroko balioa du.

487. FIFO ikuspegiaren arabera (lehena sartu, lehena atera), (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Oftalmologia-zerbitzuaren stocka 400 unitatekoa da, eta 1.900 euroko balioa du.
b) Traumatologia-zerbitzuaren stocka 180 unitatekoa da, eta 800 euroko balioa du.
c) Azken stocka 85 unitatekoa da, eta 407,49 euroko balioa du.
d) Azken stocka 85 unitatekoa da, eta 595 euroko balioa du.

2. KASUA- KOSTUEN KONTABILITATEA 488 eta 489 GALDEREI DAGOKIE.

MEDIKOSA SA enpresak produktu sanitarioak handizka merkaturatzen ditu, besteak beste. Azken hilabeteetan, hau izan da haien inbentarioen mugimendua (benda elastikoak):

- **2X22/11/01: biltegiko stocka 100 unitatekoa da, eta guztira 1.125 euroko balioa du.**
- **Biltegiko sarrerak:**
  - **2X22:/11/10: 75 unitate, 15€-ko kostu unitarioarekin.**
  - **2X22/11/20: 100 unitate, 17€-ko kostu unitarioarekin.**
  - **2X22/12/07: 250 unitate, 19€-ko kostu unitarioarekin.**
  - **2X22/12/15: 45 unitate, 22€-ko kostu unitarioarekin.**
- **Biltegiko irteerak:**
  - **2X22/11/15: 90 unitate, 16€-ko prezio unitarioan.**
  - **2X22/11/25: 100 unitate, 18€-ko prezio unitarioan.**
  - **2X22/12/09: 200 unitate, 20€-ko prezio unitarioan.**
  - **2X22/12/20: 80 unitate, 20€-ko prezio unitarioan.**

488. Kontuan hartuta irteerak baloratzeko metodoetatik, LIFO metodoa (*last in, first out*) erabiltzen dutela, aukeratu erantzun zuzena.

a) Biltegian geratzen diren amaierako izakinak 100 unitate dira, 1.125€-ko baliodunak.
b) Biltegian geratzen diren amaierako izakinak 100 unitate dira, 1.609€-ko baliodunak.
c) Biltegiko irteeren guztizkoa 470 unitatekoa izan da, 8.840€-ko baliodunak, LIFOren arabera.
d) Biltegiko irteeren guztizkoa 470 unitatekoa izan da, 8.450€-ko baliodunak, LIFOren arabera.



489. Kontuan hartuta irteerak baloratzeko metodoetatik FIFO metodoa (first in, last out) erabiltzen dela, Aukeratu erantzun OKERRA:

a) Biltegiko irteeren guztizkoa 470 unitatekoa izan da, 8.840€-ko balioarekin, salmenta-prezioaren arabera.
b) Biltegiko irteeren guztizkoa 470 unitatekoa izan da, 7.655€-ko balioarekin, FIFOren arabera.
c) Biltegian geratzen diren amaierako izakinak 100 unitate dira, 2.035€-ko balioarekin.
d) Biltegian geratzen diren amaierako izakinak 100 unitate dira, 850€-ko balioarekin.

3. KASUA- KOSTUEN KONTABILITATEA 490 eta 491 GALDEREI DAGOKIE.

Bestalde, MEDIKOSA SA enpresak kontrolpean eduki nahi ditu bere biltegiko produktuak. Horretarako, ABC metodoa erabiliko du. Horiei buruzko informazio hau daukagu:

Artikulua	**A**	**B**	**C**	**D**	**E**	**F**	**G**	**H**
Kostu unitarioa	100	20	6	98	5	25	1	15
Urteko kontsumoa	2.600	5.000	14.000	800	12.000	4.500	5.000	4.500

490. Lortutako ehunekoen arabera, zein dira "A" taldeko artikuluak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Guztizko kontsumoaren ehuneko txikiena dutenak.
b) Talde horretako artikuluek (A eta D) artikuluen %7,02 hartzen dute, eta kontsumoaren %74,09.
c) Talde horretako artikuluek (A eta D) artikuluen %7,02 hartzen dute, eta kontsumoaren %44,10.
d) Artikuluen %16,32ak kontsumoaren %89,58 hartzen du.

491. Lortutako ehunekoen arabera, zein dira "C" taldeko artikuluak? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Talde horretako artikuluek (E, G eta H) artikuluen %44,42 (gutxi gorabehera) hartzen dute, eta kontsumoaren %17,27 (gutxi gorabehera).
b) Guztizko kontsumoaren ehuneko txikiena dutenak.
c) Talde horretako artikuluek (E, G eta H) artikuluen % 64,05 (gutxi gorabehera) hartzen dute, eta kontsumoaren %19,42 (gutxi gorabehera).
d) Artikulu bat bera ere ez litzateke sailkatuko "C" taldearen barruan.

4. KASUA- KOSTUEN KONTABILITATEA 492 eta 493 GALDEREI DAGOKIE.

ORTOMEDICS enpresak orkatilak babesteko T-Flex Pro berria egiten du. Urteko lehenengo hiruhilekoan, salduko direnak baino unitate gehiago produzitu nahi dituzte, stocka izateko. Hauek dira hiruhileko horretako datuak (produktu bakarra):

- **Bolumena: Ekoizpena: 10.000 unitate; Salmentak: 8.000 unitate; Hasierako izakinak: 0 unitate.**
- **Unitateko kostuak (aldakorrak): Material zuzena (MZ): 8,00€; Zuzeneko eskulana (ZEL): 5,00€; Zeharkako fabrikaziokoak, aldakorrak (ZFA): 3,00€; Kostu aldakorrak unitateko (KAu) = 16,00€**
- **Aldiko kostu finkoak: Zeharkako fabrikaziokoak, finkoak (ZBF): 90.000€; merkataritzako eta administrazioko finkoak (ez industrialak): 20.000€**
- **Salmenta prezioa unitateko: 30,00€**

Zuzendaritzaren barne-oharrak:

- **Kostu industrialek (MZ, ZEL eta Zeharkako fabrikaziokoak) produktuaren kostua osatzen dute; merkataritzakoak eta administraziokoak aldiaren kostuak dira (ez dira aktibatzen).**
- **Emaitza *full cost*-ekin (xurgapena) eta *direct cost*-ekin (kostu aldakorra) alderatu nahi da, izakinen gehikuntza izan duen hiruhileko batean.**

492. Adierazitako datu eta irizpideekin, kalkulatu hiruhilekoaren emaitza *Full cost* (xurgapena) eta *Direct cost* (kostu aldakorra) erabiliz. (Aukeratu erantzun zuzena)

a) *Full cost* = 2.000€; *Direct cost* = 20.000€.
b) *Full cost* = 20.000€; *Direct cost* = 2.000€.
c) *Full cost* = 0€; *Direct cost* = − 18.000€.
d) *Full cost* = 50.000€; *Direct cost* = 50.000€.

493. Adierazitako datu eta irizpideekin, hau izango da izakinen balorazioa hiruhilekoaren amaieran: (Aukeratu erantzun zuzena)

a) *Full cost*: 50.000€; *Direct cost*: 32.000€.
b) *Full cost*: 32.000€; *Direct cost*: 50.000€.
c) *Full cost*: 18.000€; *Direct cost*: 18.000€.
d) *Full cost*: 32.000€; *Direct cost*: 32.000€.

1. KASUA- KONTRATAZIO PUBLIKOA. 494, 495, 496, 497 eta 498 GALDEREI DAGOKIE.

ZAINDUZAITEZ SA enpresak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, asistentzia-zerbitzuak ematen dizkie gaixoei eta sendatzear dauden eta tratamendu medikoen beharra duten pertsonei.

Enpresa horrek fisioterapia-zerbitzu bat kontratatu nahi du bere pazienteentzat, FISIOLASAI SA enpresarekin. Hauek dira kontratuaren ezaugarriak:



- **Kontratuaren iraupena: 3 urte, beste 2 urtez luzagarria.**
- **Aurreikusitako zerbitzuak: 15.000 zerbitzu, 3 urteko kontratuan.**
- **Zerbitzu bakoitzeko gehieneko prezioa: 75 euro zerbitzuko (BEZik gabe).**

Eragiketaren bat BEZari lotuta badago, BEZa %21ekoa izango da.

494. Erregulazio harmonizatuaren mende al dago kontratu hori? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez, horrelako kontratuak ez daude erregulazio harmonizatuaren mende.
b) Ez, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 5.382.000€-tik beherakoa delako.
c) Bai, likidazioaren oinarrizko aurrekontua 140.000€-tik gorakoa delako.
d) Bai, bere balio estimatua 215.000€-tik gorakoa delako.

495. Zein da kontratuaren balio estimatua, aldaketarik EZ egotea espero bada? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1.125.000€.
b) 1.361.250€.
c) 1.875.000€.
d) 2.268.750€.

496. Zein da lizitazioaren oinarrizko aurrekontua? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1.125.000€.
b) 1.361.250€.
c) 1.875.000€.
d) 2.268.750€.

497. Azkenik, kontratuan aurreikusitako aldaketak Sektore Publikoko Kontratuen Legean (SPKL) aurreikusitako maximoak badira, zein izango da kontratuaren balioa? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 1.350.000€.
b) 2.250.000€.
c) 2.100.000€.
d) BEZa barne hartu behar du.

498. Kontratua betetzen den bitartean, hiru urteko epea amaitu baino hiru hilabete lehenago, zerbitzuak, azkenean, 15.300 izango direla uste da. Prezioa 75€-tan mantentzen da zerbitzu bakoitzeko. Beharrezkoa al da kontratua aldatzea? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) Ez, ez baita beharrezkoa kontratista aldatzea.
b) Ez, administrazio-klausula partikularren agirian hala ezarri bada; izan ere, aldaketak ez dakar hasierako prezioaren %10 gainditzen ez duen aldaketarik.
c) Bai, Administrazio publikoen kontratuak, indarrean daudenean, hasierako prezioaren

ehuneko 20ra arte bakarrik aldatu ahalko dira, baldin eta administrazio-klausula partikularren agirietan berariaz aukera horri buruz ohartarazi bada.

d) Bai, aldaketak dauden guztietan kontratua aldatu behar delako.

1. KASUA- EROSKETAK ETA BILTEGIEN KUDEAKETA. 499 eta 500 GALDEREI DAGOKIE.

VENDA, SA enpresak bendak ekoizten ditu. Horiek fabrikatzeko, urtean erregulartasunez erosten du kotoia. Hornikuntza-epea 10 egunekoa da, eta VENDA enpresak balizko ezusteetarako gordetzen duen segurtasun-stocka 50 kilo kotoikoa da. Urtean 6.480 kilo kotoi kontsumitzen ditu bendak fabrikatzeko. Kotoi-eskaera optimoa hilabeteko kontsumoaren adinakoa da (Oharra: hilean 25 lanegun daudela kontsideratu behar da).

499. Zenbateraino jaitsi behar da kotoi kopurua biltegian, erosketa-zerbitzuek eskaera berri bat egiteko? (Aukeratu erantzun zuzena)

a) 266 kiloraino.
b) 275 kiloraino.
c) 300 kiloraino.
d) 375 kiloraino.

500. Zenbat aldiz berritu behar da biltegia urtean, hornikuntza-lotearen arabera (eskaera-kopuru optimoa)? (Aukeratu erantzun zuzena).

a) Urtean 10-15 aldiz.
b) Urtean 20-24 aldiz.
c) Urtean 24 aldiz baino gehiago.
d) Urtean 10 aldiz baino gutxiago.